



GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (HPS)



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

GERNIKA-LUMO • 2007 URTEA • BIK - Seigarren Idazlan Koaderno • DBH eta Batxilergoa

GERNIKA-LUMO
2007 URTEA

Seigarren Idazlan Koaderno

DBH eta BATXILERGOA

GERNIKA-LUMO

**SEIGARREN
IDAZLAN
KOADERNOA**

2007

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Udaleko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua
- Gernika-Lumoko Institutua
- Mertzede Ikastetxea
- San Fidel Ikastola
- Seber Altube Ikastola
- HHI Gernika-Lumo

Portadaren egilea:

- Garazi Madariaga eta Mikel Ortiz de Eribe (Batxilergoko 2. mailako ikasleak)

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

Maketa eta Inprimaketa:

- BEREKINTZA

2007ko edizioa

HITZAURREA

Bai adiskideok. Eskola munduan irakurzaletasuna eta idazmena sendotzea helburu izanda, ekiten deusagu urtero Idazlan Koadernoan zita honeri, VI.a aurtengoa.

Idazlan Koaderno honeek, baina, ikastetxeko esparruan iztea pekatua da. Zergaitik? Helduok geure burua eredutzat daukagulako ume eta gaztetxoentzat eta, azken bolada honetan behintzat, euskerearen kontuagaz alderantziz gertatzen jakulako argi eta garbi.

Datu serioak badira be, ekarri behar doguz hona euskerearen erabilerari buruz egin den kale neurketako datuak: umeen artean %72,9, gazteen artean %69,2, helduen artean %30,3 eta adinekoen artean %53,5. Erabilerari zulo baltza helduok egiten deusagu eta umeak eta gazteak, ostera, nagusi.

Pertsona helduok VI. Idazlan Koaderno honeek eredu izan daiguzala dakigun euskerea praktikan ipinteko eta eredu daiguzala baita bidean izan dan irakasle eta ikasle guztien lan eskerga.


Marina Abadia Arraibi
Hezkuntza Arloko Zinegotzia



AURKIBIDEA

“BASO MISTERIOTSUA”	Ibon Bilbao Arrien	DBH 1. maila	6
“HARTZ TXIKIA”	Aurora Isla Marañon	DBH 1. maila	9
“EGUN ELURTSUA”	Jon Uribe	DBH 1. maila	11
“ETXE MADARIKATUA”	Narrea Mandaluniz	DBH 1. maila	13
“EZUSTEKO GALANTA”	Ager Enbeita Gerrikaetxebarria	DBH 2. maila	16
“JULENEN ABENTURAK”	Ioana Olea Urionabarrenetxea	DBH 2. maila	19
“LIA-LI”	Ane Camara	DBH 2. maila	21
“NON ZAUDE MILENA?”	Irati Omaetxebarria	DBH 2. maila	23
“NIRE SENTIMENDUAK ADIERAZTEN”	Iruñe Aberasturi Franco	DBH 2. maila	26
“GOZOKI MINGOTSA”	Ane Gartzia Rivero	DBH 2. maila	29
“ILUSIOAREN INDARRA”	Nerea Suso Uriarte	DBH 3. maila	32
“AITZIBER”	Roke Ojanguren	DBH 4. maila	35
“MALTZURRA EDO EZ, AMA, BETI AMA”	Garazi Llona Llona	DBH 3. maila	42
“DIRENAK GOZATZEN”	Leire Egia Albizuri	DBH 3. maila	46
“TXUTXU-MUTXUKA HERIKO PLAZAN”	Iratxe Ortiz	DBH 4. maila	49
“BI BIZI AL DITUGU?”	Gaizka Ardanza	DBH 4. maila	52
“MAITE ZAITUDALAKO”	Jaione Onaindia	DBH 3. maila	56

“AZKEN AGURRAREN ZAIN”	Legendika Zuazua Romero	DBH 4. maila	60
“TELEBISTA”	Unai Arriola	DBH 4. maila	66
“BENETAKO MINA”	Alazne Billalabeitia Alvarez	DBH 4. maila	69
“EZ ZAITUT AHAZTUKO”	Irati Martínez Aguirrezabala	DBH 4. maila	73
“BIZITZAREN JOAN ETORRIAK”	Cristina Urionabarrenetxea	BT 1. maila	76
“HALA ERE MAITE ZAITUZTET”	Aitor Arrizubieta Izagirre	BT 2. maila	81
“HARA ETA HONA, FILOSOFATZEN”	Iera Atxalandabaso	BT 2. maila	84
“BURUZ BURU, GUDUZ GUDU”	Leire Gandarias	BT 2. maila	89
“OHEAREN ALDE HOTZA”	Mikel Ortiz de Eribe	BT 2. maila	95
“GALDERAK GABEKO ERANTZUNAK”	Iraitz Madariaga	BT 2. maila	99
“BELDUR NAIZ”	Markel Elexgarai	BT 2. maila	101
“LEHORREKO ARRAINAK”	Ibone Manzano	BT 2. maila	103
“ASPALDIKO EDERTASUNAK”	Beñat Elguren	BT 2. maila	110
“BELDURRA”	Jasone Andikoetxea	BT 2. maila	113
“MARKUS KORRIKALARIA”	Markel Arano Uriarte	HHI	116
“EMAKUME LANGILEAK”	Begoña Alzibar Zendagorta	HHI	120



Ibon Bilbao Arrien - DBH 1. maila
“Kirola egitea ona da osasuntsu egoteko”

BASO MISTERIOTSUA

Han geunden, gu, basoan zehar gu bostok, Naitan, Asier, Beñat, Endika eta ni, Ibon. Beno, beraz, han geunden gu basoan, zer eginik gabe, hara eta hona, noraezean: Eta handik gabiltzala, han non ikusten duen Endikak urtxintxa marroixka eta buztanluze bat adarretatik zehar saltari. Orduan bere atzetik korrika hasi ginen bostok, harrapatzeko asmotan.



Baina alperrik, urtxintxa hura azkarregia zen, beraz, ihes egin zigun. Urtxintxari segitu ondoren konturatu ginen galduta geundela. Aurrerantza joan ginen irteera aurkitzeko asmotan, baina hori ere alperrik. Nahiz eta oso arraroa izan, ez genuen inongo irteerarik aurkitzen, 10 kilometro ere aurrerantz egin arren. Orduan oihu egiten hasi ginen, ea norbaitek entzuten zigun, alperrik, ez zigun inork entzuten eta geroago esan zuen Naitanek, ideia asko izaten baitzituen:

–Ei, aizue, norbaitek ba al dauka mobilik? Mobilez laguntza eska dezakegu, suhiltzaileei, ertzainei, ... deitu.

Hori entzundakoan denok hasi ginen bilatzen ea mobilik genuen eta Beñatek bat zeukan, beste inork ez zuen, beraz handik deitu genuen. Udaltzainei deitu genien, mobilak tu, tu, tu, tu, tu egiten zuen, behin eta berriz saiatu ginen baina ez zegoen komunikaziorik. Ondoren, Asier zuhaitz batera igo zen, oso altua baitzen, handik goitik ea zer edo zer ikusten zuen. Baina hark ere ez zuen herririk ez etxerik ikusten, basoa baino ez. Orduan esan zuen:

–Aizue, hemendik ez da ezer ikusten, basoa baino ez.

–Zer? Ez dela herririk ez etxerik ikusten? –orduan guk.

–Ez ezertxo ere ez, ea orain zer egiten dugun.

Ba, han segitu genuen berriz ere aurrerantz oinez, zer edo zer erakargarria edo aurkitzeko asmotan. Pentsatu genuen, baita ere sute bat egitea eta horrela suhiltzaileak, helikopteroak, ... etorriko zirela, eta aurkitu egingo gintuztela, baina hori arriskutsuegia zenez ez genuen egin. Ez zitzaigun ideiarik bururutzen, inori ere ez. Bat-batean esan zuen Endikak:

–Aizue, eta erreka bat aurkitzen bagoaz eta amaitzen den tokiraino jarraitu?

–Oso ideia ona, motel: Horrela itsasora helduko gara, eta iritsi baino arinago seguru herriren bat dagoela. –Asierrek.

–Ongi, goazen ba. –Orduan nik.

Eta han joan ginen, erreka bat aurkitzeko asmoz. Gainera arrainak egongo ziren, eta jan egin ahal izango genituen, erre ostean, baina noski, horretarako sua piztu behar. Ordu bete generaman erreka bat aurkitzeko asmotan, baina ez genuen erreka txiki bakar bat ere aurkitu mundu berde hartan.

Ez, errekarik ez genuen aurkitu, baina zuhaitz erraldoi baten puntan lasto edo belar siku mordoa ikusi genuen, eta zer zen ikustera joatea erabaki genuen. Zuhaitzera Asier igo zen. Lasto mordora iritsi zenean harridura aurpegia jarri zuen, segituan jaitsi zen, eta esan zuen harridura aurpegiarekin:

–Aizue, hau oso arraroa da, han goian, lasto edo belar sikuaren gainean bi arrautza erraldoi daude, bi metro luzeran eta hiru zabalerakoak.

–Zeeer? –orduan denok.

–Ba horixe bera.

–Hau oso arraroa de, ez dago etxerik, oraindik ez dugu errekarik aurkitu eta bi arrautza erraldoi zuhaitz baten gainean? –esan zuen Endikak.

Berriz ere aurrera segitu genuen, ezertxo ere ulertu gabe, hura ez baitzegoen ulertzerik. Beñatek ur hotsa entzuten zuela esan zuen, eta laster guk ere entzun genuen. Itxaropena berreskuratu genuen. Hotsa entzuten zen tokirantz joan ginen eta azkenean erreka bat aurkitu genuen. Ura edaten hasi ginen, izugarrizko egarria baikenuen. Eta bat-batean, POM! POM! POM! Entzuten hasi zen, leku hartarantz begiratu eta a ze ezustekoa, dinosauro bat zela ohartu ginen. Korrika bizian hasi ginen, eta esan zuen bat-batean Asierrek:

–Aizue, oraintxe gogoratu dut ez al geunden ba, errealitate birtualeko makina horietako batean?

–Egia!!!! –esan genuen denok batera Asierrek esan zuena egia zela gogoratu genuenean.

Hizketan ari ginenez, ez ginen konturatu dinosauro hura gainera zetorkigula eta horretaz konturatu ginenerako, *Game over* ikusi genuen pantaila batetan. Makinako kasakoak kendu eta, ah ze lasaitua hartu genuen!

Azkenik bakoitzak gozoki batzuk erosi genituen, eta inoiz ez ginela errealitate birtualeko makina ziztrin haietako batean sartuko hitz eman genuen.





Aurora Isla Marañón - DBH 1. maila
“Irakurtzea eta igerilekura joatea gustoko ditut”

HARTZ TXIKIA

Amazonas basoaren erdian, zuhaitz handi batean, hartz familia bat bizi zen: ama, aita eta semea. Baina zuhaitz horretan jaguar bat ere bizi zen eta oso txarra eta handia zen.

Jagarra beti zegoen hartz-kumea jateko gogoekin eta aita eta ama etxetik janari bila joaten zirenean, jaguarra hartz-kumea jaten saiatzan zen, baina hartz txikia oso azkarraren zen eta inoiz ez zitzaion ezer gertatzen.

Egun batean, jateko orduan, atea jo zuten: pom, pom, pom!

–Nor da? –Esan zuten hartz guztiek.

–Jagarra naiz, atea ireki ahal didazue? Ez dizuet ezer egingo. Mesedez, atea ireki.

–Ondo da, irekiko dizugu.



Hartz txikia atea irekitzera joan zen eta... jaguarrak salto egin zuen aitaren gainera eta hil egin zuen.

Bi urte igaro ziren eta jaguarra oraindik bizi zen bertan. Hartz txikia handitu egin zen eta oso indartsua egin zen, baina ez zuen neskarik aurkitzen. Bere ama zahartu egin zen eta gaixotu ere egin zen. Hartz txikia beti zegoen ama zaintzen. Egun batean, hartz txikia janari bila joan zen eta itzultzerakoan, ama odoletan zegoen, hiltzeko zorian. Orduan, hartzak jaguarra izan zela jakin zuen. Gero jaguarraren familiarengana joan zen baina ez zegoen inor. Lasaitu ondoren, etxera joan zen.

Beranduago jaguarrak atea jo zuen eta, orduan, hartza oso haserre jarri eta atea ireki zuen jaguarra jotzeko prest. Une horretan, bat-batean, jaguarrak esan zuen:

–Geldi!! Ez jo! Arazo bat daukadalako etorri naiz: nire familia desagertu egin da!

Orduan, jaguarra negarrez hasi zen eta hartzak lagundu egin zion bere familia bilatzen. Etxetik irten eta bila hasi ziren. Jaguarrak, hartza bakarrik ikusi zuenean, bere gainera salto egin zuen eta haginka egiteko unean, gizon batek tiro egin zion jaguarrari lo egiteko dardo batekin. Gizonak hartza hartu eta joan egin zen jaguarra lurlean utzita.

Gizonak hartza eraman zuen lekuan etxe asko eta asko zeuden eta hartza kutxa batean sartu zuten eta hortxe egon zen bost egunetan zehar. Goiz batean, kutxa hori mugitzen hasi zen. Kotxe batean zegoen! Kutxak mugitzeari utzi zuenean, atera egin zuten eta zirko batera ailegatu ziren. Ordu batzuk igaro eta gero, gizon batzuk hartza harrapatzera joan ziren. Baina hartz txikiak ez zuen ezer egiten, ez baitzitzaion jende hori gustatzen.

Gau batean, hartza plan bat egiten hasi zen betirako joateko. Hurrengo gauean, kutxatik irten eta korrika joan zen edozein norabidetan. Gau guztia korrikan igaro ondoren, goizean beste leku batetara heldu zen, parke natural batera. Gero, guarda batzuk barrura sartu zuten, baina ez kutxa batera, belarrez betetzeko zelai handi batera baizik. Oso handia zen leku hura eta, gainera, hartz gehiago zeuden han: lau eme, bi har eta kume bat. Hartza eme batez maitemindu zen, eme polit batez. Eme horrek ile argia zuen eta oso begi politak. Hartza emea xarmatzen saiatu zen, baina ezinezkoa zen; eme horrek ez zion kasurik egiten, oso burugorria zen. Baina hartza itxaropentsu zegoen.

Umeak edukitzeko unea heldu zenean, hartzak emeari eskatu zion. Baina emeak egun batez pentsatu behar zuela esan zion. Ondo pentsatu ondoren, baietz esan zion eta hurrengo egun guztietan elkarrekin egoten ziren. Negua ere heldu zen eta hartz guztiak kobazuloetara sartu ziren lo egitera.

Udaberrian, denak esnatu ziren eta kanpora irten ziren jolastera. Gure hartzak esnatu zirenean, emea haurdu zegoen. Hilabete batzuk igaro eta gero, emeak bi kume eduki zituen eta bat, gure hartza bezalakoa zen, berdin berdina.


Haiek oso pozik bizi ziren, baina hartzari zerbait faltatzen zitzaion: bere aita eta ama.

Egun batetan, emearen gurasoak etorri ziren eta hartzari esan zioten:

–Nahi baduzu, gu zure gurasotzat har gaitzakezu eta horrela, ez zara hain triste egongo.

–Ez, nire gurasoak ez ditu inork ordezkatu. Ni horrela bizi nahi dut.

Eta handik aurrera hartz txikia oso pozik bizi izan zen.



Jon Uribe - DBH 1. maila

“Hondartza maite dut”

EGUN ELURTSUA

Behin batean neba-arreba biri mendira joatea bururatu zitzaien. Oso mendizaleak ziren eta aurreko egunetan euria eta euria aritu zuenez, ezin izan ziren mendira joan. Horregatik, lehenengo aterria aprobetxatu nahi zuten elurretara joateko.

Goizeko lehenengo orduan biek aurreko egunean prestatutako motxilak hartu eta mendirantz abiatu ziren.

Oso pozik zeuden. Eguna benetan zen aproposa mendira joateko eta gozatzeko. Lehenengo aldatsak igo ondoren, pixkanaka-pixkanaka elurra ikusten hasi ziren. Eta lehenbiziko bolak elkari botatzen hasi ziren.

Jolasten zeudela elur-jausi txiki bat gainera etorri zitzaien eta justu justu libratu ziren. Baina orduan konturatu ziren beraien motxilak elurraren azpian gelditu zirela. Orduan, arreba txikia beldurtuta negarrez hasi zen. Baina neba nagusiak esan zion ez izateko beldurrik. Berak aurkituko zituela motxilak. Eta orduan elurra kentzen hasi zen. Baina

han ez zen motxilarik agertzen. Gainera gero eta ilunago zegoen eta hotzaren hotzez aterpe bila joatea erabaki zuten.

Handik gutxira kobazulo bat aurkitu zuten. Hutsik zegoenez gaua bertan pasatzea erabaki zuten.

Lo zeudela zarata arraro bat entzun zuten. Otso bat zen eta bere hanka odoletan zekarren. Orduan umeak otsoarengana hurbildu eta osatzen ahalegindu ziren.

Hurrengo egunean otsoak hanka hobeto zeukala ikusita, umeengandik alde egitea erabaki zuen beraiei minik egin gabe.

Umeak goseturik baso barrenean sartu ziren janari bila eta basurde batekin egin zuten topo. Basurdea zaurituta zegoen eta beldurraren beldurrez umei eraso egiten saiatu zen. Neba-arrebak zuhaitz batera igo ziren. Orduan basurdea zuhaitza botatzen ahalegindu zen. Zuhaitza erdi ustelduta zegoenez, apurtzen hasi zen eta azkenean umeak lurrera erori ziren. Bat-batean otso bat agertu zen eta basurdeari aurre egin zion. Umeek ezin zuten sinetsi ikusten zutena.

Basurdeak alde egin zuenean, umeek otsoari eskerrak eman zizkien. Otso hura beraiek sendatutako otsoa zen. Beraien lagun berria zen eta gainera etxerako bidea erakutsi zien.

Umeak etxera ailegatu zirenean konturatu ziren herri guztia haien bila ibili zela. Denek jakin nahi zuten zer gertatu zitzaien. Nola kontatu gertatutakoa? Inork ez zuenez sinetsiko, isilean edukitzea erabaki zuten. Baina, ordutik aurrera, ahal zuten guztietan mendira joaten ziren otsoari janari apur bat eramatera.

Eta batzuetan ikusi egiten zuten.





Naroa Mandaluniz - DBH 1. maila

“Udako oporretan hondartzan lagunekin ondo pasatzen dut”

ETXE MADARIKATUA

Behin, orain dela zortzi urte, iparraldeko herrixka batean familia bat bizi zen bi umeekin etxe madarikatu batean. Ama Ziortza, aita Fernando eta umeak Alaitz eta Maider. Etxe oso polita zen, egongela bat, logela, jangela eta sukaldea zituen.

Domeka arratsalde batean, umeak sotanora bajatu ziren abentura bila. Sotanoan kar-toizko kaxa asko zeuden baina horien artean kaxa gorri bat zegoen. Astelehenean ikastola-tik bueltatu ondoren sotanora bajatu ziren kaxa irekitzera baina kaxa giltzaz zarratuta zegoen. Martitzenean Alaitz eta Maider kaxetan begira zeuden ea giltza aurkitzen zuten. Ez zuten giltza aurkitu ez, baina etxeko lorategiko mapa bat aurkitu zuten. Zapatuan lorategira bajatu ziren giltza aurkitzekotan. Pauso bat aurrera, bi atzera eta zortzi ertzetara. Pala hartu eta zulatzen hasi ziren eta han aurkitu zuten aurkitzekoa! Jolas bat eta karta bat.

Kartak hau jartzen zuen:

*“Behin, orain dela sei mila urte, etxe honetan
Laidy Leonor izeneko printzesa bat bizi*

*zen, baina bere senarrak hil egin zuen.
Beraien semeak etxe hau madarikatu nahi
zuten eta lortu egin zuten. Hortik aurrera
etxe hau madarikatuta dago.*

*Muxu bat,
Laidy Leonor”*

Alaitz eta Maider ikaratuta zeuden bai-
na aurrera segitu zuten. Bi hilabete egon ziren
jolasa ezin pasaturik baina azkenean lortu zu-
ten. Barruan giltza gorri bat zegoen. Segituan
sotanora bajatu ziren kaxa gorriaren bila baina
kaxa ez zegoen. Amarengana joan ziren ziztu
bizian. Amari galdetu zioten ea non zegoen
eta amak esan zien Matxaleneri galdetzeko,
ondoko etxeko neskatxari. Arratsalde hartan
Alaitz eta Maider euren itsulapikoekin Matxa-
lenengana joan ziren kaxaren bila. Ondoren...
Maidar eta Alaitzek karta bat idatzi zioten:



*“Kaixo Jone:
Zuk badakizunez zure amak
kaxa gorri bat eman dizu.
Kaxa hori gure etxeko
madarikazioaren egilea da. Eta gure
etxeko madarikazioa konpondu
ahal du. Ahal duzunean bidali
pakete bidez.
Maitasunez,
Alaitz eta Maider”*

Bi hilabete ondoren pakete bat Alaitz eta Maiderren izenean heldu zen. Alaitz eta Maider ziztu bizian joan ziren paketea irekitzera baina amak esan zien hurrengo egunera arte itxaroteko. Alaitz eta Maider urduri zeuden eta gau osoan lo egin ezinik egon ziren. Hurrengo egunean gosaria hartu ondoren ziztu bizian joan ziren paketea irekitzera. Maider erori eta negarrez hasi zen amak entzun zuenean, arineketan joan ziren, kaxa ireki zutenean bertan, sorginkeria eta gutun bat. Gutunean igandeko hamabietan bakarrik bete ahal zela jartzen zuen. Alaitz eta Maider aste osoa egon ziren igandea itxaroten. Azkenean

igandea heldu zen, hamabietara arte itxaron zuten eta sotanora jaitsi ziren. Sotanora jaitsi zirenean sorginkeria irakurri zuten Laidy Leonorren espiritua agertu zitzaien eta Alaitz eta Maiderrri esan zien gutun bat idatzi behar zutela beraien bizitzari buruz etxeko madarikazioa desagertzeko.

Kaixo Laidy Leonor:

*“Txikitatik gu biok abenturazaleak izan
gara eta erosketak egitea asko gustatzen
zaigu eta batez ere arazoetan sartzea.
Orain dela zortzi urte iritsi ginen hona
eta hasieratik nahi izan dugu madarikazio
hau desagertzea horregatik egin dugu hau
dena.
Maitasunez,
Alaitz eta Maider”*



Ager Enbeita Gerrikaetxebarria - DBH 2. maila

“Kirol gehienak gustatzen zaizkit, baina futbola gehien eta lagunekin egotea ere gogoko dut”

EZUSTEKO GALANTA

Baziren behin bi mutiko gazte, Jon eta Gorka izenekoak. Munitibarren bizi ziren, Oiz mendiaren magalean. Hamar urte zituzten eta euren adinerako oso ausartak eta abenturazaleak ziren. Askotan joaten ziren mendira eurek bakarrik perretxiko bila. Gurasoak ez zeuden oso gustura, beldurra izaten zuten noizbait galdu edo zauritu egingo balira ea zer egingo luketen... Baina mutikoak oso burugorrrak ziren eta askotan lortzen zuten nahi zutena egitea.

Neguko egun hotz eta euritsu bat zen eta Jon eta Gorka, azken honen etxean zeuden telebista begiratzeko asperturik. Momentu hartan oso albiste zorionsua iragarri zuten, gehienbat mutiko bientzako. Telebistan esan zuten hurrengo astean elurra egingo zuela bertan. Eta hala balitz, bazeukaten oso aitzakia ona mendira joan ahal izateko, baita elurraz gozatzeko ere. Ikaragarritzko poza hartu zuten; pentsa zenbatekoa, dantza egiten hasi ziren eta. Apur bat lasaitu ondoren, gurasoengan joan ziren mendira, elurretara, joateko asmoari buruz hitz egin ahal izateko. Nagusiek bazekiten mendira joateko eta bertan jolastu ibiltzeko asmoa zutela, eta elurra oso gutxitan egiten zuenez, azkenean baimena eman

zieten. Biak zeuden pozez txoratzen eta maleta egin eta ohera abiatu ziren oso goiz izan arren. Hurrengo egunerako indarrez soberan egon behar zuten, oso gogorra egiten zen-eta elurrez goitik behera zegoen mendi batera igozea, eta gehiago hamar urterekin.



Heldu zen azkenik Jonek eta Gorkak hainbeste amestutako eguna. Goizeko zortziak besterik ez ziren eta jadanik mutiko biak jaikita zeuden. Leihotik elur-tza ederra ikusten zuten eta ezin ziotenez irteteko gogoari eutsi, bakoitza bere etxetik atera zen aurreko egunean prestatutako guztia motxila barruan sartuz. Ez zituzten gurasoak esnatu bazekitelako ezin izango zutela etxetik irten, goizegi zela esango baitzuten. Biak irten ziren, bakoitza bere etxetik, momentu berberean eta elurra begiratu elkarrengana abiatu ziren. Biek prest zeudela esanaz batera, Oiz mendirantz abiatu ziren. Lehenengo kilometro erdia edo bide ertzetik egin behar izaten zen eta handik aurrera dena mendian zehar. Bidearen lehenengo zati hura oso pozik hitz egiten pasa zuten barre ederrak botaz. Bertatik aurrera hasten zen benetako bidaia, zuhaitz eta elurrez beteta.

Bidearen bigarren zatia hasi baino zertxobait lehenago, konturatu ziren bidea itxita zegoela, oso labainkor zegoen-eta, eta gurasoak ezingo zirela kotxez Oiz puntara igo. Bidea horrela ez balego, gurasoak mendiaren beste alde batetik igoko ziren, autoentzako bidea zegoen tokitik. Baina ez ziren albiste txar horregatik beldurtu, momentu hartan ez zuten kontu hauen ardura gehiegirik eta.

Autoen bidea utzi eta mendian zehar abiatu ziren. Bidearen hasierako zatian ez zen elur larregi ikusten, baina aurrera jarraitu ahala, elur kopurua handiagotzen joan zen. Oso ondo pasatzen ari ziren edozein gauza ukitu edo aztertzen, eta momentu batzuetan elurraz gozatzen geratzen ziren. Gehienetan elkarri elurra jaurtitzen aritzen ziren. Baina bidean aurrera egin ahala, aspertzen joan ziren, bide hura askotan ikusita baitzeukaten. Hori dela eta, momentu batean pentsatzen jarri ziren eta azkenik biek erabaki zuten beste bide bat probatzea.

Hasieran, erabaki ona izan zela pentsatzen egon ziren. Baina bidean aurrera egin ahala, erabaki txarra zela konturatzen joan ziren; gero eta sasi eta elur gehiago baitze-goen. Ez zuten asko behar izan galduta zeudela konturatzeko. Orduan oso larri jarri ziren, ez baitziren inoiz honelako egoera batean egon. Apur bat behar izan zuten lasaitzen joa-teko, baina ez zuten ezer askorik lortu, urduritasunak hantxe jarraitzen zuen. Ordu bete inguru ibili ziren noraezean eta zer egin jakin gabe. Jada ordu biak edo izango ziren gosea sartu zitzairenean eta zerbait jatea erabaki zuten. Apur bat besterik ez zuten jan, bazekite-lako, seguruenik, bertan geratu beharko zirela denbora nahikotan eta. Ondoren eseri egin ziren indarberritzeko. Ez zeuden oraindik ere oso lasai, baina zentzu gehiagorekin jokatu zuten. Biak toki beretik egin zuten sasi eta elur artean bidea zabalduz. Horrela eman zuten arratsaldearen zatirik handiena. Beste zatia eserita igaro zuten itxaropen handirik gabe. Eta mutikoen suerte txarrerako, elurra mara-mara jauzten hasi zen, gero eta zarratuago gainera. Baina Jon eta Gorka ez ziren horretaz konturatzen, zuhaitzen babespean zeude-lako eta elur apur bat bakarrik jauzten zen bertan.

Bitartean, Munitibarren, mutilen gurasoak ez zeuden oso lasai, gautzen ari baitzen eta oraindik ez ziren itzultzen. Baina bideak itxita zeudenez, ez zuten bertan geratzea beste aukerarik.

Jada mendian ez zen ezer ikusten, arratsaldeko zazpiak ziren-eta. Baina mutikoak oso ondo hornituta zeudenez, linterna ere bazeukaten. Eurena eginda zegoelakoan zeudenez eta baita gosez amorratzen, ekarritako hornigai guztiak amaitu zituzten.

Gaeko zortziak inguruan, lo hartzeko zorian zeudenean, zerura begiratu eta kea ikusi zuten. Etxeren baten tximiniatik irtendakoa izan zitekeela bururatu zitzairen, eta bi-rritan pentsatu gabe bertarantz abiatu ziren.

Nahiko kostatu zitzairen bertaraino iristea, baina azkenik euren begien bistan zegoen. Etxea ez zen oso handia, baina barruan argia ikusten zenez, bertara joan ziren oso pozik laguntza eske. Ez zitzairen bertaraino iristea erraz egin, elur asko jauzten ari baitzen. Baina apur bat ahalegindu ondoren, etxe atarira iritsi ziren bi mutikoak. Ate joka aritu ziren, baina inork ez zien irekitzen. Azkenik, eta nola jakin gabe, atea bera bakarrik ireki zen. Jon eta Gorka segituan sartu ziren hotzari eutsi ezinik. Barruan inor ez zegoela ematen zuenez, motxilak izkina batean utzi eta tximinia ondora hurbildu ziren berotu ahal izateko. Lehen baino nahiko lasaiago zeuden eta bertan ez zegoenez telefonorik, gau hori bertan igarotzea pentsatu zuten. Han zegoen manta bat hartu zuten, eta tximinia ondoan lokartu ziren hurrengo goizean bizkor etxeratzeko asmoz.

Gauerdia zen mutiko biak zarata batek esnatu zituenean. Beste gela batetik zetorren hotsa; eta beldur handia izan arren, zer zegoen ikustera joan ziren. Orduan, atea ireki eta, huraxe bai sorpresa! Olentzeroren antz handia zuen gizon bat zegoen. Hark buelta eman eta egia zela konturatu ziren, Olentzero zela pipa eta guzti gainera. Berak ere susto handia hartu zuen. Hirurak apur bat lasaitu zirenean, Olentzerok hara nola heldu ziren galdetu zien eta hauek gertatutako guztia kontatu zioten. Gero, Olentzerok, Gorka eta Jon ez zedela oso seguru ikusi zuen eta euren zalantza zein zen jakin nahi zuela eta, galdetu egin zien. Orduan, berak egia zioela argitzeko, umeen kartak erakutsi zizkien; pilo bat zeukan, baita eurenak ere. Gero denak oheratu ziren.

Hurrengo eguneko goizeko zortzietan esnatu ziren, baina Olentzero jada jaikita zegoen beraientzako gosaria egiten. Jaiki, arropak jantzi, gosalduta eta hitz egiten bederatziak heldu ziren. Mutilak joan egin behar ziren eta Olentzero agurtu ondoren etxerantz abiatu ziren. Mendian behera, bidaia hasi zuten modu berberean zihoazen, saltoka eta elurra elkarri botaz. Eta mutikoen suerte onerako, bide erdian gurasoak agertu ziren, oso larrituta, euren bila. Gurasoek egin zuten lehenengo gauza beren semeak bersarkatzea izan zen. Eta hurrenik gertatu zitzaiena azaltzeko eskatu zien. Mutilek bizitakoa kontatu zien. Baina gurasoek ez zuten sinistu Olentzero ikusi zuten kontu hura; Jon eta Gorka asko ahalegindu ziren egia zela esaten, baina alferrik.

Azkenik Munitibarrera itzuli ziren denak eta oso pozik zeudenez, denen artean jatordu oso gozo bat prestatu zuten. Honela amaitu zen Jonen eta Mikelen abentura. Ordutik aurrera mutil bi hauek Olentzero jendeari laguntzeko hor nonbait badagoela sinisten dute.





Ioana Olea Urionabarrenetxea - DBH 2. maila

“Tenisean jolastea gustatzen zait”

JULENEN ABENTURAK



Bazen behin, Julen izeneko mutiko alai bat. Begiak urdinak zituen, zeruaren antze-koak; ilea beltza, ikatza bezalakoa eta azala zuria, elurra bezalakoa.

Julen bere gurasoekin joan zen mendira egun batean. Mendia nahiko handia zen eta baso polit-polit batek estaltzen zuen. Bertatik itsasoa ikusten zen eta Julenek oso atsegin zuen mendi hartara joatea.

Halako batean, perretxiko oso arraro batzuk ikusi zituen. Bere gurasoak urrunduz zihozazen bitartean, Julen perretxikoei begira geratu zen. Arratsaldeko zortzietan, Julenen gurasoak etxean zeudenean konturatu ziren Julen falta zela eta ertzainei deitzea erabaki zuten.

Julen aspertu zen perretxikoak begiratzeaz eta, halako batean, konturatu zen bere gurasoak ez zeudela mendian. Jadanik gaua zen eta aterpe bat egitea pentsatu zuen. Gaua, behintzat, epeletan pasatzeko. Eskerrak udaberria zela eta hotz handirik egiten ez zuela. Julenek jaka lodia zeukan soinean eta poltsikoetan gailera batzuk. Aterpea egiten hasi zen. Hosto batzuk hartu eta eurekin egiten zituen mantak.

Hurrengo egunean ertzainak hasi ziren mendia arakatzen, baina alferrik, ezin izan zuten Julen aurkitu ibaian bainatzen baitzegoen.

Julenek gosea zeukan eta ahalegindu zen arrainak harrapatzen, baina alferrik. Hortaz, egur bat zorrotzu zuen eta berriz hasi zen arrantzan. Zortea izan zuen eta amuarrain bat arrantzatu zuen. Sua egin zuen eta jan egin zuen. Honelaxe elikatu zen.

Bere gurasoak oso urduri zeuden euren semea ez zutelako aurkitzen. Ertzainek esan zieten hurrengo egunean berriz ahaleginduko zirela baina gauzez. Bitartean, Julenen amak senitartekoei eta lagunei deitu zien ea Julen ikusi zuten galdetuz; baina ezer ez, berdin jarraitu zuten.

Julenek nahiko ondo pasatzen zituen egunak, baina hotza pasatzen zuen eta triste zegoen.

Gaua heldu zen eta Julenek, hotza pasatzen zuenez, kobazulo batera sartu zen.

Ertzainak hasi ziren mendia arakatzen eta, ez zuten aurkitu. Ertzainek Julenen gurasoei esan zieten eta, noski, Julenen gurasoak oso arduratuta zeuden.

Julen itzartu zen eta ibairantz zihoala, zulo batean sartu eta orkatila bihurritu zuen. Irten zen zulotik baina asko kostatzen zitzaion ibiltzea. Iritsi zen ibaira, ura edan eta bertan geratu zen jesarrita.

Bere gurasoak nekatu ziren itxaroteaz eta mendira joan ziren. Iritsi ziren eta hasi ziren euren semearen bila. Lehenengo, mendi tontorrera joan ziren ea zerbait ikusterik zuten, baina ezer ez. Orduan, mendia goitik behera arakatzen hasi ziren: lehenik basoa, gero mendiaren erdigunea, kobazuloak,... Baina Julen inondik agertu gabe jarraitzen zuen.

Orduantxe bururatu zitzaion aitari Julen ibaian egon zitekeela; beste leku guztiak miatu zituzten eta. Bertara joan eta han aurkitu zuten Julen, ibai ondoan eserita. Amak oihukatu zion:

–Julen!!!!

Eta Julenek harriturik:

–Amatxo?


–Julen! Baina zer gertatu zaizu eserita egoteko? –erantzun zion amak.

–Ba... orkatila bihurritu dut eta ezin naiz ondo ibili –erantzun zion Julenek.

Bueltatu ziren etxera, medikuarengana joan eta denak oso pozik geratu ziren. Julenek susto handia hartu zuen, baina, hala ere, askotan joaten da mendira, bai gurasoekin bai lagunekin, ikaragarri gustatzen zaio eta.

Eta hala bazan, edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Gernikako plazan.





Ane Camara - DBH 2. maila

LIA-LI

Istorio hau hamahiru urte dituen neskatxa batek kontatzen digu. Lia-Li deitzen da eta txinatarrak da jatorriz. Sei urte zituela Euskal Herrira etorri zen hemengo bikote batek adoptatu zuelako. Lia-Li txikitatik umezurztegi baten egon zen. Berak betidanik nahi izan zuen famili bat izan, nahiz eta bera umezurztegian ondo zainduta egon. Inoiz ez zuen bere ama ezagutu, bertan egon zen sei urtetan eta oraindik ere ez du bere ama biologikoa ezagutzen dituen hamahiru urteekin. Baina Lia-Liri ez dio arazo horrek kezkatzen, bera oso pozik dagoelako orain bere gurasoekin, izan ere berarentzat bere benetako gurasoak hauek dira, azken urteotan bere alboan egon direnak, bere arazo guztiak konpontzeko prest. Hala ere bazegoen arazo bat bere gurasoek oraindik ezagutzen ez zutena eta arazo horregatik oso txarto sentitzen zen.

“Kaixo, ni Lia-Li naiz. Hamahiru urte ditut eta Deustun bizi naiz Bilbo hiriaren auzo batetan. Sei urtetik nago hemen eta oso ondo egon naiz Deustuko Institutuan sartu nintzen arte. Orain dela urte bat institutura joan nintzen. Han jende berria ezagutu nuen, beste

eskola batzuetako umeak bertara etorri zirelako. Kontua zen azkeneko bi urteetan niretzat eskolara joatea infernu bat izan dela.

Nire gelan zegoen mutil errepikatzaile bat zen nire amets-gaiztoaren protagonista. Ikusi ninduenetik, burla egiten hasi zen. Denetarik deitzen zidan. Nire begien formagatik barre egiten zidan eta nire kulturari buruzko komentario barregarriak egiten zituen ni mindu nahian. Ikaskideek bere jokoa jarraitzen zuten, beldur zirelako.

Pertsona bakartia bihurtu nintzen; ikaskideak nigandik gero eta urrunago zeuden.

Hasieran burla bakarrik egiten zidan baina hilabete batzuk pasatu ondoren bere menpe nengoen, beren nahi guztiak betetzen. Denetarik eskatzen zidan eta nik beti egiten nuen. Bere etxeko lanak burutzen nituen, bere bizikleta garbitzera behartzen ninduen eta bazkaltzeko bokadiloa berari eman behar izaten nion ere.

Ni konturatzen nintzen, norbaiti esan behar niola baina gero gertatuko zenaren beldur nintzen. Ihes egin nahi nuen baina ezinezkoa zen eta egunero infernu berberarekin aurkitzen nintzen. Asteburu askotan ez nintzen kalera irteten bera ikusteko beldurrez. Beldurra nuen asteburua pasa ondoren astelehena heltzeko eta berriz eskolara joateko. Ezin nuen horrela jarraitu, gauetan ez nuen lorik egiten biharamuneko amets-gaiztoekin pentsatzen aritzen nintzelako.

Egun batean Maite irakaslearekin jolasaldian topo egin nuen. Nire aspaldiko irakaslea zen. Oso ondo ezagutzen ninduen eta honela galdetu zidan:

–Kaixo Lia-Li. Aspaldian ez zaitut ikusi. Zelan zabilta institutuan?

–Ondo. –Baina nire aurpegiak kontrakoa adierazten zuen.

–Zer gertatzen da Lia-Li? Zure begiak triste zamar daude, zerk kezkatzen zaitu?

–Niri? Ezer ere ez.

–Ba ez du hori ematen. Sartu gaitezen barrura hitz egitera!

Orduan nire begiak malkoz bete ziren eta nire barru guztia hustu nuen, dena kontatu nion. Amaitu ondoren inori ezer ez esateko erregutu nion baina berak hori ez zela bidea azaldu zidan eta berarengan konfiantza izateko eskatu zidan.

Beldur nintzen baina nire barnetik irteten zen indarrak aurrera jarraitu behar nuela esaten zidan. Azken batean ez nengoen bakarrik, nire inguruan gurasoak, ikaskideak, irakasleak zeuden eta bera pertsona bakarra zen. Arazoa ez zen nerea, berea baizik. Indarberritua sentitzen nintzen. Maite izan zen nire minaren askatzailea.

Nire askatasunaren kontra zebilen gartzelariarekin hitz egin zuten. Bere gurasoak ere arazoaren jabe egin ziren eta mutiko horrek laguntza behar zuela erabaki zuten.

Gaur egun ez dago institutuan, terapia psikologikoa deritzon tratamendu bat jarraitzen ari da. Nik institutuan jarraitzen dut. Oraindik min handia sentitzen dut nire barnean baina zihur nago aurrera egiteko gai naizela. Lagunak asko lagundu didate. Aurretik haien barkapena jaso nuen eta denok ikasi dugu istorio honekin.

Bizitzan hainbat oztopo agertzen dira, baina gure eskuetan dago aurre egitea edo haien menpe jaustea. Nik asko ikasi dut, urte honetan pertsona berri bat naiz eta argi daukat beldurra pertsona txikiak bihurtzen gaituela eta ni oso pertsona baliagarria naiz, neuk horrela pentsatzen dudalako. Neuk eman nuen aurrerako pausua bestela isiltasunak infernura eramango ninduen betirako.

Denok daukagu gure tokia mundu honetan, zuk ere, laguna, zurea duzu!



Irati Omaetxebarria Villa - DBH 2. maila

non zaude milena?

Orain dela urte batzuk, nire familia eta ni, Cadizeko, Caños de Meca herrira joan ginen, udako hamabost egun pasatzera. Herri hura oso txikia izan arren, jende asko bizi zen eta jipy asko zeuden beraien bitxikeriak saltzen betiko moduan.

Gure etxea hondartzaren gainean zegoen. Bost pausutara hondartzako area ukitu genezakeen eta gauetan urrun-urrunetik Maroccoko argiak ikusten ziren. Trafalgarreko faroa ere ikus genezakeen, baita itsasontziak, faroaren argiari esker, kostaldera nola iristen ziren ere. Baina nire ustez gauetako hoberena familia osoa terrazan esertzea eta zeruan zeuden izar distiratsuak eta ilargi eder borobila ikustea zen. Nire aitak kontatzen zituen istorioak entzutea oraindik hobea zen.

Nire familiaren bazkal orduko betiko gaia, telebistako albistetan entzundako, atze-ritar ugari ari direla Espainiara etortzen zen, batez ere Caños de Meca herriko hondartzara. Ni goizero goizero zortziak aldera izugarrizko logurarekin jeikitzen nintzen, eta berehala terrazara hurbiltzen nintzen ea pateraren bat zegoen ikusteko, baina paterarik ez zegoen inoiz.

Baina eguerdi batean famili osoa terrazan bazkaltzen geundela, itsasoaren soinu goxoa entzuten, nire aita terrazara hurbildu zen. Urrunean zerbait ikusten zuela esan zigun. Ni poz-pozik jarri eta prismatikoak hartu nituen. Urruneko gauza borobil, beltzarana patera bat zen. Bertan hamabost bat lagun zihoazen eserita. Haietariko bat haurdu zegoen eta beste bat nire adineko neska bat zen.

Paterako hamabost lagunak hondartzara heldu bezain laster, gauzak hartu, patera bertan utzi eta taldeetan banatu ziren. Batzuk mendira bidea hartu zuten eta beste batzuk gure etxerantz hurbildu ziren zaratarik atera gabe.

Gure etxera zetozenak bost lagun ziren eta haietariko bat nire adineko neska bat zen. Etxera heldu bezain laster, beraien hizkuntzan laguntza eskatzen zebiltzan. Guk ezer ulertu ez arren beraien aurpegietako estualdia eta goseak dena esaten zigun.

Bat-batean neska hura nire oinetakoei begira gelditu zen.

Bera oinutsik zegoen, basatzaz beteriko kamiseta eta praka busti batzuekin jantzita zegoen. Bere ilea trentzez beterik eta bere oinak zauriz josita zeuden. Baina berehala bere aurpegian irribarre goxo bat ikusi nuen eta eskuetan nituen oinetakoak jantzi zituen. Oso pozik jarri zen eta ni ere harro egon nintzen egin nuenagatik. Neskatzak keinu baten bidez bere izena esan zidan: Milena zen.

Denak ezagutu ondoren etxe barrura gonbidatu genituen. Zeukaten gosea kendu ezina izan arren, gure laguntza eskertu zuten.

Gure gurasoak sukaldean hitz egiten zeundela Milena eta ni nire logelan marrazkiak egin ez eta keinuen bidez komunikatzen ginen. Momentu baten Milenak familia zoriontsu baten marrazkia egin zuen: Hamar pertsona mahai inguruan hitzegiten zoriontsu eta alai.

Bat-batean poliziaren kotxeen soinua entzun bezain laster, aurpegian zuen irria, desagertu egin zen eta korrika bizian beraien kideek, mendirantz hartu zuten bideari, hasiera eman zioten urduri. Milena negar batean zegoen.

Milena agurtu gabe joan arren, ulertzen dut bere joera; poliziek harrapatu izan balute, berriz ere beraien herrialdera eramango zuketena eta nik hori ez nuen nahi.

Milena gauero-gauero nire buruan sartuta nuen eta nire buruari mila galdera egiten nizkion: Ea poliziak harrapatu badute? zertan ariko da momentu horietan? familia osoa batera zegoen? Caños de Mecako itsasoan bainatzen nintzen bakoitzean, nire lagun maiteak itsaso horretan, ordu latsak pasatu zituela, gosearekin, olatuen mugimenduekin mareatuta... gogoratzen nintzen.

Udako hamabost egunak Milenarekin pentsatzen egonda, egunak pasatu zitzaizkidan. Gernikara itzultzeko eguna iritsi zen. Maletak egin eta dena lehenengo egunean zegoen moduan utzi genuen.

Gauzak hartu, eta triste-triste kotxera igo eta lo hartu nuen Gernikara iritsi ginen arte.

Lo kuluxka luze horretan Milena agertzen zen, bere irribarre goxoarekin, nire etxean bizitzen uda osoan.

Esnatu nintzenez, konturatu nintzen amets hura gezurra zela eta amets hori nire gurasoei kontatu behar niela egia bihurtzeko.

Gernikara heldu eta hurrengo egunean nire lagunei kontatu nien pasatu nuen esperientzi ederra, ahaztezina. Nire lagunak harrিতuta geratu ziren.

Lau hilabete pasatu ondoren Milena nuen gogoan, eta amari galdetu nion ea Milena gure etxera etorri ahal zen gabonak pasatzera. Amak hori ezinezkoa zela esan zidan, Milena bezalako neska bat ekar genezakeela baina Milena ez.

Nire gabonetako oparia neska bat adoptatzea izan zen. Afrikako orfanato batetara joan ginen neska bat hartzeko asmoarekin eta gure familiako beste bat izatekotan.

Bapatean neska beltzaran bat ikusi nuen ahulki bati agarratuta negar batean. Berarengana hurbildu nintzen eta MILENA zela konturatu nintzen.

Milenak ikusi ninduenean, bere aurpegiko negarrak kendu eta betiko irribarre goxoa berriz zabaldu zitzaion. Esan zidan, bere familiarengandik urundu zutela.

Orduan, ni poz-pezik gurasoengana hurbildu eta Milenak kontatutakoa kontatu nien eta ezer pentsatu gabe Milena gurekin etorri zen. Bere ametsak egi bihurtu ziren, famili zoriotsu bat izan zuen.

Denak poz-pezik Milenaren ongi etorria ospatu genuen gabon egunean.



Irene Aberasturi Franco - DBH 2. maila

“Frontenisera jolastu, ordenagailuan ibili eta hitz egitea gustatzen zait gehien”

NIRE SENTIMENDUAK ADIERAZTEN

2006ko abenduaren 24a, astelehena.

Gaur da lehenengo eguna idazten dudala. Ez dakit ondo zerk bultzatu nauen egunerokoa idazten hastera, beharbada amak oparitu didalako eta bera pozik egoteko, edota neure barrua husteko premia dudalako eta ez dakidalako nori adierazi neure sentimenduak. Lagun asko eta asko ditut, baina asko kostatzen zait sentitzen dudana azaltzea oso lotsatia naiz-eta. Uste dut egunerokoan idaztea ideia ona dela, agian horrela nire sekretuak norbaiti kontatuko banizkio bezala sentituko naiz. Beno, beno, ez dakit, baina probatzea ez da kaltegarria izango, ezta askoz gutxiago ere!

Beti bezala hor zegoen bere usain goxo eta guzti bere lekuan eserita txukun-txukun zituelarik bere koaderno eta liburuak. Ez dut inoiz horrelako pertsonarik ezagutu. Kiroletan oso ona da, nota onak ateratzen ditu, lagun mordoa dauka (nola ez horren jatorra izanik) eta hori guztia gutxi balitz, oso ederra da. Guztiz maitemindurik nauka, baina nik arazo bat daukat eta arazo hori da ez dakidala nola adierazi maite dudala; lehen esan dudana bezala oso lotsatia naizelako. Agian bihar saiaturiko naiz esaten maite dudala, baina ez dut uste

ausartuko naizenik; gainera ez dut uste berak maite nauenik. Hori bai, lagun handi-handiak gara, txikitatik ezagutzen baikara eta gure gurasoak lagunak direnez, askotan elkarrekin bazkaltzen dugu. A ze suertea daukadan... je je Beno ohera joateko ordua iritsi zait, berriketak alde batera utziko ditut eta gabon! Ui! Miren izena duela esatea ahaztu ez zait ba...

2006ko abenduaren 25a, asteartea

Oraingo honetan atsedendian nirekin izan da berriketan eta gustura zegoela iruditu zait; neure bizitzako egunik onena izan da. Bere lagunei ia ez die kasurik egin eta barre algaraka egon gara gure gauzei buruz hitz egiten. Inoiz baino laburragoa egin zait atsedendia, berak esan dit ea nahi dudan biharko atsedendian ere elkarrekin egotea. Nik baietz esan diot noski, baina txarrena da ez naizela ausartu maite dudala esaten. Atsedendian bere begiei begira egon naiz eta konturatu naiz inoiz ez diodala begietara begiratu lotsarengatik. Oso begi ederrak dauzka, ilargi betea bezalakoak, handi-handiak eta argiak, gris kolorekoak. Gaur ez da ezer gehiago gertatu, baina niretzat hori aski da gaur lo primeran egiteko.

2006ko abenduaren 26a, asteazkena

Atsedendian, atzo nioen bezala, batera egon gara. Hamabost minutu pasatu direnerako ez dugu jakin zer esan, baina orduan ausartu naiz galdetzera zapatuan geratu nahi baldin badu herrian bertan. Bera lehendabizi pentsakor geratu da, baina azkenean baiezkoa eman dit. Ni oso pozik jarri naiz eta etxera heltzerakoan zer arropa jantzi behar dudan pentsatzen aritu naiz. Badakit oraindik denbora asko dudala asteazkena baita, baina barruan neukan zirrararen zirraraz dena antolatzen hasi naiz.

2006ko abenduaren 27a, osteguna

Gaur atsedendian ez gara elkarrekin izan, ni ez bainaiz ausartu berarengana joaten, eta uste dut berari ere gauza berdina gertatu zaiola edo agian ez zuen nahiko nirekin egon. Ez dut uste hori denik; gainera, nitaz maitemintzen ari dela uste dut, baina oraindik goizegi da hori esateko. Zapatuan ikusiko dut maite baldin banau ala ez, galdetu egingo diodalako. Maite baldin banau, lotsa izan arren, zin egiten dut nire sentimenduak adieraziko dizkiodala, bai horixe!

2006ko abenduaren 28a, ostirala

Gaur gelara sartu naizen momentuan niregana etorri da, baina triste zirudien, eta hala zen. Esan dit bihar ezingo genuela elkar ikusi eta negar egiteko gogoa etorri zait, baina negarrari eutsi diot. Oso triste egon naiz klaseko lehenengo hiru orduetan; gero atsedendira jaitsi garenean, esan dit itxaroteko, nirekin hitz egin behar zuela. Pikutara bidaltzeko zorian izan naiz, baina nahiago izan dut entzutea. Bat-batean “inuzente, inuzente” esaten hasi zait, eta orduan gogoratu naiz “inuzente eguna” zela! Barre algaraka hasi gara biok eta orduan kristoren poza sentitu dut neure barnean. Esan diot ez zaidala asko gustatu bere txantxa, atsekabetu egin bainaiz eta zin egin dit ez didala berriz antzekorik egingo. Egia esan, nik ez dut uste hori egia denik, bera oso broma zalea baita.

2006ko abenduaren 29a, larunbata

Gaur etxean idatzi beharrean egunerokoa, itsaso ertzeroa joan naiz idaztera, bertan hobeto sentitzen naizelako eta errazago husten dudalako neure barnea.

Azkenean heldu da eguna! Goiz guztia aritu naiz pentsatzen zer esango diodan batera gauden bitartean, eta azkenean, ondo pentsatuta izan dudanerako arratsaldeko lau eta erdiak izan dira. Bostetan lagunekin geratu naiz eta zazpiak arte beraiekin jolasean egon naiz. Gero zazpitan Mirenekin geratu naiz mendiaren bazterrean. Zazpiak eta laurdenak ziren eta oraindik ez zen agertzen. Bat-batean neure segapotoaren hotsa entzun dut. Bera da, bere ahots goxoa entzuten da segapotoaren beste aldean. Dagoeneko pentsatzen ari izan naiz guzti hau broma bat izan dela esango didala eta nire bihotza ez da beti bezala funtzionatzen ari; baina ez. Esan dit ez zuela aurkitzen gu geratutako lekua. Neu joango naizela bera zegoen tokira esan diot. Berriz ere bihotzaren taupadak sentitzen nituen azkar-azkar, urduri nengoelako. Heldu naizenean, han zegoen inoiz baino ederrago niri itxoiten. Bi musu eman eta eseri egin gara. Orduan hitz egiten hasi gara azterketei buruz eta beste hainbat gauzari buruz. Ordu erdi pasatu denean, biok isilik gelditu gara, eta bat-batean bere ezpainetara hurbildu ditut nireak eta berak bere eskua neure ezpainetan jarriz esan dit ez didala minik eman nahi eta baiezkoa eman zidala ni oso jatorra nintzelako, baina berak badaukala mutil laguna eta geurea ezinezkoa zela. Orduan asko atsekabetu naiz eta korrika alde egin dut. Etxera etorri naiz eta jarraian egunerokoa idazten hasi naiz. Orain hemen nago negarrari eutsi ezinik eta orain onena ohera joatea daukat.

2006ko abenduaren 30a, igandea

Gaur arratsaldeko lauetan neure segapotoak zarata egin du eta hartu dudanean bera zen berriz ere. Esan dit gauza garrantzitsu bat kontatu behar zidala eta nik ezetz esan diot, nahiko min eman didala dagoeneko; baina berak, hala ere, berriz ere erregutu dit zazpitan plazan geratzeko eta orduan baietz esan diot garrantzitsua zirudielako. Ordua heldu denean berak kontatu dit atzo esandakoa gezurra zela. Ez zeukala mutil lagunik; baina oso lotsatuta zegoenez, hori esatea bururatu zitzaiola, eta egia esatera joan zenean alde egin nuela.

Orain biok elkarrekin gaude, berak maite nau, bai horixe! Eta nik ere argi daukat bera maite dudala. Jada ez daukat egunerokoaren beharrik neure sekretuak Mireni kontatzen dizkiot eta; eta gaurtik aurrera ez dut gehiagorik idatziko! Beraz, agur bero bat eta arazoak ditudan beste batera arte.





Ane Gartzia Rivero - DBH 2. maila

“Gu noizbait erortzeak, ez du esan nahi berriz altzako ez garenik”

GOZOKI MINGOTSA

Badira jada bi hilabete nire bizitzako zati bat kendu zidatela. Nire bihotza suntsitu-ta utzi zutela. Mundu honetan maiteen nuen gauza desagertu zen. Egun batetik bestera, neguan zuhaitzek hostoak galtzen dituzten moduan, ni ere hosto gabe geratu nintzen; biluzik. Nire alabak; gaueko ilunak ilargiaren argi izpi goxoak maite dituen bezala maite nituen. Baita hori baino gehiago ere, ezin azal dezaket sentsazio hura, izan ere, ama batek bakarrik senti dezake nik sentitzen nuena. Baina bizitza aurrera doa eta beraiek ikusi ahal banaute, zer esango dute? Ziurrenik:

“Hori ez da gure amatxo. Gure amatxoren antz handia dauka, baina ziur ez dela bera. Non da alaitasunez, berotasunez, misterioz... beteriko ama?”

Horregatik ezin naiz hemen geratu nire penak kontatzen eta heriotza horretan pentsatzen. Izan ere, nik sufritzeagatik, ez da ezer aldatuko. Gainera, nire senarrari gero eta kasu gutxiago egiten diot eta ni ez naiz gaizki pasatzen ari den bakarra. Hala ere, ezin ditut Laiene eta Julene burutik kendu. Ezin dut!

Laiene, nire alaba zaharrena, Julene bezala, munduan ama batek eduki dezakeen alabarik onena zen. Psikologikoki oso irekia, alaia, esku zabala. Horregatik lagun asko zituen; beti maite zuen jendearen ganean egoten zelako. Beti laguntzeko prest. Norbait triste zegoenean beti alaitzen zuen, bere ahots fin eta goxo harekin, hitz ezin politagoak esanez edo begirada eta irribarre bero batekin. Batzuetan abestu egiten zizun edo besar-kada handi bat eman. Denok maite genuen Laiene, gure Laienetxu. Fisikoki, bere amona bezalakoa zen; argala, baina beso eta hanka gihartsuez babestutako neskatxa. Ile kizkurra eta ile horia. Begi berde dizdiratsuak, bere hamahiru urteek, bizitasuna ematen zieten aurpegi polit hari. Preso batek, libre izatea nahiko lukeen moduan nahi zuen bizitzea. Beti aritzen zen esaten: “Bizitza aprobe txatu behar da, agian, nork jakin, bihar ez gara hemen egongo”. Eta arrazoi zuen.

Julene, berriz, oso ezberdina zen. Lotsatia ezagutzen ez zuenekin, pixka bat itxia. Baina bere inteligentziak denok uzten gintuen txudituta. Hamar urte besterik ez zeuzkan, baina ikaragarria zen bere heldutasuna. Bere hizkera, pentsakera; dena. Nahiko itxia zen arren, beti zegoen lagunez inguraturik, denak zioten Juleneri errespetu eta estima handia. Fisikoki ere, Julene eta Laiene oso desberdinak ziren. Hau ere argaltxo zen; ume asko bezalakoa. Baina bere aurpegi politak denak uzten zituen aho zabalik. Bere ezpain goxoak, marrubi baten kolorekoak. Bere sudur txikia. Bere begi beltz handiak, bizitasunez beteriko gaua ziruditen. Eta bere betileak oso luzeak ziren, gezurrezkoak bezalakoa. Ile fin-fina zeukan; ukitzerakoan, bere barnea ukitzen ariko bazina bezala zen. Sentsazio ezin hobea.

Baina gertaera hau, egun ikaragarri hartan zer gertatu zen, hasieratik kontatuko dut. Martxoak hamahiru, inoiz ahaztuko ez dudana eguna da; gorroto eta pena izugarriarekin gogoratuko dudana. Egunduratsua zen, horregatik, igandea zenez, familia guztia etxean geratu ginen. Bi alabak (Leiene eta Julene) eta gurasoak (Amaia eta Jokin). Laugarren pisu batean bizi ginen, ikuspegi zoragarria zeukan etxe batean. Alboko etxean Patxi bizi zen, asko maite genuen, pertsona ezin hobea gogoratzen hartzen baikenuen. Laurok ginen egongelan, ikarazko pelikula bat ikusten. Ni pixka bat beldurtu nintzen (hogeita hamabost urte neuzkan arren ni ere...) eta sukaldera joan nintzen afaria prestatzera. Bertan, ordu bat inguru pasatu nuen eta gero (etxean zegoen isiltasun izugarriak harrirituta) egongelara itzuli nintzen. Han, denak zeuden lo, edo hori uste nuen nik. Esmatzen saiatu nintzen, baina alferrik. Segituan, anbulantziari dei ginen nion eta oso kezkatuta itxaron nuen.

Anbulantziak hamar bat minutu tardatu zituen, baina niretzat urte bat izan balitz bezala izan zen. Ospitalera iritsi ginenean, ni negar batean nengoan, zer egin ez nekiala. Medikuek mila galdera egiten hasi ziren, zer gertatu zen jakin nahian analisisen emaitzak ateratzen ziren bitartean. Baina emaitzak atera zirenerako, jada berandu zen. Juleneren eta Laieneren bizitzek alde egin zuten; agortzera doan bonbila batek bezala. Isilik, kexa bat ere esan gabe. Nire senarra, Jokin, gogorrakoa zen eta hau salbatzea lortu genuen. Medikuek esan zuten ez zuen zentzurik; nire bizitzako diamanteak, toxikopen batengatik hil ziren. Nik ezin nuen ulertu zer gertatu zen. Buruari bueltak eta bueltak ematen ari nintzen. Halako batean konturatu nintzen larunbatean, Patxiarekin, nire auzokoarekin, hizketan aritu nintzela eta berak esan zidala etxean intsektu asko zeuzkala eta zerbait egin behar zuela. Orduan ulertu nuen zer gertatu zen: Patxi pestizida bat bota zuen etxean, baina

berak ez zekien produktu hura, lurrintzean oso toxikoa zela. Dena argituta zegoen nire buruan; baina nire alabak, gehien maite nuen gauza, ez ziren gehiago nirekin egongo.

Familiak asko lagundu zidan; nirekin egon ziren gehien behar nuen momentuan eta horrek, meritu handia zeukan. Aste baten buruan Jokin etxera bueltatu zen, nire ondora. Biok suntsituta geunden, goizetan ez ginen ohetik altxatu ere egiten. Gauean, berriz, ez genuen lorik egiten. Bizitzeko gogoa desagertu egin zitzaigun.

Denbora pasatu ahala, bizitzak aurrera jarraitzen zuen eta momentu txarrak pixka bat ahaztu genituen, beraiekin bizitako momentu onak gogoratzen hasiz. Patxiarekin ere hitz egin genuen eta bera ere lur jota zegoen; barkamena eskatu besterik ez zidan egiten eta beti berdina esaten zuen: “Barkatu Amaia, guzti hau nire errua da eta kartzelan egon beharko nintzateke”. Nik beti erantzuten nion: “Errua zurea da, bai, baina inork ez zekien ezer, zer gertatuko zen ezin genuen jakin. Inork ez du kartzelan egoterik merezi”. Hori zen esaten genuen guztia. Nik barnean, berarekiko haserre izugarria sentitzen nuen, baina banekien errua ez zela berea.

Jokinek ere oso gaizki pasatu zuen, baina berak ez zuen sentitzen zuena kanpora ateratzen eta egun berean eztanda egin zuen.

Goizean kalera irten nintzen eta Jokin etxean geratu zen. Atea ireki nuenean, munda gainera erori zitzaidan. Jokin lurrian etzanda zegoen eta bere ondoan pastila bote bat hutsik. Telefonoa hartu eta anbulantziari deitu nion. Zorionez, garaiz eraman zuten ospitalera. Berarekin hitz egin nuen eta zergatia eskatu nion. Berak azaldu egin nahi izan zidan, baina ez zekien nondik hasi. Ni, oso haserre berarekin, egun batetik bestera, niri ezer esan gabe alde egin nahi izan zuen, ni bakarrik utzita. Azkenean dena argitu genuen, gogorragoak izaten saiatuko ginen eta bata bestearen ondoan egongo ginen behar genuen guztietan.

Niri hilerokoa beti garaiz etortzen zitzaidan baina baziren jada hamar bat egun atzeratu zitzaidala. Medikuak esan zidan estresagatik... izango zela. Egun batean gaizki sentitzen hasi nintzen eta goitik bota egin nuen. Ospitalean proba bat egin zidaten eta jada ez nintzen ni bakarrik, bi pertsona ginen. Jokinek oso ongi hartu zuen berri hura.

Pena askoko garai baten ondoren, esperantza apur bat sentitu nuen nire bihotzean. Bizitzeko gogoa neukan. Ume hura aurrera ateratzeko gogoa. Julene eta Laiene ez nituen inoiz ahaztuko, maite nituen, baina umetxo hau, behar nuen. Nire esperantza bakarra zen. Nirea eta Jokinena.



Nerea Suso Uriarte - DBH 3. maila

“Oso gustokoa dut Bilbora joatea eta denbora librean irakurtzea”

ILUSIOAREN INBARRA

Goizeko zazpi eta erdiak dira, iratzargailuak jotzen du eta Aitor alferkeriaz esnatzen da. Kalean euriaren soinua entzuten duen bitartean, klasera joatea baino ohean geratzea askoz hobea dela pentsatzen du. Arrausika, komunerantza doa dutxa bat hartzera, ea honek esnatzen duen. Bitartean bere ama gosaria prestatzen ari da.

Kalera irteterakoan eta aterkia ireki ondoren, eskolara bidean, buruz birpasatzen doa klasean galdetuko dizkioten lan guztiak.

Eguna amaitzerakoan, Aitorrek nekatuta jarraitzen du eta bere ama afaria prestatzen ari da. Amak afaria prest dagoela esaten dio, baina berak hamabost minutu gehiagoz ikasi nahi duela erantzuten dio.

Gauko hamar eta erdiak dira, Aitor nekatuta dago, eta ohera joatea erabakitzen du, nahiz eta, lehenago hortzak garbitzen dituen. Logelara iristean, bere amak ohea prest dauka, Aitor bertan sartzeko eta ondoren, amak gau ona opa diezaion.

Urte batzuk beranduago, Aitorrek medikuntzako ikasketak hasten ditu. Beti amestu duena eskuragarri du.

Klaseko lehen eguna da eta dena berria da: lagunak, irakasleak, liburuak, ... Beldurra ematen dio, baina gaingidutiko duenaren esperantza du. Bere lagunak begiratzen ditu klasean eta denek bere egoera berdinean daudela konturatzen da.

Egunak pasatu ahala, Aitor konturatzen da gehiago ikasi behar duela. Eta bere saria asko ikastea datza.

Frogak gatzak eta gogorak dira, lagun batzuk bidean uzten ditu. Beharrezkoa horren beste denbora ematea non beste aktibitate batzuk sakrifikatu behar dituen: lagunekin irten, oporretan bidaiatu eta gogoko dituen jarduerak ezin praktikatuz.

Bere ikasgai gustukoena "Laboratorioko Anatomia" da, muskulu eta hezur guztiak ikastea gustuko duelako. Irakasleak bidaltzen dizkien praktikekin jostaten da. Eta ospitalera joaten da ebakuntzak dauden guztietan, gorputza nola osatuta dagoen ikusteko.

Aitorren gurasoak oso harro daude, ahal duten guztietan laguntzen diote, ikastera animatzen duten, ...

Laugarren kurtsora iristerakoan, neska bat ezagutzen du, bere gustu eta afizio berdinekin. Eta azkenean, maitemindu egiten da. Neska honek laguntzen dio bere azken txanpan, ikasketa orduak elkarbanatzen baitituzte, elkar laguntzen dute eta bata bestea animatzen dute ikasketekin jarraitzeko.

Aitorrek ere bere momentu zailak pasatzen ditu, ikasketak uzteko gogoak ditu. Baina indarra ateratzen du orain lortu duena ikusiz, eta bere guraso eta neska-lagunarengandik.

Neguko egun beltz batean, Laurak, bere neskalgunak, istripu larri bat dauka. Bihurgune batetan gertatu da: gidatzen dihoala, despistatu eta bihurgunetik irten da zuhaitz baten aurka jo duelarik. Bertan, Laura koman gelditzen da. Orduan, bere ilusio eta ametsak zapuzten dira. Gertatutakoa jakiterakoan Aitor ospitalera abiatzen da. Laura ohean geldi ikusterakoan dena bukatu dela pentsatzen du eta guztia bertan behera uztea erabakitzen du. Baina bere gurasoak jakinarazten diote gehiago ahalegintzeko momentua dela, horrela Laurari komatik irteten lagunduko diola.

Aste batzuk geroago, Laura, komatik irteten da eta Aitorrek bere ikasketekin jarraitzea erabakitzen du. Pasadizo honek, benetan nahi duena zer den jakiteko balio izan dio: medikua izatea besteei laguntzeko.

Laura ezin da klasera joan guztiz osasuntsu ez dagoen artean. Bitartean, Aitorrek eramaten dizkio lanak eta horrela elkarrekin ikasten dute. Zorionez, Laura istriputik guztiz errekuperatu da eta Aitorrekin batera medikuntzako ikasketak aurrera eramaten ditu.

Urte batzuk gehiago eta berak izan nahi duena lortuko du: medikua izatea.



Azkenean, goiz batez, Aitor galbanarik gabe esnatzen da unibertsitateko diploma jasotzera joateko. Medikua da! Urduri esnatzen da, harro, arineketan esnatzen da, ia goserik ez dauka eta bere amak lasaitu egiten du. Bera ere diploma banaketara joango da, harro sentitzen baita.

Bere ikasketa guztiak gainditzeagatik, saritzat, bere gurasoek bidai bat oparitzen diote bera eta Laura nahi duten lekura joan daitezten. Afrikara joango dira.

Beraien egonaldian konturatzen dira beharrezkoak direla medikuen zerbitzuak Afrika bezalako herrialdeetan.

Herrira bueltatzean, Afrikara bueltatzen lagundu diezaioketen giza laguntzeko organismoekin kontaktuan jartzen dira, horrela beraien mediku lana herri behartsuenetan praktikan jartzeko.

Azkenean lortzen dute eta bere bidaiaren prestaketak denbora asko eramaten die, ez baitakite zer eraman. Beraz, pentsatzen duten egin dezaketena onena, Afrikan egon den mediku batekin kontaktatu eta berari galdetzea zer egin duen, zer eraman duen,... Zaila da aukeratzea bidaia honetan eraman behar diren oinarrizko sendagaiak. Informazioa jaso eta gero, Aitor eta Laura konturatzen dira zeinen zaila den bidai hori egitea, baina oso pozik daude.

Afrikara iristean, hango jendea harritu egiten da laguntzera datozela ikustean. Eguneroko lana oso gogorra da: txerto asko prestatu behar dira, pilulak eman behar dira,...

Apurka-apurka, hango jendea konfiantza hartzen doa. Aitor eta Laura oso pozik daude bertako jendea tratatzen, beraien eskuetan dagoen guztia egiten saiatzen dira.

Herrialde horietan bizitza hain gogorak izanik ere, Aitor eta Laurak pertsona horiei laguntzen jarraituko diete, hori baita beraiei gustatzen zaiena.



Roke Ojanguren - DBH 4. maila

“Nire ipuineko protagonistak daukan indarra gura neuke neuretzako”

AITZIBER

Bakunak jasotzeak zeukan gauza on bakarra, klase ordu bat galtzea zen. Niri goizeko bederatzi t’erdietan suertatu zitzaidan, fisika-kimikako orduan.

Hamarrak hogei gutxitan, pasilloan jarraitzen nuen, liburutegian inprobisatutako kontsultako ate aurrean. Oso arraro egiten zitzaidan han bakarrik egotea, nire txandaren zain, nire gelakide guztiak klasean zeuden bitartean.

Leihotik zeru urdin zati bat ikusten nuen, inguruko bloke garaien artetik. Aspaldi ez zuela euririk egiten Bilbon, eta hiria zoragarri zegoen, zerua gure buruen gainetik zabalzen zen, are zuriko hondartzak izaten dituzten ur gardenetako itsaso horietakoak bezala.

Nire pentsamenduetatik atera ninduen sasi kontsultako atearen zaratak. Martin irten zen momentu hartan barrutik.

–Zelan?

–Putza! –erantzun zidan desilusio aurpegiarekin.

Institutuko mutilen %99ak zuen kezka nagusia txertoen aurrean, anbulatorioetik bidalitako erizaina neska gazte lirain eta xarmanta izatea zen. Denek zuten obsesio hori, bakuna jarriko zioten neskarekin.

Antza denez, Martinen adierazpenaren arabera, gaurkoan ez zen zortetik izan. Pasilloaren amaieraraino segitu nion begiradarekin, eta hau bistatik galdu orduko, Aitziber zetorren korridorearen beste aldetik. Aitziber institutuko neskarik lirainena zen. Orain arte oharkabekoa zen mutilontzat, baina pasatako ikasturtean, izugarrizko aurrealdearekin bueltatu zen Irailean, eta ordutik hona mutil guztien ahotan zebilen. Ondoan eseri zitzaidan. Ni segituan gorritu nintzen.

–Sartu al zara?

–Bai, ez, ... zera... atzerapena daukate antza.-esan nion hitz totalka, izan ere Aitziber izugarri gustatzen baizitzaidan, eta ez nuen neskekin komunikatzeko batere erraztasunik. Ez neskekin eta ez inorekin. Izan ere, oso isila nintzen, eta ez nuen inorekin hitz egiten, nire lagun bakararekin izan ezik.

–Kaka zarra! –esan zuen berak marmarka, ez baizitzaion fisikako azalpen gogaikarriak galtzearen ideia batere gustatu.

Ederki asko ezagutzen nuen Aitziber. Lehen mailatik baitzegoen nire gelan. Neska zintzoa zen, langilea, besterik gabekoa.

Hamarrak eta hogeitaziren. Martxa honetan ez nuen fisikarik izango.

Bat-batean, sorgin itsusi baten tankerako berrogeita hamar bat urteko andre bat irten zen atletik, eta nire izena oihukatu zuen.

Bata urdin luze bat zeraman, eta titiperainoko praka bakero estu batzuk. Praka horiek ez zioten batere mesederik egiten, are gehiago markatzen zizkieten bere mitxelinak. Orratzak bezain finak ziren takoiak zeramatzan, eta ibiltzean bere gorputza aurrerantz makurtzen zuen, takoi haien gainean ibil daitekeen amaren semerik ez baitago munduan.

Kamiseta kendu nuen, eta harpia honek, kotoi batekin garbitu zidan orratza sartuko zidan lekua, eta konturatu baino lehen esparatrapua jarrita neukan.

Ez zen horren gaizki joan, izan ere nahiago nituen bakunak medikuaren errebisioak baino. Anbulatorioan izan nintzen azken aldian, bigarren graduako obesitatea nuela esan zidaten. Ondo gogoratzen nuen egun hura. Galtzontziloetan nengoen, anbulatorioko lauza hotzen gainean. Tripa sartu nuen.

Askotan saiatu naiz argaltzen, baina oso zaila da, munduan gehien gustatzen zaizuna jatea denean, eta zure bizitzako helburu sukaldaria izatea denean. Bai, halaxe zen, sukaldaria izan nahi nuen, jatetxe bat zabaldu, eta errezeta berriak asmatu.

Liburutegiko sasi kontsultatik irten nintzen eta erlojuari begiratu nion: hamarrak eta bost. Ikastetxetik buelta bat ematea pentsatu nuen. Komunera sartu nintzen. Momentu hartan kokakola fresko-fresko bat hartuko nuen, baina komuneko ur epelarekin konformatu behar izan nuen. Ez zen batere atsegina komunetako hura. Zergatik ote da, leku guztietan, sukaldeko ura, komunetakoa baino atseginagoa izatea? Gainera komunetako ur horrek komunetan zegoen usain kiratsuaren zaporea zeukan.

Ispilu aurrean eman nituen gutxienez hamar minutu, eta bat-batean esnatu egin nintzen, ez baitzen batere logikoa, Aitziber ni baino lehenago heltzea klasera, berak nire ostetik hartu baitzuen txertoa. Eskailerak igo nituen, eta Aitziberrekin egin nuen topo aurrez aurre.

–Oraindik hemen? –galdetu zidan doinu zorrotzez.

–Zera,... pixka bat entretenitu naiz –esan nion nik, beste ezer ez baitezaidan oroitu.

Biok batera sartu ginen gelara. Irakaslearen begiradak zeharkatu ninduen goitik behera. Klaseko gainerako ikasleak algaraka hasi ziren, gu bion artean zerbait gertatu izan balitz bezala. Hobe hala izango balitz !

Eskola ordu guztiak pasatu zituen Aitziberrek nire oroimenean, nire burua engainatzen nuen, gu bion artean zerbait berezia gertatu zelakoan pentsatzen.

Ostirala zen, eta betiko legez, zinemara joango nintzen amarekin gauean. Astero joaten ginen zinemara elkarrekin, aita joan zenetik.

Oraindik ez dizut azaldu nire aita joan zenekoa. Badira bi urte joan zela, udan. Egun batetan, aita ez zen etxean agertu. Ama urduri zegoen. Ez genekien non egon zitekeen. Gau osoa eman genuen bere zain, eta hurrengo goizean poltsa handi batekin agertu zen.

Beste neska bat ezagutu zuela kontatu zigun, maitemindu egin zela, eta berarekin bitziten joango zela. Ama lur jota gelditu zen, eta ni, bien artean. Aitak egindakoa zerrikeria iruditzen zitzaidan, baina hala ere nire aita zen eta asko maite nuen.

Gaur egun ondo konpontzen naiz berarekin. Ilean bi asteburutan, aitarekin eta bere neskalgunarekin joaten nintzen, Pilarrekin. Ondo konpontzen nintzen Pilarrekin. Oso emakume ederra zen, aita baino askoz gazteagoa, noski, eta oso atsegina. Pilar Madrilen bizi zen, eta orain aita ere bai.

Eta zer esango dizut nire ama eta biotaz, orain ama lasaiago bizi da, ez da garbitasunaz eta ordenaz gehiegi kezkatzen eta bere lagunekin igarotzen du denbora gehiago. Barikuro zinemara joaten ginen, eta ostantzean, bideoklubeko pelikularen bat alokatzen genuen. Gaur ostirala zen, eta hortaz zinemara joango ginen.

Etxera heldu eta bazkaria mahaian neukan. Ama janda zegoen dagoeneko, eta egongelan zegoen telebista ikusten. Jaten hasi orduko etorri zitzaidan ondora. Berri txarren aurpegia zekarren, eta halaxe zen.

–Datorren asteburuan, zure aitaren neska zarpail horren urtebetetzea da –banekien nondik zebilen– jendea oso dotore joango da festara –ez jarraitu hortik mesedez!– eta praka berri batzuk erosi beharko dituzu. –Eeeeeeeeeeeeeeeeeez!!!

Gorrito nuen erosketak egiten joatea. Ez al zen nahikoa neuzkan arropekin? Ez dut inoiz ezagutu probalekuak baino leku gogaikarriagorik.

Corte Inglesera sartu ginen, eta zuzenean hirugarren solairura igo ginen. Han Betaurerekodun emakume aspergarri batek lagundu zigun prakak aukeratzeko. Zeukan jarreragatik bazirudien jubilatzeko izugarritzko gogoa zeukala, izan ere, bere lana eta saltoki hura izugarri gorrotatzen zuela ematen zuen.

Orduak eman genituen prakak begiratzan “...eta hauek...” “...ez, ez...” “...eta beste hauek...” “...kolore biziegia...” eta horrela arratsalde osoa, azkenik, nire gustukoak aurkitu nituen arte. Probalekura sartu nintzen. Txamarra esekitokian utzi nuen, zapatilak kendu, eta prakak erantzi nituen. Praka zoragarri haiek probatu nituen. Ezin izan nituen izterretik aurrera igo. Prakak kendu, neureak jarri eta irten egin nintzen.

–Txikiegiak.

Berriro sartu nintzen probalekura taila bat handiagoarekin. Hauek hobeto zihoazkidan, baina ipurditik gora ezin sartu nituen.

–Hauek ere histu.

–Hau da gero! Tailarik handiena da eta! Gizonen sailean begiratu beharko duzue.

Gizonen saileraino igo ginen. Gorputz guztia izerditan nuen. Ezin nuen gehiago. Gizonen praka guztiak zein baino zein itsusiagoak ziren. Batzuk aukeratu nituen. Gerrian ederki nituen, baina metro erdi laburtu behar izan zizkidaten.

Azkenik, irten ginen zoroetxe hartatik, eta abiatu ginen etxerantz, arratsalde beldur-garria benetan!

Abendua iritsi zen, eta beraiekin gabonak. Aspaldi utzi nuen Pilarren urtebetetzea. Nire gelako ia gehienak oporretan joan ziren, baina ni urtero legez, Bilbon gelditu nintzen, nire lagun onena eta bakarra zenarekin: Josu. Elkarrekin pasatu genuen oporraldia. Zinemetako kartelera guztia ikusi ondoren egun batez, Josuk, igerilekura joateko proposatu zidan. Zerbait bazegoen arropak probatzea baino okerragorik huraxe zen: igerilekura joatea. Hala eta guztiz ere, baiezkoa eman nion etsita.

Toailarekin tapatuta irten nintzen aldagelatik, eta igerilekura heltzean, ondoko harmailetan toaila utzi, eta korrikan sartu nintzen uretara, inork egoera hartan ikus ez nezan. Igerilekuan gustura sentitzen nintzen, arinago. Egia esan arratsaldea ez zihoan hain gaizki, igerilekuko atetik Aitziber ahizparekin sartu zen arte. Ederra zegoen oso. Bainu jantzi zuri garden batekin. Gure ondora etorri zen, agurtzera. Segituan hasi zen igerian. Itzel egiten zuen igeri, eta ez gu biok egiten genuen bezala. Mutil indartsuarena egiteko asmoz, geu ere igerian hasi ginen, baina hobe utzi bagenu, nire bizitza osoan eman dudan irrigarri handiena izan baitzen.

Ordu bete igaro ondoren, Josuk kalera joan nahi zuela esan zuen, baina ez nuen nahi Aitziberren aurrean igerilekutik irten. Pixka bat itxaron nuen, eta nire zorionerako Aitziber eta ahizpa irten ziren piszinatik. Harmailetara joan ziren toailen bila, baina joateko zirenean, bertan eseri, eta hitz egiten hasi ziren. Gehiago itxaron nuen, baina Josu irtena zen jada Igerilekutik eta nire zain zegoen harmailetan. Ez nuen beste aukerarik. Tripa sartu, eta han joan nintzen, eskaileratxoan gora. Igerilekutik harmailetarako bidea, izugarri luzea egin zitzaidan, eta toaila esku artean hartu nuen momentuan guztiz tapatu nuen nire gorputza.

Guztiz deserosoa benetan!

Zazpiak ziren, eta Mc Donald’s batera sartu ginen, nire antsia asetzeko asmoz. Hamburgesa bikoitza eskatu nuen, patata frijituekin eta kokakolarekin.

Hurrengo goizean, endokrinoarekin geneukan zita. Opor haiek zoritxarrez betetako kate luze bat ziruditen. Mediku hau ez zen betikoa. Pilarren lagun bat zen, eta aitaren us-tez gure betiko endokrinoa baino hobea zen. Urkixo Zumarkalean zeukan kontsulta. Oso modernoa, modako altzairuekin. Diseinuko baskula hartara igo nintzen. 98.700 kg. Ordu t'erdiko txarla baten ondoren, dieta gogor bat ezarri zidan, eta ondoren, ehun euroko ordainagiria pasatu zigun. Ama marmarka jaitsi zen igogailuan, ordaindu zuenaz kezuka.

Asteazkena zen, eta astelehenean hasten ginen klasera, beraz, astelehenerako utzi nuen dietaren hastapena. Lau egun horietan, zortzi egunetakoa jan nuen. Aprobetxatu egin nahi nituen nire potolo jatun bizitzako azken egun haiek. Astelehenean pisatu egin nintzen. 98.300 kg. Loditu egin nintzen, eta ez zen harritzekoa. Loditu zezakeen guztia jan nuen egun haietan.

Goiza triste hasi nuen, gosari eskasarekin. Laranja zukua, esnea eta zerealak, baina ez onenetakoak, txokolatez bustita dauden horietakoak, amak hartzen zituen zapore gabekoak baizik, “% 0 grasa” horietakoak.

Institutuan, Josuri kontatu nion dieta berriarena, eta honek, ezin izan zuen isilik eduki. Bigarren ordurako ikastetxe osoak zekien berria. Jendea barre eta algaraka hasi zen, eta harrigarria iruditzen zitzaidan lodi egoteagatik zirikatzen ninduten berberak, argaltzen saiatzeagatik burla egiten nindutela.

Etixerako bidean, kale erdian Aitziber hurbildu zitzaidan.

–Egia da dieta egingo duzula? Bai ausarta!

Hitzik gabe utzi ninduen. Bide osoan isildu gabe aritu zitzaidan, eta konturatu orduko etxean nengoen ohe gainean etzanda, Aitziberrekin gertatutakoaz pentsatzen.

Gau batez, logelan nengoela, telefonoak jo zuen. Niretzat zen antza. Amak dei egin zidan, eta segituan erantzun nuen:

–Bai?

–Kaixo! Aitziber naiz.

–Kaixo.

–Zera, gripea harrapatu dudala uste dut eta bihar ezin izango nahiz eskolara joan. Emango al zenizkioke biharko etxeko lanak Soniari, ondoko gelakoari, berak niri ekar dakizkidan?

–Bai noski, baina neuk eramango dizkizut neska!

–Eskerrik asko.

–Ez da ezergatik. Agur.

–Bihar arte.

Aitziber Gran Vian bizi zen. Marmolez betetako portal baten aurrean gelditu nintzen. 3A. Igogailuan igo nintzen. Amak eman zidan harrera, nire egongela baino handiagoa zen hall batean. Momentu hartan irten zen Aitziber bere gelatik.

–Nahi al duzu zerbait hartu mutiko, kokakola bat edo?

–Ez ama! –moztu zidan Aitziberrek –dietan dago, eta ez zaio batere komeni!

Komentario hura gorrotatu egingo nuke edozeinen ahotik irtenda ere, baina Aitziber izanda, guztiz egokia iruditu zitzaidan. Bere gelara sartu ginen. Izugarria zen. Hiru leiho, armairu izugarria, apain mahaia eta bainugela propioa zituen. Ohea nire amarena baino handiagoa zeukan, eta lan mahai ganean punta-puntako portatila. Eseri eta mahai ondoan zegoen besaulkia seinlatu zidan.

Ordu erdi beranduago nire etxerantz nindoan, Aitziber neramalarik pentsamenduan. Neska hark txoratuta ninduen.

Ordutik aurrera, eta Aste Santuko oporrak iritsi arte, dena joan zen normal, oporre-tako bigarren astean postal bat jaso nuen arte. Alpeetatik zetorren, eta honela zihoen:

Kaixo! Hemen zoragarri egoten da. Elurra itzela dago, eta eguna pistetan pasatzen dut. Baina ikusten duzunez ez naiz zutaz ahaztu. Bueno, ez dakit ondo... ¿Zer gertatzen da gure artean?

Aitziber

Postal horrek zer pentsatu eman zidan. Nitaz maitemindu ote zen? Ala gustu txarre-ko txantxa bat baino ez zen? Arratsaldean Josuri deitu nion. Hark gutuna irakurtzean nire harridura aurpegi berbera jarri zuen.

–Esku-eskura daukazu!

Ez nekien Josuri kasurik egin behar nion ala ez, baina neure barruan halaxe zela pentsatu nahi nuen. Oporrak bukatzeraino itxaron nuen, ikastetxean berarekin hitz egite-ko asmoz. Baina ez zen hala gertatu, Aitziberrek ez zidan batere kasurik egiten, eta inoiz ez zen bakarrik geratzen.

Egun batzuk igaro ondoren, ezin izan nuen gehiago, eta gutun hau idatzi nion:

Kaixo Aitziber:

Orain arte ezin izan dudanez zurekin hitz egin, espero dut gutun honek nire senti-menduak ondo adieraztea. Zure postala asko gustatu zitzaidan, eta ordutik hona zugar baino ez dut pentsatzen. Gure artean zer gertatzen den galdetzen duzu? Nik badakit, maite zaitut.

Gutuna kartazal batetan sartu, eta lore dendara joan nintzen. Dendariari arrosa go-riko erramu dotore bat enkargatu nion, eta Aitziberren helbidea eman nion.

Ez nekien ondo egin nuen. Beharbada pasatu egin nintzen, edo agian asko gustatu zitzaizkion loreak eta nirekin elkartzeko amorruan zegoen... lainoetatik jaitsi nintzen, eta hurrengo egunerako prestatu nintzen, Aitziberren erreakziorako.

Goiza azkar igaro zen, eta halako batean, disimularekin, Aitziberrek gutun bat bota zidan mahai gainera. Komunean sartu nintzen irakurtzeko. Honela zihoen:

Lehendabizi eskerrik asko loreengatik, ezin ederragoak dira. Eskerrik asko ere gutu-narengatik, jaso ditudanetatik ederrena izan da. Nik ere maite zaitut, baina ez zuk nahiko zenukeen bezala, nik lagun moduan nahi zaitut...

Lagunarteko muxu bat

Aitziber

Gutunak lur jota utzi ninduen, ez nekien zer egin, lotsagarri utzi ninduen. Ezin izan nion inori kontaktu gertatutakoa, eta ordurantzean ez nion Aitziberri aurpegira begiratu.

Maiatzeko zubi batean, aitarekin joan nintzen Pilarren gurasoen etxera. Etxe izugarria zen, jauregi ederra, lorategi eta terrazez inguratua. Aspergarri egin zitzaidan zubi hura, eta gauero, terrazara irteten nintzen, pentsatzera. Gau baten, Pilar hurbildu zitzaidan, eta zer gertatzen zaidan galdetu zidan. Beste edozein momentutan ez nion inori ezer kontaktuko, baina une hartan ezin nuen gehiago, eta dena azaldu nion.

Pilarrek Aitziberren lagun egiteko esan zidan, eta bere laguneren lagun.

Eta horrela egin nuen, handik haurrera Aitziber eta Soniaren lagun egin ginene Josu eta biok, eta nire buruarekin gustura sentitu nintzen.

Klaseko azken egunean, Soniaren lagun batek festa bat ematen zuen bere etxean. Gu lauok geunden gonbidatuta, eta Aitziber zihoalako ez balitz, ez nintzen inoiz festa horretara joango.

Izugarrizko jaia antolatu zuen neska hark bere etxean, janaria edariak, musika... denak dantzatzen zuten, Josuk eta biok izan ezik. Bat-batean, Soniak, Josu dantzatzera atera zuen, eta ni, nire bakardadean, balkoira irten nintzen. Norbait sentitu nuen nire atzean. Aitziber zen.

–Ez duzu dantzatzen?

–Ez, ...ez da nirea.

–Eta zer da zurea?

Erantzun ahal izan baino lehenago bere ezpainak nireen gainean zeuden... Ezin nuen sinetsi, Aitziber eta ni, ni eta Aitziber... zeruan nengoen...

Ordutik aurrera ia ahaztuta neukan dieta jarraitu nuen, inoiz baino gusturago, eta orduantxe konturatu nintzen medikuek ez zekiten gauza batez... argaltzeko dietarik onena maitasuna dela.



Garazi Llona Llona - DBH 3. maila

“Ama, aho beteko berba”

MALTZURRA EDO EZ, ama, BETI ama

–Peruuuu, jaiki zaitez!!!! –Amaren oihu gorrotagarria zen.

Goizeko Zazpiak. Hasi zen desgraziaz beteriko beste egun horietako bat. Aste bete garbitu gabe zeramatzaten arropak jantzi eta bera jaitsi nintzen. Amak ikusi ninduenarako ahoa zabalik zeukan, kristoren erretolika botatzeko prest:

–Gero eta beranduago jaikitzen zara ohetik, eta gaur ere zure orde z eman behar izan diet oiloei jana!

–Barkatu ama, ez da berriz gertatuko, zin egiten dizut –erantzun nion apal-apal.

Amari beldurra nion. Aita hil zenetik, ez zen nire betiko ama. Asko mindu zuen aitaren heriotzak eta nire errua balitz bezala tratatzen ninduen. Bere barneko gorroto eta min guztia nire gain botatzen zuen. Herrian ere ez zen inor amaren lagun. Jenio txarreko emakume txolintzat zuten. Eta hori, astean behin baino ez zela jaisten.

Ni ez nintzen inoiz jaisten herrira. Ez nekien zer zen herri bat, zer sentitzen zen bertan bizitzerakoan. Amak parte batetik inbidia ematen zidan, jendeak gorrotoa izan arren,

herrira jaisten zen. Ni beti bakarti nengoen. Han goian, mendi batean eginiko etxe txikitxo batean. Nire animalia maiteekin. Beraiek baino ez zidaten entzuten. Beraiei baino ez zitzaizkien axola nire pena guztiak. Animaliak ziren nire familia bakarra. Zer egingo nuen animaliarik gabe.



Hotz handia zegoen. Gabardina zahar apur-
tu bat hartu eta etxearen atzealdean zegoen txabolatxora joan nintzen. Kodaina, eskuarea eta hiruhortzekoa hartu, botinak jantzi eta basoaren ondoan zegoen belardiko belarra moztzen hasi nintzen. Oraindik eguzkia irteteko zegoen, eta belarra busti-bustia zegoen. Eskerrak botinak jantzita neramatzala. Bat-batean, eguzkia irteten ikusi nuen, han, urruneko mendien artetik irten nahian. Zoragarria zen. Eta pixka batez eguzkiari begira geratzea erabaki nuen. Zein ederra zen egunsentia.

–Peru, beti zerura begira. Has zaitez derrepente kodaina astintzen, behiak, gosez, marruka hasi dira eta!

Kodaina eskuetan hartu nuen. Batera eta bestera astintzen hasi nintzen amak agindu bezala. Eguzkiak jada izugarri berotzen zuen. Hura zen hura beroa. Gabardina erantzi eta kodaina batera eta bestera astintzen jarraitu nuen. Ebaki nuen belar mordoxka bat. Eskuarea hartu eta tontor bat egin nuen moztutako belarrarekin.

–Ene bada, karretila ahaztu ez zait ba! –esan nuen oihuka, eskuak bekokira eramanez.

Txabolatxora bueltatu nintzen, lasai asko. Ama konturatu ez zedin isil-isilik sartu nintzen. Etxetik, sukaldetik, amaren zaratak zetozen. Ni, lasaitu egin nintzen sukaldean zegoela ikusterakoan. Karretila han sakonean ikusi nuen. Hurbiltzen nindoala, amaren pausuak entzun nituen, eta nireganantz zetozen. “Ai ama, eta orain zer egingo dut!” pentsatu nuen neure baitan. Beste ezer hoberik okurritu ez eta karretila atzean ezkutatu nintzen. Oso urduri nengoen, ez nekien zer gertatuko zitzaidan. Atea zabaldu zen eta segituan ama nuen neure begien aurrean. Berak ez ninduen ikusten, ez nuen uste behintzat. Patata zakua zegoen tokirantz abiatu zen. Patata zakua nigandik metro batera baino ez zegoen. Are urduriago jarri nintzen eta nahi gabe karretila mugitu nuen. Ez nuen zarata handirik atera, baina bai amak entzuteko adinakoa. Derrepentean eman zion buruari bira, eta ni ikustean, sekulako deabru aurpegia jarri zitaion:

–Peruuuuuu!!!!!!!

Sekulako oihua bota zuen, seguru beheko herrikoek ere entzun zutela. Nik burua jeitsi eta belarriak itxi nituen atzamarrekin. Oihu ikusgarri hura bukatu zuenean korrika irten nintzen karretila aurrean arrastaka neramala. Ni zelaietan zehar korrikan nindoan bitartean amak, etxearen atzean, oihuka jarraitzen zuen:

–Oraindik belarra batu gabe!!! Bost urte baino gehiago daramatzazu belarra ia egunero batzen eta oraindik ordubete baino gehiago behar duzu belar pixka bat batzeko!!!

Sermoiak entzuten ohitua nengoen arren, ez nituen batere gogoko. Eta gutxiago amarenak. Hiruhortzekoa hartu eta arineketa jarri nuen belar tontor hura karretilaren

ganean. Sokarekin ondo lotu nuen belarra karretilara, erori ez zedin, noski. Kodaina, eskuarea eta hiruhortzekoa belar ebakiaren ganean ipini nituen. Han abiatu nintzen etxe-rantz. Beldur nintzen, amaren beldur. Poliki-poliki nindoan, etxea urruntzeko asmoz. Normalean belarditik etxerako bidea luzea egiten bazitzaidan ere, oraingoan oso laburra egin zitzaidan. Ikuilura joan nintzen. Han, behiak, marruka zebiltzan, gosez. Berriro ere hiruhortzekoa hartu eta behi bakoitzari sardakadatxo bat eman nien. Tresnak bere tokian utzi eta sukaldera joan nintzen. Begiak itxita sartu nintzen, bertan aurkituko nuenaren beldur. Sartu eta ez nuen oihurik entzun. Arraroa egin zitzaidan amaren oihurik ez entzutea, beraz, begiak ireki nituen. Sukaldean ez zen ageri inor. Berehala konturatu nintzen astelehena zela, eta ama, astelehenetan herrira jaisten zela, aste guztiko erosketak egitera. A zer nolako poztasuna hartu nuen. Ama ez zegoela aprobe txatuz, gosari ederra jan nuen: katilukada bat esne, amak eginiko ogi gozoaren pusketa bat (esan beharra zegoen, amak oso ogi gozoa egiten zuela), txorizo pusketa bi eta arrautza pare bat. Bapo-bapo eginda geratu nintzen. Oraindik, ama etorri baino lehen, gauza mordoa neuzkan egiteko, beraz, energiaz gainezka, lanean hasi nintzen.

Eguerdiko hamabiak. Ama umore txarrean zetorren, beti bezala, ohitura ez galtzarren.

–Arrain saltzaile madarikatua, arraindegia erre egingo nuke. Ez du besterik merezi, horixe baino ez!

Ni, izuturik nengoen ama horrela ikusirik.

–Arraina pixka bat merkeagotzeko eskatu eta ezetz ez dit esan ba!! Eta gero, jenio txarreko emakume txolina naizela esan dit. Zer uste du emakume horrek. Ni behintzat, bezero bezala, galdu nau betiko!!!



Eguerdiko ordubatak. Jateko ordua. Eta bazkaritarako zer, eta barazki purea. Buaagg. Botagurea ematen zidan.

–Peru, ipin ezazu mahaia, jateko ordua dugu eta.

–Banoa, ama –erantzun nik.

Lapikoa mahaiaren erdian. Jateko gogorik ez, nik ez behintzat. Amak platera hartu eta goraino bete zidan. Berarena berdin. Nire koilara geldu zegoen, berena ez ordea. Amaren koilarak platerera joan etorri asko egiten zituen.

–Amai ezazu platerekoa bost minutu baino lehen. Ez baitaukat asmorik harrikoa arratsaldeko lauretan egiteko. Koilara hartu, sudurra bi atzamarrez itxi eta pixkanaka, jaten hasi nintzen. Kostata, baina bukatu nuen.



Arratsaldeko ordu biak. Ama, harrikoa bukatu, eta ohera abiatu da, eguerdiro bezala. Ni ere neka-neka eginda nengoen, eta merezita ohera joan nintzen. Gutxienez hamabost urte zituen ohean entzun eta ordubeteko loadia egin nuen.

Arratsaldeko laurak. Animalien artera joan nintzen. Egun hartan gertatutako istilu guztiak norbaiti kontatu beharra nuen. Lehenbizi, ardiengana joan nintzen. Oso gogoko nituen ardiak.

Gero, ikuilura. Behiak are gogokoago nituen nire barnea hustutzeko. Eta azkenik, nire txakur maite Zurirengana. Nire anaiatzat nuen eta oso ondo zaintzen nuen. Horren truk, berak arrisku guztietatik babesten ninduen.

Arratsaldeko seiak. Behiei satsak ateratzeko ordua. Txabolara joan, hiruhortzekoa eta karretila hartu eta ikuilura joan nintzen. Asko kostatu zitzaidan arren, esfortzu handiarekin, lortu nuen behien logela txukun-txukun ipintzea.

Iluntzeko zazpiak. Egun guztia animalia artean ibili ostean, dutxa fresko bat hartu nuen. Kilo bat behintzat kendu nuen txukuntzerakoan, izan ere, ez da harritzekoa, neraman kakarekin...

Iluntzeko zortziak. Afaltzeko ordua. “Mesedez, barazki purea ez, barazki purea ez” errepikatzen nuen behin eta berriz neure baitan. Ez nuen berriz ere sukaldeko atea irekitzerakoan purea aurkitzerik. A ze lasaitua hartu nuen zerra patatekin ikusterakoan. Oraingoan bai, oraingoan nire sardeskak joan etorri gehiago egiten zituen platerera amarenak baino.

–Zer, hau bai eh? –maltzur itxurarekin amak– hau gozoa dago ezta?

Ni ez nintzen ausartzen aurpegira zuzenean begiratzen eta alboz begiratzen nion.

–Ba, ikasi beharra daukazu denetik jaten, bestela handitan komeria galantak edukiko dituzu.

–Bai, ama –erantzun nion nik burumakur.

Gaueko bederatziak. Azkenean ohera. Hortzak garbitu, amari gabon esan eta Zurirengana joan nintzen honi ere “gabon” esatera. Azkenik ohean sartu nintzen. Jainkoari eskerrak eman nizkion, beti bezala, beste egun batengatik.

Amaitu zen egunero errepikatzen ziren beste egun horietako bat.

Orain, hemen nago, amaren ondoan, ospitalean. Oso gaixo dago, hilzorian. Liburu hau idazten ari naiz bitartean, ama konturatu dadin zein ona izan den beti nirekin, eta beti egongo naizela berarekin. Badakit ez dela portatu oso ondo txikitan, baina horri esker ikasi dut, gaur egungo bizitza honetan bizirik irauten. Ama maltzurra izan arren, ama da, eta beti jakingo du bere hurrekin nola portatu, onik eta sano haz daitezen.



Leire Egia Albizuri - DBH 3. maila

“Inork ez du bere aberria maite handia delako, berea delako baino”

DIRENAK COZATZEN

1676.urteko egun distiratsu eta argi honetan, leihotik sartzen diren eguzki izpiek, itsutu egiten naute. Logelako pianoari begira nago, ohe zaharkituaren gainean eserita. Osasunez ondo banago ere, zaharra naiz eta heriotza edozein momentutan etor daitekeela sumatzen dut. Baina nire arimak ez du beldurrik,hainbeste urtetan lurrean bizi eta gero pozik dago heriotza noiz helduko zain. Ez naiz pianotik aldentzen, heriotza bere ondoan gertatzea nahi dudalako. Nire piano maitea, beti nirekin egon dena, ez dut nahi orain heriotzak nigandik urruntzerik.

* * *

Txiki-txikitatik ikasi nuen pianoa jotzen, beti ere aitak bultzatuta. Hasieran oso gorroto nuen gauza bat zen, baina denborarekin nire bizitzan gero eta garrantzitsuago bihurtu zen, bera gabe ezin bizitzerainokoa. Nire bizimodu pobrea ahazten laguntzen zidan eta neure konposizio txikiei esker barnea hobeto sentiarazten nuen. Aitarekin bakarrik bizi nintzen, ama epidemia baten erruz hil baitzen. Nire amaren heriotza kolpe handia

izan zen nireztat eta horren ondorioz aste oso bat jan gabe eman nuen. Aitarengatik izan ez balitz aspalditik egongo nintzatekeen hildakoen erreinuan. Hori gutxi balitz, ama hil eta hiru aste geroago aita lanetik bota zuten. Ondorioz, lapurretan hasi behar izan nuen bizitzeko behar genuena lortzeko. Esan beharra daukat oso haurtzaro eta nerabezaro gogorrek bizi izan nituela, baina ez zen dena zoritxarra izan. Egun on batean, erabaki nuen ezin nuela horrela jarraitu eta alde egin behar nuela etxetik. Erabaki horrek nire piano kuttunarengandik urruntzen ninduen, baina ez nuen beste irtenbiderik neure burua aurrera atera behar banuen.

Egun hartako iluntzean egin nuen alde aitari agur txiki bat mahai gainean utzirik. Zaparrada galanta ari zuen eta inguruan aterperik ez zegoenez mela-mela bukatu nuen gau hartan. Kale ertz baten lo egin nuen. Esnatu nintzanean, eguzkiak gogor ematen zidan aurpegi zikinean eta konturatu ahal izan nintzenez eguerdiko hamabiak inguru ziren. Kanean zegoen jende jarria ikusgarria iruditu zitzaidan. Batzuk paseatzen zeuden bitartean, beste batzuk erosketak egiten ari ziren eta gutxi batzuk nigan zeukaten arreta jarrita. Arraro aurpegiak begiratzen ninduten inoiz eskalerik ikusi ez balute bezala. Egia esan, ez nintzen eskale bat baina antz handia nuen. Nire arropak euriarengatik erdi bustita eta apurtuta zeuden. Itxura fisikoa ere oso eskasa nuen. Gutxi jaten nuen hezurretan nengoen eta arropa handien barruan ez zen nire gorputza nabaritzen. Aurpegia ere oso meharra neukan eta gaueko euriaren ondorioz zikin-zikin. Ez zen hamasei urteko mutil gazte batentzat itxura egokiegia, baina nireztat horrek ez zuen garrantzirik.

Nire txokotik jaiki eta jateko zerbait erostera joan nintzen neukan diru apurrarekin. Gosaldu nuenean, zer egin ez nekienez, eliza batera joatea bururatu zitzaidan. Ez ziren elizak nire gogoko baina ez nuen nora jo. Sartu eta atzealdeko banku batean eseri nintzen. Ingurura begiratzean, marmolez eginiko aldare izugarri bat ikusi nuen nire aurrean lorez apainduta. Aldarearen alboetan santuen irudiak agertzen ziren eta haien erdian kristo zegoen eskegita burua makur zuela. Eliza hura oso sinplea zela pentsatzen nengoela, esku bat sentitu nuen nire sorbalda gainean. Supituki burua bueltatu eta abade zahar bat ikusi nuen. Txikia zen oso, ni baino txikiagoa eta bere jantziak oraindik txikiago eginarazten zuen. Burusoila ere bazen, bizar handia zuen eta bere begi berdeen azpian ikaragarritzko sudur handi bat agertzen zitzaion. Hirurogeiren bat urte izango zituela antzeman nion begietan zituen zimurrengatik. Beso meharretatik esku zuri eta finak irteten zitzaizkion. Ez zuten, ez, esku haiek inoiz lan gogorrik egingo.

Bere begi sutsuekin begiratzen zidala konturatu nintzen bat-batean. Zer egin ez nekuela, burua makurtu eta horrela gelditu nintzen berarekin joateko eskatu zidan arte. Bere gelara eraman ninduen. Han ea zerbait behar nuen galdetu zidan eta nik nire historia kontatu nion. Orduan eliza hartan organoa jotzeko eskaintza egin zidan janari eta ohearen truke. Ez nuen birritan pentsatu behar izan. Baina arazo txiki bat zegoen. Nik ez nekien organoa jotzen. Horrengatik, hilabete oso bat behar izan nuen guztiz menperatzeko.

Azkenean bai, hasi nintzen apurka-apurka igande guztietan pieza erraz batzuk jotzen eta pixkanaka-pixkanaka, gero eta gatzagoak jotzen nituen. Bi hilabete eta gero, begiak itxita jotzeko gai nintzen jadanik. Horrekin batera nire bizitzako garairik hoberena hastera zihoan. Ametsen erreinuan murgildurik bezala, dena zen niretzako pozgarria eta hasieran barnean nuen ziurtasun apurra, gero eta handiago bihurtzen zihoala konturatu nintzen.

Maria etorri da nire gelara. Oroitzapenetatik atera nau. Bazkaria dakarkit. Gelatik irteten ez naizenetik asko arduratzen da nitaz. Lan asko ematen diot baina ezin naiz pianotik aldendu. Orain dela asko ezagutu nuen eta beti maite izan dut. Nik ez diot buruko minik sortu nahi, poza baizik. Baina nire egoera honek ez dit uzten Mariari merezi duen zoria ematen.

Janari gozoa ekarri dit. Lehenik indaba zuriak, ondoren arrautza frijitua eta azkenik txokolategin eginiko pasteltxo gozoa. Ederki asko jan dut. Bitartean hitz egiten egon gara. Mariak kanpoan gertatzen ari diren gauzak kontatzen dizkit gogo handiz. Nik ere irrikitan entzuten diot. Gogoko dut berarekin hitz egitea, bere begi alaiak nola mugitzen diren ikustea, bere irribarrearekin bat egitea... Izan ere, ez dut inoiz hain emakume polit eta jatorrik ezagutu. Ile beltz distiratsua sorbaldetan behera erortzen zaio ipurdi gaineraino. Bere begi urdin eta alaiak, handiak dira, inoiz ezin deskribatu izango dudan edertasuna dutelarik. Oso irribarre polita dauka sudur txikiaren azpian. Gorputz txikia du, baina oso ondo proportzionatua. Nire ustez jainkoaren edertasuna islatzen da Mariarengan. Bere lanak egitera joan beharra dauka. Bakarrik utzi nau nire oroitzapenetan murgildurik.

Domeka zen eta mezan jotzeko prestatzen ari nintzen. Huskeria iruditu arren, meza bakoitza niretzat oso garrantzitsua zen. Kontzertu bat bezala zen niretzat. Abadea oso gustura zegoen nirekin eta ni ere bai berarekin. Ederto konpontzen ginen. Domeka hura oso garrantzitsua izan zen. Meza amaitu zenean gizon heldu bat nigana etorri zen. Ez nekien nor zen, baina geroago jakingo nuenez antzoki baten jabea zen. Nire jotzeko modua gustatu zitzaion. Horregatik bere antzokian jotzeko prest al nengoen galdetu zidan. Segituan eman nion baietza, baina organoaren orde z pianoa joko nuen, hurrengo ostiralean.

Heldu zen ostirala. Emanaldirako minutu gutxi falta zirenean antzokia betetzen hasi zen eta konturatu nintzenerako guttiz bete zegoen. Nire urduritasuna gutxitzen joan zen jotzen nuen heinean. Ordu oso bat iraun zuen emanaldiak. Txalo artean agurtu ninduten ikasleek. Ezinezkoa da momentu hartan sentitzen nuena deskribatzea. Alde batetik, domekero organoa jotzen nuen elizan eta ostiraletan pianoa. Baina honek ez zuen asko iraun. Apurka-apurka gero eta jende gutxiago etortzen zen nire emanaldietara eta antzokiko ja-beak esan zidan ezingo nuela gehiago antzoki hartan jo. Baina ez zen izan hori gauzarik txarrena. Abadeak beste organo jole bat aurkitu zuen ni baino hobeto jotzen omen zuena eta itxura ederragoa zuena. Horren erruz kale gorrian gelditu nintzen. Egunak jan gabe pasatzen nituen kale ertz baten eserita. Une horretantxe hasi zen nire burua nahasten.

* * *

Orain hemen nago, zoroetxe honetako gela txiki batean, bertotik irten nahi ez dudala, nire ospearen ibilbide laburra behin eta berriz gogoratzen. Nire bizitza desberdina izan zitekeela bakarrik pentsatzeak amorrua ematen dit. Baina onartu beharra daukat nire egoera honetan ez naizela txarto sentitzen. Nire piano ederraren ondoan nago, azken uneak izango direnak gozatzen.





Iratxe Ortiz - DBH 4. maila

“Arraun egitea eta auto karrerak ditut gogoko”

TXUTXU-MUTXUKA HERRIKO PLAZAN

Egunero bezala, Joxepa, Petra eta Mari, plazako banku batean eserita zeuden. Eurek beti zuten banku berean esertzeko ohitura, hondartzara begira eseri ziren. Oso eguraldi ona zegoen, eguzkiak dir-dir egiten zuen eta itsasotik zetorren haize finak giroa freskotzen zuen. Egunero bezala, euren lehen hitzak egunkarian ikusitako herriko hildakoen eskelen inguruan izan ziren. Baten alaba hau dela, bestearen senarrak hori egin duela eta.... Baina artean bazegoen eskela bat ezagutzen ez zutena. Orduan, Petra altxatu eta alboko bankuan zeuden atsoei galdetu zien ea ezagutzen zuten, eta hauek argitu zieten arazo guztia, Pedro Andresen emaztea zela esatean. Petra bankuan eseri eta guztia kontatzen zegoen bitartean, motozikleta zahar baten zaratak elkarrizketa hautsi zuen. Hiru atsoen begiradak berehala motorrerantz zuzendu ziren.

Motor gorri bat zen “Vespa” markakoa, eta plaza erdian sartu zen. Motoaren gainean, gizon bat zihoan, txupa beltz luze batekin eta buruan kasko gorri bat zeramala. Motoa farola baten ondoan utzi eta gizona jaitsi egin zen, pausu batzuk eman eta atsoen aurreko aldean zegoen bankuan eseri zen.



Bat-batean, hiru atsoen buruan galderak hasi ziren:

“Nor ete da hau?” Joxeparen buruan hasi ziren ideiak biraka lehenbizi:

“Nundik agertu jaku morroi hau?”.

–“A! Holako eskaleren bat izango da, laster etorriko jaku elizara dirua eskatzen... uuuuumm eztsat itxura onik ikusten.. eztaikit ba, baiña neuk badaezpadan be, nik neuk nire etxeko atia jo ezkeru eneutsan ereiko eee!!!!”.

Baina gizonak ez zuen Joxeparengan bakarrik eragina izan, Petraren burua ere laster jarri zuen galdezka, baina honek beste ondorio batzuk atera zituen:

“Ai gizontxua, nundik urten ete dau koitxaduak? Seguru andriak etxetik bota dauala motor eta guzti ta oin, amen dabil pobre... Onena honegaz berba ein eta diru apur bat emotia izango da, bokadiloren bat edo erosteko...”.

Mariri ere bueltaka hasi zitzaion burua:

“Nundik urten ete dau ba gizon honek? Edarra piuria daukan, gabardina zahar horregaz da... Segurutik be herriko nonoren familikua izango da, gaztetan Ameriketara jun dana edo, ze bestela rarua da iñok ezagutu barik Lekitxora eltzia”.

Hainbeste pentsatu eta gero, azkenean atsoek hitz egiteari ekin zioten eta Petrak esan zuen:

–Nundik irten ete da gixon hau?

–Ba nik pentsaten dot eskalia edo izango dala –gehitu zuen Joxepak–.

–Baaa... ni seguru nao herriko familiren batekua dala –esan zuen Marik–.

–Neuk be neure dudak daukatez baiña...

–Igal Ameriketara edo egon da hainbeste urtian. –Esan zuen Petrak.

–Jakin egin beharko dogu nor dan gizon hori, lagunok? –amaitu zuen Joxepak.

Gizonak, ile kizkur luzea zeukan, baina denbora luzean garbitu gabe zeukala zirudien. Aurpegi biribila, begi beltz beldurgarriak zituela ere esan behar da. Buru handia ere nabarmentzen zen. Oinetako marroiak zeramatzen eta galtza dotore batzuk, baina hauek ere denbora luzean garbitu gabeak ziruditen. Alkandora beltz bat zeraman, eta alkan-doraren gainetik, narruzko txaleko gris bat. Guzti honen gainetik, “txupa” beltz luzea. Esku batean, kasko gorri zaharra zekarren. Libre zuen beste eskuarekin, zigarroa erretzen zegoen.

Atsoak, hau ikusirik, honako adierazpenak egiten zituzten:

–*Hori aurpegi borobil hori ez da Juan fontaneruena...*

–*Ba izan leike, harek be badauko, buru handixa eta...*

–*Bai baiña... Juan ez da izan beti seme bakarra?*

–*Ba errezoia dekozu bai...*

–*Bueno eta ezin dau Juan Marin familikua izan be? Horrek familia arrarua dauko eta.*

–*Juan Kruzen bardin bardina da ta... Mari Karmenen semian lengusua?*

–*Baaai, zelan zan bera, Jose Julian edo?*

–*Izan leike, hori gaztetan Ameriketara jun zan eta...*

–*Baña, baña! Zelan izango da Jose Julian, bi urte dala hil zan bera eta, gaixua!*

–*Ez! Hori ez da, hori mutikua bizirik dago, esango deusagu Takori bizirik badago edo?*

–*Juan Kruz Mendigureneri, bai Tako edo deitzen deusena?*

–*Bai horrek jakingo dau dana, goizan ontxe!*

–*Benga, goizan!*

Han joan ziren hiru atsoak Takoren bila. Han zegoen lanean bere karretila eta guzti. Berarekin hitz egin eta galdetzean, gizon hura aspaldi hilda zegoela esan eta atsoen aurrean negarrez hasi zen karretila gainean eserita. Gure atsoen planak apurtu egin ziren momentu horretan. Buru-makur etxerantz abiatu ziren hirurak.

Hurrengo egunean, egun guztietan bezala, leku berdinean topatu ziren hiru atsoak.

Heldu eta berehala esan zuen Petrak ezer egiteko denborarik eman gabe:

–*Bakizue nor izan zan atzo hemen egon zan gizon arrarua?*

–*Nor, nor? –erantzun zioten beste atso biak jakiteko gogoekin.*


–*Delinkuentia da hori mutila. Atzo geu etxera jun ta gero, herriko batzokixan osteban eta oin kartzelan edo sartunde egongo da. Ertzainek atrapa dabe eta. –erantzun zien Petrak arin arin.*

–*Ez da izango!! Jolin! Txo, geu hemen edozer pentsetan eta delinkuentia dala entera gara. Zelako ikaria! Ai ene, amaxu! –beldurtuta zioen Marik.*

–*Trankil egon zaitetz andria! Ia kartzelan dago ta, aldatuko dogu temia? –Joxepak.*

–*Ba, bai, arrazoia daukozu. –Erantzun zuten beste atso biak.*

Eta hiru atsoak, egunero bezala euren txutxu-mutxuekin jarraitu zuten gertatutakoa ahaztu nahian. Eguna bukatu arte egon ziren bertan, gero etxerantz abiatu ziren hotzak eta haizeak gogor jotzen zuen eta.



Gaizka Ardanza - DBH 4. maila

“Nire kirolik gogokenak saskibaloia eta neskatan ibiltzea dira”

BI BIZI AL DITUCU?

Zer da sentsazio hau? Non nago? Zergatik iluntasun ikaragarri hau? Zergatik ezin ditut begiak zabaldu? Zergatik ez ditut hankak eta besoak sentitzen? Zer gertatzen da! galdera guzti hauek ditut buruan buelta eta buelta eta oraindik ez dut hauentzat erantzunik lortu. Ea, zer egin nuen azkenekoz? oroitu beharra daukat! Zer egin nuen azkenekoz... ea gogoratzen naizen... zerbait bai! Zerbait badabil argitzen nire buru honetan. Zer da? Zaila zait argi ikustea baina futbol partidu bat dirudi. Ni bertan al nago? Bai! eta bi horiek... noski! Gorka eta Iker dira! Hauekin nengoen Gernikako frontoian futboleant jolasten. Bertan jarraituko al dut? ez ezinezkoa da. Bertan jarraituko banu frontoiaren bazter batean zegoen fokoaren argia ikusiko nuke nahiz eta begiak itxita eduki, foko hori oso potentea baita. Baina ez da horrela, hau guztia oso ilun dago.

Jadanik hasi naiz pixka bat beldurtzen... Zer egin nuen gero? Ea, ea... a bai! Partidua bukatu eta gero bertatik hurbil zegoen taberna batera joan ginen, bertan egongo al naiz? Bai agian bai! Egia esan taberna hura ere iluna zen oso. Ez, baina ezin naiteke bertan egon! Beno, agian bai, agian bertan egongo naiz, baina nik ez dut ezer ikusten, ezin naiz

mugitu eta min ikaragarri bat sentitzen dut tripa aldean. Zer gertatzen zait? Ez dut ulerzen! Azkeneko oihu honekin batera begiak zabaldu zaizkit pixkanaka-pixkanaka.

Nire amaren aurpegia ikusi dut orduan, nire ondoan dago negar eta negar. Eskutik helduta nauka eta alboetan mediku batzuk ikusten ditut, mediku handi eta bizardun baten atzean nire aita ikusten dut, oso kezkatuta dirudi. Burua mugitzea lortu dut, baina ezin izan dut askorik mugitu. Tripa aldera begiratzen saiatu naiz eta azkenean lortu dut. Orduantxe konturatu naiz zergatik dagoen nire ama negarrez, tripan ikaragarritzko zuloa antzeman dut eta bertatik odola etengabe irteten zait, medikuek hau gelditzeko hainbat ahalegin egiten duten arren. Berriz ere burua lehengo tokian jarri dut. Gutxika-gutxika berriz ere begiak ixten hasi zaizkit. Ez berriro ez! Oihukatzen dut nire kolkorako, baina nire oihuak alferrikakoak dira.

Berriz ere lehengora itzuli naiz, hasierako egoera berdinerara, eta oraindik galderak nire buruan dihardute behin eta berriz norbaitek atea irekitzeko eskatzen egongo balitz bezala, atea zeharkatuta hauen erantzun bat erraz aurkituko dutelakoan. Baina inork ere ez die entzuten antza eta berdinetan jarraitzen dute. Ni ere, haien berdin nago, ez erantzunik, ez zergatirik, ezta nola eta non nagoen argituko didan pista edo ahotsik ere ez. Baina zorionez lasaitu egin naiz. Badakit nagoen lekuan nagoela ama ondoan daukadala, begiak ireki ditudanean bezala eskutik goxo-goxo helduta.

Oraingo honetan mugimendua nabaritzen dut nire inguruan eta gorputza behin eta berriz alde batera eta bestera mugituko balitzait bezala. Baina lehengoan nago, iluntasuna leku guztietan eta nire begiak itxita, inoiz irekitzeko asmorik ez balute bezala. Gelditu da azkenean nabaritzen nuen mugimendu guztia, baina beldur naiz, mugimendurik ez nabaritzea seinale txarra delakoan nago, behin betiko loak hartu eta berriro ez naizen itzartuko susmoa daukat buruan bueltaka. Baina, hala ere, ez dut esperantza galduko eta oraindik ez dut esango bizia betirako galdu dudanak. Berriz ere mugimendua, oraingoan goraka joango banintz bezala, eta orain aurrerantz ziztu bizian.

Bi minutu inguru pasatu dira mugimendua berriz ere gelditu den arte. Oraingoan ez da berriro hasi, baina bularrean zerbait nabaritzen hasi naiz, elektrokutatua izango banintz bezala, behin eta berriz bularrean, bat eta bi eta hiru eta berriz sastada. Azkenean gelditu da eta zaila bazait esatea ere, begiak berriz ere, irekitzen hasi zaizkit apurka-apurka, nahiz eta guztiz ezin izan ditudan ireki. Mediki mordoia ikusi dut nire alboetan eta makina ugari. Orduan mediku bati begiratzen geratu natzaio adi-adi. Bera ezpainak irakurritz lortu dut bere alboan dagoen beste mediku altuari zer esaten dion deszifratzea. Beste medikuaren albo-alboan jarri eta hauxe esan dio kezka aurpegia jarriz:

Ez dut uste asko iraungo duenik, tripa aldean duen zuloa handiegia da eta odol larregi botatzen ari da. Ez dut uste gazte honek asko iraungo duenik.

Hori entzutean bihotza gero eta azkarrago sentitzen hasi naiz nire bularrean eta azkenean gelditu egin den seinalea. Akabo. Bihotza gelditu bazait nire bukaera izan behar du. Begiak itxi zaizkit. Oraingo honetan besteetan baino azkarrago eta iluntasuna desagertu egin da. Iluntasuna gaintuz urdina den argi distiratsu bat dabil niregana hurbiltzen. Nik ez dut hil nahi! Oihukatzen dut behin eta berriz, baina inork ez dit jaramonik egiten. Argia gero eta hurbilago. Korrika bizian hasi nahiz argiak harrapatu ez nazan, baina nire indar guztiekin korrika egin arren harrapatu egin nau.



Mundu ezezagun batean murgiltzera nindoan, argi urdin hori jarraituz. Mundu hori ikaragarri handia da! Landareak alde guztietatik, etxe polit ugari, ez dago ez autorik, ezta autobusik, ezta honelako ezertxo ere inguruetan, dena garbi dago, ez dago kutsadurarik... A zer nolako mundua! Baina bertara iritsi aurretik, ate ikaragarri handi bat dago, urre kolorekoa. Hori zeharkatu behar al dut? Bertarai-

no urreratu naiz eta sartzeko asmoarekin ateari tira egin diot, baina alferrik izan da, ez da ezer gertatu. Orduantxe konturatu naiz alboan beste ate bat zegoela, hura urre kolorekoa baino txikiagoa eta beltz-beltza. Bertara ere gerturatu naiz eta atea zabaltzera nindoala oihu bat entzun dut, atzera begiratu eta gizon potolo bizardun bat ikusi dut atzamarrarekin ezezko keinua egiten. Beregana urreratzeko esan dit eta kasu egin diot. Bertara hurbildu eta berehala hasi zait hau hitz egiten:

–Nor zara zu? Ez zaitut inoiz inguruotan ikusi. –Orduan nik erantzun diot:

–Ni Xabier naiz, ez dakit nola iritsi naizen hona, baina uste dut hil egin naizela.

Itzartu nintzenean lurrean nengoen eta tripa aldean ikaragarritzko zuloa neukan, odola borborka botatzen.

–A bai! –erantzun dit. Zu berria izango zara orduan. Mutiko, esango al didazu nola eta noiz hil zinen?

–Ez dakit jauna, ez dakit nola hil naizen, ezta norekin nengoen, ezta zein ordutan, ezta noiz ere. –Aurpegi arraroarekin begiratzen zidan honek.

–Nola ez dakizula? Ea, ea nik hemen dauzkat barruan dauden pertsona guztien datuak. –Ikaragarritzko liburu bat ateratzen zuen bitartean. Nola esan duzu deitzen zarela?

–Xabier –erantzun diot.

–Xabier Etxegarai?

–Bai. –Erantzun bizkorra eman dut.

–2007-ko Urriaren 4ean hil zinela dio hemen. Gurutzetako ospitalean. Taberna batean beste mutiko batek labain batekin, hiru aldiz labankadaz sastakatua. Zu ez al zara ezertaz oroitzen?

–Ez, taberna hartan sartu ginela gogoratzen dut, baina hortik aurrera ezertxo ere ez.

–Zerbait edan edo drogaren bat hartu al zenuen?

–Bai jauna. Pare bat pilula eta pare bat trago edan nituen.

Ez dakit zergatik baina ezertaz ezagutzen ez dudan gizon honi egia guztia kontatzea erabaki dut. Zergatia azaldutakoan gizon bizar zuriak hauxe erantzun dit:

–Gazteok ez daukazue beste gauzarik buruan, drogak edaria, neskak... ai, ai, ai... baina beno. Oraingo honetan barkatuko dizut gazte. Hurrengoan argiago ibili, eta aurretantzean hobeto portatu hona bueltatzean ate beltz horretatik sartzerik nahi ez baduzu. Infernuko atetik alegia.

Hau esanda, gizon bizar zuria desagertu egin da eta ni berriz ere argi urdin horretan zehar noa. Baina ez aurreraka, atzeraka baizik. Berriz ere iluntasunera iritzi naiz eta aurpegian nire poza sentitu baino lehen begiak ireki zaizkit eta mediku guztiak harriturik zer egin ez dakitela niri begira gelditu dira, laster batean ahoan arnasa hobeto hartzeko aparatu bat jarri didan arte.

Jadanik bost aste igaro dira eta etxean nago, oraindik ondo mugitu ezin naizen arren. Noiz edo noiz lagunak etortzen zaizkit bisitan eta dena kontatzen diet. Hauetako askok historia sinistu ez arren, nik pozik kontatzen diet behin eta berriz ahoa listu gabe gelditzen zaidan arte. Medikuek hiru edo lau aste barru ederto egongo naizela esan didate eta hemen nago egun hori noiz helduko zain. Baina gauza bat argi daukat, inoiz ez dudala pilularik hartuko. Alkohola berriz..., kontrolatzen saiatuko naiz. Gaztea naiz txo, parrandarako adin hau ezin dut alferrik galdu, zer nahi duzu nik egitea?



Jaione Onaindia Rodríguez - DBH 3. maila

“Ez al du pertsonak eskubidea, bizitza nahi duen moduan bizitzeko eta nork bere akatsei aurre egiteko?”

maite zaitudalako

Kitto! Aski da! Honaino iritsi naiz. Hau da nire bizitzaren bukaera. Zergatik egin duzun ulertu gabe. Nire bizitzarekin zergatik akabo egin duzun ulertu gabe. Hain izan ginen zoriontsu... Nola iritsi ahal izan gara puntu honetaraino? Jakin nahiko nuke, baina ez dut inoiz jakingo, ez didazu esango. Ez dut denborarik izango entzuteko, nire bizitza bukatzeaz dago-ta, ez bada jada bukatu.

Ezin dut ulertu. Ezin dut onartu. Ez dut nahi onartu. Nola eman ahal izan didazu halako mina, hainbeste maitatu eta gero?

* * *

Iritsi da eguna! Gaur maite dudala esango diot. Berdin zait besteek pentsatzen dutena edo esango dutena. Maite dudala jakin behar du, eta besteen zain banago ez dut ezer lortuko inoiz. Ez dut sekula jakingo maite nauen ala ez. Iritsi da nire ordua, gure ordua. Badoa. Gelatik irteten ari da. Nola egingo dudana? Ez dakit. Lortuko dudana? Ezta ere. Baina egin beharra daukat.

–Markel! Gauza bat ... –zer esango diot? Zer egitera noa?– joan den egunean utzi nizun liburua... irakurri al duzu? –baina zer ari zait pasatzen? Zergatik ezin diot ezer esan?

–Barkatu. Oraindik ez dut bukatu baina behar baduzu itzuliko dizut.

–Ez dio axola. Jakitearren zen –jendea joan da! Ongi! Oraingoan bai. Bakarrik gaude– Em... zera... gauza bat...

–Bai?

–Inoiz ez didazu zurerik ezer kontatzen eta txikitatik ezagutzen dugu elkar. Egunero ikusten dugu elkar! Beraz... esango didazu nor den zure ametsetako neska?

Gorritu egin da. Ez dakit zergatik, baina horrek esperantza bizten dit eta oraindik arrazoi gehiago ematen dizkit sentitzen dudana jakinarazteko.

–Ba... Nola esango nizuke...

Gehiago gorritu da!

–Esan gizona! Ez da horrenbesteko izango! Behintzat esan nolakoa den! Faborez... lagunak gara!

–Beno, ba... oso atsegina iruditzen zait, ederra da eta... –begiak biztu egin zaizkio, berari begira nagoanean bezala– momentu honetan, nire aurrean dago, bere edertasun eta distiraz, dena argitzen.

Txantxa al da? Ezin liteke egia izan! Bakarrik gaude, eta bere aurrean dagoela dioenez... maite al nau? Nolatan ez gara lehenago ohartu? Ez dakit, baina nire aurpegia berea bezala, gero eta gorriago sumatzen dut. Hala ere, neskaren izena esatea nahi dut.

–Nor da ba? Korridoreetan al dago? Hementxe gu bakarrik gaudenez...

–Ez al zara ohartzen? Beti nago zuri begira, zure begiradaren zain, zure irriaren zain... –etenaldi luze bat egin du, zerbait garrantzitsua esan nahi balu bezala– June, maite zaitut. Zaila egiten zitzaidan esatea, baina gure unea zela pentsatu dut. Ezin dizut esan ezagutzen garetik maite zaitudala baina bai, bihotzaren sentimenduak ezagutzen ditudanetik. Baina hala ere, ulertzen dut zer den orain zauden tokian egotea... beraz, aio!

* * *

Horrenbeste maite zaitut, horrenbeste maite izan nauzula uste nuen... baina gauza guztiak bukatu behar dira eta ez da negarrik egin behar horregatik, baizik eta irribarre eta aurrera segi, zerbait bukatzean ez baita dena bukatzen. Baina oraingoan, ez dut adorerik aurrera jarraitzeko. Zu nire bizitza izanik... Beste neska batekin zaudenez –hala esan didate– joan egingo naiz nire bidearen argirantz, bizitzak traizioa egin didalako. Zure sukaldeko mahaian utzitako gutuna irakurtzean, zure barnean, maite nauzula sentituko duzulakoan, infernu honetatik irteten lagunduko didazolakoan, itxaropen horrekin... Baina ametsak ez dira nahiko. Amestutakoa egia bihurtu behar da. Bestela... akabo! Nirekin eramango ditut zurekin bizitako oroitzapen goxoak.

Hondartzan egon ginenean bezala, gaez, izarrei begira gu biok bakarrik eta behin eta berriz maite ninduzula esan zenidanean, ni gabe bizitzak ez zuela zentzurik izango zu-

retzat nintzela errepikatuz, goxotasunez musukatzen. Hori bai izan dela oroitzapen ona; ez dut inoiz ahaztuko. Gau horretan printzesa bat bezala sentiarazi ninduzun.

* * *

–Egon! Ez joan. Utzidazu hitz egiten. Nik ere zerbait esan nahi dizut. Zertarako uste duzu liburuagatik galdetu dizudala? Zurekin bakarrik geratzeko. Maite zaitudala esateko. –Hurbiltzen ari da eta ni, gero eta arinago hitz egiten. Bere hatz erakuslea ezpainetan jarri didan unera arte.

–Ez esan ezer gehiago. Momentu honen zain egon naiz betidanik –eta orain bere ezpainek nireekin bat egin dute, goxoki musukatuz, denboraren nahiak egia bihurtuz, maitasuna laztanduz.

* * *

Iritsi naiz jada. Zubia ikusten dut,baita beheko harriak ere. Baina ez dit axola. Ez du zentzurik orain bizi naizen bezala bizitzeak. Ez du zentzurik zu gabe bizitzeak, traizio egin didazula jakinik. Jendeari jaramonik ez egitearren lortu nuen maite ninduzula jakitea baina, oraingoan kasu egin diet eta damu naiz. Hain zen sinesgarria esaten zidatena... Hain zen sinesgarria ni baino neska hobeago bat aurkitu zenuela... Nola sinets nezakeen? Ez dakit. Baina azkenean txoriburu batek bezala, sinetsi egin nuen. Eta oraindik txoriburuago egiten nauena beldurragatik zurekin eztabaidatu beharrean, segituan egitera noana egitea da. Oraindik ere ez dut ulertzen baina nire baitan,zerbaitek, egitera noana egitera bultzatzen nau. Egiten badut, jendeak esan didana benetan gertatu den jakin gabe iritsiko naiz argira, lasaitasunaren argira. Baina argi hori, benetan ez bada lasaitasunaren argia, ez dakit zer gertatuko zaidan. Ez dakit zer dudan zain bertan, ezta zerbaitek itxaroten nauen ere. Baina, maite banauzu ez dut zertan joan behar, ez dut zertan esperientzia latz hori bizi behar. Nahiko latzak egin zaizkit azken egunok eta ez zen bidezkoa izango, argira iristeko ere beste esperientzia latz bat pasatu beharra. Espero dut garaiz irakur dezazun nire gutuna, espero dut nire bila etor zaitezen eta berriz ere lehen bezala izatea dena. Baina ez da hain erraza.

* * *

Hau ezinegon! Gustatuko zaio nire oparia? Urte bat daramagu irteten eta ez dakit zer eros diezaiokean urteurrenagatik. Niretzako nahiko opari da nire ondoan edukitzea eta egunez egun maite nauela entzutea bere ahotik. Bideari ekin diot,opariak eskuan ditudala, Mariarekin topatu naiz eta hark albiste txar bat kontatu behar didala esan dit.

Ni, gero eta estuago. Hizketan geratu eta larritu egin naiz kontatu beharrak entzutean. Orain, etxean nago, negar batean, zer egin ez dakidala eta zer sinistu ez dakidala. Nola izan daiteke zuk beste neska bat maitatzea? Eta ni ez ohartzea? Niri ezer ez esatea? Gezurretan bizitzea? Ez dakit. Baina honela pasatu ditut egunak eta egunak, ezer egin gabe, zertan pentsatu jakin gabe. Hainbat aldiz deitu didazu, eta ez dizut erantzun; hainbat aldiz mezuak utzi eta ez dizkizut erantzun ere egin; etxera etorri eta ez dizut jaramonik egin, musika altuago jarri eta atea jotzen daudela ohartzen ez naizenarena egin dut. Zergatik? Ez dakit. Ez dakit nola sinets niezaiokeen Mariari zurekin hitz egin gabe. Baina argi

dago sinetsi dudala. Traizioaren berri dudala esan behar dut. Nire bizitzarekin akabo egin behar dut, ala hobe da, tuntunarena egitea eta pozik bizitzea?

* * *

Hanka bat, orain bestea... banago jada salto egiteko prest, egia zein izango denaren irrikaz. Baina ez dut jakingo koldar hutsa naizelako.1,2,...

EEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEZZZZZZZZZZZZZZZZZZ!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

–Ez egin salto!!!!!!

Ahots hori? Bera al da zubiaren beste muturrean negarrez ikus dezakedana? Bai! Beraz, gutuna irakurri du! Jakin du non nagoen, esan ez diodan arren... ezagutzen naualako!

–June! Ez egin salto! Salto egiten baduzu... nik ere egin beharko dut. Ezin naiz zu gabe bizi. Zu zara nire bizitzaren indarra. Ez dakit zer esan dizuten ezta zergatik esan dizuten ere. Baina badakit maite zaitudala eta bizitza zu gabe ez dela bizitza, bizirik irautea soilik baino. June... MESEDEZ! Ez egin salto –eta hor dago bere eskua, nigana zuzenduta. Birritan pentsatu gabe, eskua eman eta zubiaren beste aldera pasatu naiz berriz ere eta nire malloak lehortzen ari da bere laztan goxoz.

Hemen nago orain, bere eskuekin nire eskuekin bat eginez eta bere ezpaineekin nire ezpainenetan, momentu hau inoiz bukatu ez dadin erregutuz, betirako maitatzea erregutuz.

MAITE ZAITUDALAKO!!!!

Orain badakit zer den maitasuna eta zer traizioa. Maitasuna, gure arteko sentimendu gozoa da eta traizioa, herrikoek egin zigutena ia-ia bizitza hondatu zidana. Orain, badakit noizbait hemengoa bukatzen bada ere, gure baitan beti maitatuko dugula elkar, une txar eta on gehiegi pasatu baititugu elkarrekin, gure maitasuna partekatzen edo gure nahiak egia bihurtzen. Dena dela, gure bizitzen aldi garrantzitsu bat izango zen, inoiz ahazten ez diren aldi horietako bat. Maitasun aldi bat.





Legendika Zuazua Romero - DBH 4. maila

“Ametsa bera baino garrantzitsuagoa da hau lortzeko bidea”

azken acurraren zain

Annek esandako bi hitz haiek harridura sorrarazi zuten Nestor agurearengan. Zergatik birikietako minbizia? Zergatik egun pare batzuk soilik? Zergatik? Nestor bere buruari galdezka zegoen, bera errugabe bihurtzen zuten erantzunen bila, bere kontzientzia lasai uzten zuten erantzunen bila, erantzun iruzurtien bila, baina bazekinen bera zela bi hitz haien errudun eta jabea, bi hitz haiek beste nonbaitera eramango zuten gorputza zen berea. Ez zegoen misteriorik galdera haien erantzunetan, denek baitzuten erantzun bakarra; erantzun hori tabakoa zen. “Tabakoa droga bat da, bai, eta hauts bihurtzen du bere lagun mina egiten den pertsona oro, orduan, zergatik dago salgai? Harrigarria da benetan. Droga indartsu honek edonor akaba dezake. Zergatik ez du inork tabakoaren aurkako lehen urratsa ematen? –esaten zion agureak bere buruari. Tabako madarikatua! Anne ohera hurbildu zitzaion eta bere alboan eseri zen eskua laztantzen zion bitartean. Neskak hitz leun batzuk esan zizkion, baina hitz haiek airean zehar sakabanatu ziren Nestorren oroimenaren putzuetan itoz. Anneren aurpegiari tristezia antzematen zen; asko maite zuen aguretxoa eta laster, betiko nabarituko zuen bere hutsunea. Emakumea sendagilea izateaz damutu

zen; zergatik esan behar zizkion hain hitz gogorak pertsona bati? Nestor gixajoa gau-mahaiaren gainean zeukan argazki bati begira zegoen, negar malko desiraezinek denboraren adierazgarri ziren bere aurpegiko tximurrak zeharkatzen zituzten bitartean. Begiak guztiz irekita zituen, okulistaren urteroko berrikusketan egongo balitz bezala eta orduan Annek, jakinmin handiz, argazkiari erreparatu zion; bertan, hamabost urte inguruko bi nerabe zeuden belardi batean eserita. Neska oso polita zen; ile beltz-beltza zuen, ikatza bezain beltza eta bere begiak ere beltz kolorekoak ziren, ilunak eta adierazkorrak. Gona urdin, koadro zuri eta urdindun alkondara eta bere hanka luze eta lirainak atontzen zituzten larruzko abarka batzuk zeramatzan soinean. Bere aurpegi ederrean ume bihurriek jartzen duten irribarre tranpati bat ageri zen. Neskaren ondoan, Anneri ezaguna egiten zitzaion mutiko bat zegoen. Sendagilea laster ohartu zen gazte hura Nestor zela, orain nostalgiaren sareetan gatibu zegoen Nestor agurea. Emakumeak argazkiari buruz galdetu zion eta honek ondorengoa kontatu zion negar tantak eskuarekin lehortzen zituen bitartean:

Argazki honek nire iragana ekartzen dit gogora, gertakari anker baten ondorioz pikutara joan zen iragana. Ni euskalduna naiz, nire hizkuntza euskara da. Gaztea nintzenean beste bizimodu bat eduki nuen Bruselatik oso urrun, hain zuzen ere Argigoiz deituriko Gipuzkoako herri txiki batean. Gerrek ez dakarte ezer onik eta 1936ko gerra hura hasi zenean horretaz jabetu nintzen. Gerrak ez dira urrutian gertatzen diren gatazkak, gerrak ez dira patuak, gure gaitasunak martxan jartzeko, bidaltzen dizkigun probak; gerrak borroka bortitz eta odoltsuak dira, eta zoritxarrez, ekintza horietan kaltetua errugabea izaten da. Ez zaitetz harritu, gaur egun ere herri txarrez gainezka daude albistegiak. Gatazka hura hasi bezain laster, nire gurasoek erbestera bidali ninduten nire anaia nagusi Perurekin batera. Hiru eguneko bidaia luze baten ostean, Belgikara iritsi ginen eta hemen gure bizimodua nola edo hala antolatu behar izan genuen. Erbesteratutako umeak ginen, gure herrietatik gerraren ondorioz alde eginak, gure familia, gizarte eta kulturatik alden-duak; zer egin genezakeen guk hemen? Niri hiriburura ekarri ninduten eta hemen, gizon atsegin batek lanpostu bat eskaini zidan bere oihal lantegian. Peru, ordea, Bruselatik zenbait kilometrotara zegoen herrixka batera bidali zuten nekazari moduan lan egitera. Helduagoa egin nintzen heinean, gero eta gehiago kezkatzen ninduten munduan gertatutako ezbeharrek, eta orduan hasi nintzen, apaiz batzuekin batera, hiringuruetako komentu batean bizi ziren haur behartu batzuei klaseak ematen. Oso jatorrak ziren haur guztiak eta bihotzez eskertzen ziguten beraiengandik egiten genuen guztia. Ez zeukaten ezer, baina hala ere baikortasun handiz aurrera egiten zekiten; beraiak bai zirela mirezgarriak! Peru bizi zen herriko jaietako egun batean, Karmen, beranduago nire emaztea eta nire bi seme-alaben ama izango zena, ezagutu nuen; Karmen bilbotarra zen eta gure moduan gerraren erruz zegoen Belgikan. Ondoren gertatu zena imajinatuko duzula uste dut.

Annek ez zuen ezertxo ere esan. Agurea bere bizitzako pasarte gogor batetaz ari zen eta emakumeak ez zuen gizonaren kontakizuna oztopatu nahi. Nestorrek hitz egiten jarraitu zuen, hainbeste denboran bere barnean gordeta edukitako egia behin betiko askatu nahian.

Argazki honek urte asko ditu, gerra hasi baino egun batzuk lehenagokoa da. Belardian eserita dagoen neskato hori Silbia da, gehien maitatu dudana pertsona eta oraindik

ere, zahartzaroan barrena, gehien maitatzen dudana pertsona. Denbora asko igaro da egun hartatik hona eta era berean, munduan aldaketa garrantzitsuak jazo dira. Gauza batzuk ahaztu egin zaizkit, seguraski nire adinagatik, baina hala ere argazkiko egun hura ezin izango dut inoiz ahaztu. Egun hartan nire lagun eta aurkari nagusiarekin egin nuen topo, maitasunarekin hain zuzen ere, maitasun maitagarriarekin, baina baita ere maitasun gorrotogarriarekin. Uda hasi berria zegoen eta eguerdiko belardi hartan elkartzen ginen hitz egin eta pilota, soka, uztai edota kartekin jolasteko. Askotan nion esanda Peruri noizbait argazki bat atera behar zigula eta egun hartan, nik eskatutakoa burutu zedin elkartu ginen hirurak herriko plazan. Belardira heldu bezain laster, Silbiak oihal zahar bat atera zuen poltsatik eta bertan eseri ginen Peruren argazki makinaren “klik”-aren zain, urteak igaro ostean niretzat hain garrantzitsua izango zen oroigarri haren zain. Argazkia atera bezain laster, nire anaia arrapaladan zuzendu zen lanera, Silbia eta ni paisai eder hartan bakarrik utziz. Belardiaren aurrean trenbidea zegoen eta egunean lau aldiz gure herrira iristen zen trenaren zain jarri ginen betiko moduan. Guretzat hain harrigarria zen burdinezko tramankulu hari itxaroten genbiltzala, Silbia nigana hurbildu zen; nik hotza izango zuela pentsatu eta besarkatu egin nuen, nire besoak neskatoa arrisku guztietatik babesten zuten harrizko harresiak izango balira bezala. Baina, nola edukiko zuen hotza udako egun eguzkitsua eta epel hartan? Txikitatik ezagutzen ginen, baina nahiz eta oso lagun onak izan, gure artean adiskidetasuna baino zerbait gehiago zegoen, guk ezagutzen ez genuen zerbait, hari magiko eta ikustezen batek mugitzen zuen zerbait. Silbiak begietara begiratu zidan; neskaren begirada hark ez zeukan zerikusirik bere betiko begiradarekin; begirada ezezagun hark Hollywood-eko izarrek maitasun filmeetan jartzen zuten begirada ekarri zidan gogora. Laster konturatu nintzen neskak nahi zuenaz eta kasualitatea bazen ere, nik ere gauza bera neukan buruan. Eguzkiak bere argi izpiak gugana zuzentzen zituen bitartean trena igaro zen herrirantz, baina guk ez genuen ikusi, entzun egin genuen soilik, momentu hartan gure ezpainen bat egin zutelako gure bizitzako lehen eta azken musu hartan. Ezagutu berriko pasioak irteerarik gabeko labirinto batean harrapatu gintuen; lehen musua ematerakoan sentitu genuen sentsazio berri hura gustuko izan genuen, baina zoritxarrez, patuak ez zigun gehiago horrelako momenturik eman. Hamabost urte besterik ez genituen arren, heldu bihurtzeko lehen urratsa eman berria geneukan, baina orduan dena zapuztu zen eta nire gurasoek Silbiarengandik urrundu ninduten, azken agurra esateko denborarik izan gabe. Ez dut inoiz galdu itxaropena eta horregatik orain, nire bizitzako azken egun hauetan, beti egin nahi izan dudana egingo dut; inor ez da gai izango ni oztopatzeke, ezta nire ekintzei muga batzuk inposatzeko, ni izango naiz ekintza, ni izango naiz legea.

Nestorrek hitz egiteari utzi zion. Negarra dariola zeuden biak; beraien negar tantek Amazonas ibaiaren arroan elkartzen ziren bi errekatxo ziruditen. Emakumeak agurearen begirada bilatu zuen eta bata besteari begira geratu ziren; begi ninien mugimenduekin komunikatzen ari zirela ematen zuen, beraien arteko Morse kodigo bat asmatu balute bezala.

Nestorrek Euskal Herrira itzuli nahi zuela aitortu zion Anneri. Agureak bertako mendi eta baso bakartietan galdu nahi zuen, harriak jaurti nahi zituen erreketara ondoren hondoratzen ikusteko, zirimiriak bere gorputz zaharkitua goitik behera bustitzea nahi

zuen katarro bat harrapatzeko beldurrik izan gabe, baina batez ere Argigoizera itzuli nahi zuen bere azken egunak Silbiarekin igarotzeko eta orain bai, azken agurra esan eta azken musua eman ahal izateko. Annek bere osasun egoerarengatik bidaia hura oso arriskutsua izango zela esan zion, baina agureari ez zitzaion axola, azken finean, Belgikan edo Euskal Herrian, heriotzak bere arima hildakoen mundu ezezagunera eramango zuelako. Emakumeak bere familiarekin hitz egingo zuela esan zion, baina gizonak beraiengana joan ez zedila eskatu zion; agureak ez zuen bere familia ikusi nahi eta are gutxiago, bere azken egunak beraiekin igaro, bakarrik ekonomia arazoak zituztenean hurbiltzen baitziren berarengana, beraientzat hain preziatua zen albokoaren dirua errazaren bila; maltzur hutsak ziren. Karmen, bere emaztea, eta Lidia, honen ahizpa, ordea, oso pertsona onak izan ziren, baina zoritxarrez gaixotasunak Nestorregandik urrundu zituen, agurea galdutako txakur baten moduan bakarrik utziz. Askotan gogoratzen zen Nestor bietaz, batez ere bere emazteaz, baina Karmen oso pertsona atsegina bazen ere, agureak izen bakar bat zeukan buruan; Silbia Aurrekoetxea zen izen hori, gizonaren bihotzean tinta ezabaezinaz idatzita zegoena. Orain Nestor hiltzear zegoen, beraz, egun batzuk barru biekin elkartuko zen zeruan, eta laino baten gainean aldentuta egon ziren denboran gertatutakoak kontatuko zituzten. Annek bakarrik joaten utziko ez ziola esan zion eta agureak azken bidaia hartan lagun ziezaion eskatu zion. Nestorrek Anne begiratu zuen eta gizonaren begirada bihozbera sendagilearen begi urdinetan islatu zen, “ez” hitza emakumearen lexikotik ezabatuz. Anne sendagilea zen, beraz, bera zen pertsonarik egokiena Nestorrek bidaiatzeko. Gainera, emakumea ez zen agurea bakarrik uzteko gai; honi bidaia hartan zerbaite txarra gertatu ezkerro errudun sentituko zen. Annek, buruhauste handirik gabe, baietza eman zion gizonaren proposamenari. Nestorrek eskerrak eman zizkion eta ondoren, egoera guztiei aurre egiteko erabiltzen zuen umore xeblebreaz baliatuz, lore batzuk bota zizkion, emakumearen aurpegia Nestorrek hainbeste maite zuen ikurriñaren kolore gorri biziaren moduan jarri zen arte. Sendagileak Bruselako ospital nagusira deitu zuen egun batzuetako baimen bat eskatzeko asmotan eta lan ordu extrak zituen lez, bere eskaera onartu egin zuten. Oztopo hori gainditu ondoren bidaiaren gorabeherak aztertu eta erabaki zituzten; biak zeuden ados bidaia lehenbailehen eta hegazkinez egitearen ideian, ez baitzegoen denbora asko galtzerik. Nestorren logelako erlojuak bederlatziak eman zituenean, Annek agurea agurtu zuen eta etxerantza zuzendu zen Bruselako kale ilun eta hotzetan barrena, neguko freskurak, aterpe bero bat aurkitzeko asmotan, bere artilezko berokiaren aurka borrokatzen zuen bitartean. Annek bakarrik egin beharko zuen lo gau hartan, Nestor agureak bezala.

Hurrengo egunean, arratsalde hartarako hegazkin txartelak erosi zituen sendagileak eta ondoren, Nestorren etxera zuzendu zen. Emakumeak txirrina jo zuen eta oraindik erdi lo zegoen agureak atea ireki zion, aharrasi egiteko beste eskua ahora eramaten zuen bitartean. Annek txartelak erakutsi zizkion; Loiuko aireportuan lurreratu beharko zuten (gainerakoetan agortuta zeuden egun hartarako txartelak) eta ondoren, Argigoizera iristeko tren bat hartuko zuten. Nestorren herrian eraiki berria zen ostatu batean egingo zuten lo eta gero, oraindik agurea ondo egongo balitz, Bruselara bueltatuko ziren hileta prestatzeko. Nestorrek maleta egiteri ekin zion sendagilearen laguntzaz eta ezinbestekoak ziren arropa eta norberaren higienarako gauza batzuez gain, gau-mahaiaren gainean zeukan

gaztetako argazkia sartu zuen. Egin beharrekoak bukatu ostean, Anne etxera joan zen; maleta egiteko denbora nahikoa behar zuen eta gainera, arratsaldeko lau t'erdietan prest egon behar zuen agurearen bila garaiz iritsi beharra zeukan. Sendagilea joan ostean, zertxobait jan zuen Nestorrek eta ondoren ohean etzan zen; Argigoizera bueltatzeko irrikitan zegoen. Zergatik ez zitzaion bururatu gerra bukatu bezain laster Euskal Herrira itzultzea? Zergatik geratu zen Bruselan? Belgika oso lurralde polita eta modernoa zen eta bertako bizimodura ohituta bazegoen ere, Nestorrentzat ez zegoen mundu osoan Euskal Herria bezain leku ederrik. Agureak gaztetako argazkia atera zuen maletatik; berak bazekien Silbia bizirik zegoela, hala esaten baitzion barnetik zetorkion ahots esperantzarri batek. Hainbeste urte igaro ostean berriro elkartuko ziren, abestiak dioenez “izar alaiago batean”. Pozik zegoen, bai, baina milaka galderek izugarritzko nahasmendua sortzen zuten bere buruan; non aurkituko zuen Silbia? Ezkonduta egongo al zen? Eta hala bazen, zer egingo zuen berak? Zer esango zion? Ezagutuko ote zuen? Bere pentsamenduetan murgildurik zebilela erlojura zuzendu zuen begirada eta arineketan jaiki zen bidaiarako arropa erosoak janzteko. Ondoren, etxe hartaz agurtu zen; pena ematen zion bere etxea bertan behera uzteak, baina hala ere ez zegoen batere kezkatuta, bazekien etxea esku honetan uzten zuela, laurogei urte bete zituenean testamentua egin baitzuen eta bere ondasun guztiak gaztetan lagundutako haur haiei utzi baitzizkien. Erabakitako orduan aurkitu zen Anne-rekin atari aurrean. Taxi bat zeukaten itxaroten zenbait metrotara eta honek aireportura eramán zituen. Bertara heldu zirenean hegazkina hartu zuten eta hiru ordu igaro ostean Loiura ailegatu ziren. Berandu zebiltzan hegazkinean jazotako ezbehar batzuen ondorioz, baina hala ere trena hartzeko denbora nahikoa izan zuten. Sei bagoidun tren hartako bigarren bagoian zihoazen biak. Agurea oso pozik zegoen eta Anne ere bai, gizonaren irribarrean poza antzematen zuelako. Argigoiztik oso hurbil zeuden eta laster Nestorren azken desioa egi bihurtuko zen. Herrira iritsi bezain laster, ur trago bat edango zuen udal-letxe aurrean zegoen iturrian eta gero, arrapaladan zuzenduko zen “Mendigane” auzora. Lorez beteriko lorategi txiki bat zuen etxe baten aurrean jarriko zen bere maitearen izena lau haizeetara oihukatzeke, eta orduan, neskato eder bat azalduko zen eraikinaren balkoi nagusitik. Bitartean, treneko leihotik begira zegoen; paisaian ez zen aldaketa nabarmenik nabaritzen, hori bai, trenbidea berria zen eta honen inguruetan txalet ugari zeuden eraikitak. Bat batean oso ezaguna egiten zitzaion belardi baten aurretik igaro ziren; bertan, oihal zahar baten gainean eserita, neskato beltzaran bat zegoen adi-adi trenari begira. Gona urdin, koadro zuri eta urdindun alkondara eta larruzko abarka batzuk zeramatzan soinean eta irribarre tranpati batek atontzen zuen bere aurpegia. Momentu hartan hotzikara luze batek zeharkatu zuen Nestorren gorputza eta indar bat sentitu zuen bere zainetan barrena; indar hori kemena zen. Gorputzeko atal guztiek egiten zioten dardar, baina berak ez zeukan hotzik. Zer gertatzen zitzaion? Anneri begiratu zion; emakumea ez zen gertatzen ari zenaz jabetzen. Nestorrek ez zion ezer esan; sentsazio hura gustuko zuen, 1936ko ekaineko arratsalde hartan, lehen musua ematerakoan, sentitu zuen bera zen. Bat batean, hotzikara gogorrago bat nabaritu zuen eta makiltxo miragarri batek ikutu izan balio bezala, bere gorputz zaharkitua goitik behera gaztetu egin zen; aurpegiko tximurak desagertu egin zitzaizkion bere kutisa melokotoi baten azalaren moduan leun eta gozo utziz, bere gorputza bizkor eta lirainagoa bihurtu zen eta Bruselako etxean jantzitako arropa haiek gaztea zenean Euskal Herrian janzten zituen arropa herrikoien parekoak bihurtu ziren.

Nestor ez zen agure zahar bat, ez, orain argazkiko nerabe kementsu eta gartsua zen, Kupidok bere gezia jaurti zionetik maitasunaz gozatu nahi zuena. Askea zen, nahi zuena egin zezakeen eta noizbait erratzen bazen, inork ez zion erriatarik egingo, oraindik gaztetxo bat besterik ez zelako. Eguzki dizdiratsu batek bere argi izpiak zuzendu zituen trenera eta orduan, lehen belardian eserita egondako neskaitila hark hegan egin zuen bagoiaren parean jarri arte. Gazteak berehala ezagutu zituen neska haren ile eta begi beltzak, neska haren irribarre bihurria, neska haren gorputz liraina. Honek, Nestor berarekin joatera gonbidatu nahian, bere esku fina sartu zuen leihotik eta gazteari heldu zion; Nestorrek ez zion ezer eragotzi. Mutikoa konturatu zenerako, hegan egiten zegoen neska haren eskuari lotuta, hegan itsasotik zetozen txoritxoekin batera. Orduan, ezagunak egiten zitzaizkion ahots batzuk aditu zituen bere gainean eta gora begiratu zuen; hodei batean eserita bere guraso eta anaia Peru zeuden eta urrutiago zegoen beste hodei batean, ordea, Karmen eta Lidia. Denek begiratzen zioten, denek deitzen zioten, denek luzatzen zituzten beraien eskuak Nestor berriz ukitzeko, baina ez ziren mutikoarenganaino ailegatzen. Nestor ere beraien ukitzera zihoan, baina orduan neskak tira egin zion, tirakada hura ezezko erantzun mutu bat izango balitz bezala. Nora eramaten zuen emakume hark? Ez zuen lurrera erortzen utziko, ezta? Mutikoa ez zen galdera haien erantzunez arduratu pozik zegoelako; azken finean gaztea zen eta Argigoizen zegoen berak hainbeste maite zuen neskarekin. Zer gehiago eska zezakeen? Neskatoak Peruk ateratako argazkian agertzen zen belardi hartaraino eraman zuen Nestor eta biak eseri ziren bertan zegoen oihalaren gainean. Dena aurretiz prestatuta eduki izan balu bezala, mutikoarengana hurbildu zen. Nestorrek neska besarkatu zuen, bien artean zegoen lokarri ikustezin batek loratzen zihoazen bien gorputzak elkarrekin lotu izan balitu bezala. Baina gozamen hura segundu batzuetaz eten behar izan zen, indar zakar batek Nestor trenbidera begiratzera bultzatu zuelako; Argigoizera zihoan trenaren bigarren bagoian, oraindik bero zegoen gorputz baten aurrean, emakume bat zegoen negarrez. Herria babesten zuten mendiek trenaren ibilbidea ezkutatu zuten, baina bi gazteak ez ziren konturatu ere egin, ordurako beraien ezpainek bat egin zutelako musu gozo eta epel batean.



Unai Arriola - DBH 4. maila

*“Inoiz ez dut izan idazteko zaletasunik,
baina pozik idatzi dut ipuin hau”*

TELEBISTA

Goizeko hirurak dira; larunbat goizeko hirurak; dena isil isilik dago; badirudi lo dau-dela denak. Bat batean zarata txiki bat entzun da, eta gelako atetik, Pello ateratzen da. Oker nengoen ez zeuden denak lo, Pello ez. Ahalik eta iskanbila gutxien sortuz eta ilunetan, argiarekin inor ez esnatzeko, egongelara ino etorri da eta nire aurrean eseri da, sofa berde handian. Antza denez ez du logurarik edo ezin du lorik egin; mahai gainean dagoen mandoa hartu eta botoia sakatu du.

Badira bi ordu hori egin duenetik, eta oraindik ez da mugitu, geldi geldi dago, niri begira, lelotuta dagoela ematen du, tontotua. Pentsatzen jarri naiz, eta Pelloren aurpegiari berriz begiratu ostean, argi eta garbi geratu zait nondik datorkidan “la caja tonta” ezizena. Niri begira daudenak tontotua uzten dituzte, edo eurek tontotzen direlako. Gainera tontakeri asko ere ikusten dituzte ni bezalakoak edo nire antzekoak diren guztietan, adibidez orain hainbeste ematen dituzten kulebroiak eta telenobelak. Nik uste dut telebistok munduan oso garrantzitsuak garela, guri esker edozein albiste, gertaera edo dena delakoa mundu osora zabaltzen baita denbora gutxian. Informatzeko oso baliagarriak garela uste

dut, eta informazioaren parte horretatik begiratuta, ia ezinbestekoa da gutxienez telebista bat egotea etxe guztietan. Badaude albistegiaz gain ondo dauden beste programa batzuk eta interesgarriak izan daitezkeenak, baina telebista kateek duten programazioa gehiegikeria iruditzen zait. Alfer- alferrikako mila gauza daude, eta zuok, gizakiok, ez zaretela konturatzen ematen dit. Inongo arazorik gabe gelditzen zarete Pello bezala niri begira, orduak eta orduak.

Bueno, harira itzuliz, Goizeko sei eta erdietan, Pello lo seko geratu da, eta ulertzekoa da; Indiako herrixka bateko erreportaia bat ikusi du bertako ohiturei buruzkoa, eta gero ez dakit nongo musika klasikoko kontzertu bat ikusi du. Lo gelditu da, bai; baina ez bere ohean, nire aurreko sofa berde handian dago lo, eta ni martxan utzi nau; berak uste ez badu ere, neuk ere deskantsatzeko gogoia izaten dut gauez, baina oraingotan martxan geratu behar izan naiz goizeko zortziak eta laudenera arte. Orduantxe esnatu da Pelloren ama, eta harrিতuta geratu da gu biok ikustean. Pello eskolara joateko iratzarri du, eta ni itzali egin nau. Segituan aprobetxatu dut lo kuluxkatxo bat egiteko.

Lotalditxo polita egin dut, eguerdiko hiru eta erdiak pasatxo aitak iratzarri nau; albistegiko kirolen tartea ikusi nahi izan du. Aita ere Pello eseri den sofa berde handian egoten da telebista ikusten. Egia esan, nahiko potolo dago, eta sofaren ondoko besaulkia horrexegatik ez du erabiltzen, ez da behar bezain ondo sartzen eta ez da eroso sentitzen, beraz sofa berdean egoten da beti. Pello ez da arrazoi berdinagatik egoten leku horretan; berak dioenez gehiago gustatzen zaio sofa berde handia, etzanda begira nazakeelako. Amak eta Pelloren arrebak bakarrik erabiltzen dituzte besaulki biak.

Esan bezala, hiru eta erdiak pasatxo dira, eta aita bakarrik dago etxean. Amak lan egin behar du etxetik kilometro batzuetara, beraz ez da pasatzen etxetik bazkaltzera, eta seme-alabek eskolan bazkaltzen dute. Bazkalostean, aita umeen bila atera da eskolara, eta bakarrik geratu naiz. Gabonetako arbolari begira jarri naiz, bolaz eta apaingarriz beteta dago, gero bere inguruari begira egon naiz, eta gogora etorri zait herenegun etxeko lauak ni begiratzen zeudela aitak esandakoa. –Telebista hau zaharkiturik dago, ez litzateke gaitziki etorriko beste telebista berri bat; handiagoa, modernoagoa, hobea eta “pantaila plasma” horietako bat–. Esaldi horixe da nire amets gaizto guztien errudun eta sortzaile. Telebista berri bat. Nire azkena zen. Gaur egun modan dauden telebista horietako bat etxera ekarri ezker, zer gertatuko litzateke nirekin? Nora eramango ninduten? Nork piztuko ninduen? Nork begiratuko ninduen? Nork garbituko ninduen? Egun madarikatu hartatik aurrera galdera horiek eta askoz gehiago zebiltzan bueltaka nire kabletan.

Sarrerako ateko zarrailan zaratatxo bat entzun da, atea ireki da eta etxean sartu dira Pello, aita eta arreba. Aitak bere seme-alabak lanak egiten jarri ditu, eta bitartean, bera, berriz dago nire aurrean, baina oraingotan ez dago niri begira, egunkaria irakurtzen dago. Ez du denbora askorik behar izan egunkaria itxi eta ni berriz martxan jartzeko. –Ez dago ezer esan du, baina ez nau itzali; eta ez hori bakarrik; gehien gorroto dudana egiten jarri nau: “Zapping” delakoa. Bai, horixe, segunduko hiru kate ikusiz. Kate guztiak ehun aldiz ikusi ditu gutxi gorabehera, eta niri horrelako abiaduran lan egitea oso nekagarria egiten zait.

Denboratxo bat pasa eta gero, Pello eta bere arreba egongelara etorri dira, lanak bukatu dituztela esanez. Ni pizteko baimena eskatu diote aitari, baina honek ez die lez

utzi, berriz beraien gelara bueltatu dira. Iaz Olentzerok ekarri zien Scalextric dotorea muntatu dute, eta jolasten hasi dira. Honek gogora ekarri die laster Olentzero etorriko dela berriz, eta aitarengana joan dira, aukeratuta dituzten jostailuen zerrenda erakustera.

Bitartean ama etxera iritsi da; eta berarekin dakartza hainbat eta hainbat gabonetako aldizkari. Batzuk jostailuenak dira, egia esan gehienak; baina telebistak eta horrelakoak iragartzen dituen hiruzpalau aldizkari ikusi ditut. Berez albiste txarra izan da niretzat, eta are txarragoa izan da afalostean hauei begira hasi direnean. Gehien gustatzen zaizkienak nirekin alderatzen dituzte. Eta gustatu zaizkien guztiak dira “pantaila plasma” eta gris kolorekoak edo plateatuak. Ni ez naiz ez “pantaila plasma” horietakoa ez grisa. Orain arte ez dut pentsatzen izan nire itxuran; baina orain potolo sentitzen naiz. Etxekoez ere irudi ona izan dut beti, baina orain arrazistak direla uste dut. Ni beltza naiz eta telebista gris bat nahiago dute.

Denbora luzez ibili dira katalogoei begira; telebistei begira, hobeto esanda; baina ez dute ezer erabakita utzi.

Egunak joan, egunak etorri; gabon gaua iritsi da, eta ez du ematen telebista berria erosteko asmo hori oso serioa denik. Eguna urteroko normaltasunarekin igarotzen da. Nire aurrez daude afaltzen; sofa berde handiaren atzen jarrita duten mahaiak; gaurko egunez eta urte zahar egunez, ez dute sukaldean afaltzen, egun berezitat jotzen dituztelako bi egun hauek, beraz afaltzeko tokia eta afaria ere “bereziak” jartzen dituzte. Bereziak esatean desberdina edo ez ohikoa esan nahi dut. Gainera aitona amonak, izeba, osaba lehen-gusu etab. etortzen dira etxera, familian bazkaltzera.

Afaldu eta gero neba-arrebak, ohera joan dira, nik uste gaua igarotzeko irrikitan daudela, eta zertxobait urduri ere bai. Gainontzekoak beste apur baten geratu dira hizketan ohera joan aurretik.

–*Aita, ama, Olentzero etorri da!!*– Horixe da Pellok esan duen lehen esaldia esnatu eta arrapaladan egongelara iritsi denean. Jarraian gelara itzuli da bere arreba esnatzera eta biak hasi dira opariak irekitzen.

Entzun dudanez, etxeko guztientzako opari bat ere ekarri du Olentzerok. Telebista berria izango dela konbentziturik egon naiz, baina ezusteko eta poz galanta hartu dut Pellorekin hitzekin. DVD bat omen da. Badut entzutea aparatu horietaz; baina ez nuen inondik ere espero DVD hori izango zenik nire amets gaiztoen salbatzaile. Nire ondoan ari dira oparia jartzen, eta kable baten bidez nirekin lotu dute.

DVD hau niretzako oparia ez den arren, egon ahal izan didaten gauzarik ederrena da. Nire amets gaiztoak akabatu ditu, eta hori nahiko ez, eta gainera, aurrerantzean beti nire ondoan egongo da; denak kalera doazenean ez naiz hain bakarrik egongo, eta gutxiagorik ere ez; ez-ez; adiskide bat izango dut aurrerantzean niri loturik.



Alazne Billalabeitia Alvarez - DBH 4. maila

*“Edozer desiratzea nahiko da uka diezaguten,
ikasiasa dugu hori ere ederki, egia gezurraren bestaldea dela”*

BENETAKO MINA

Leihotik begiratzeak min ematen dit begietan, atea zabaltzeak min ematen dit eskuetan, loreak batzeak min ematen dit lepoan, sukaldera sartzeak min ematen dit oinetan, gauzak ukitzeak min ematen dit atzamarretan, kolonia usaintzeak min ematen dit sudurrean, txokolate tartak min ematen dit ahoan, baina bere izena entzuteak eta beretaz gogoratzeak, horrek ematen dit guztietatik min handiena barruan, bihotzean. Nirekin egon litekeela pentsatzeak, nire alboan, ikastolako egun bat kontatzen diodalarik, zizko eginda uzten nau, ustelduta egongo banintz bezala, bakarrik nagoela sentiarazten nau, udaberria iristen denean, bufandekin egiten den bezalaxe, albo batean, abandonatu, bakarrik utzi. Ikastolako egun arrunt bat, besteetatik desberdina ez den egun bat, tipikoa, baina nahiz eta desberdina ez izan, edozer emango nukeena berriz berari kontatzearren.

Gaur ikastolan matematikako emaitzak eman dizkigute ama. 3 bat atera dut, baina horrek ez du esan nahi ez dakidanik, eh ama? Horrek esan nahi du, ez dugula denbora nahikoa izan bukatzeko eta orduan hiru ariketa, beno lau egin barik utzi behar izan ditut

ama. Baina esan dizut eh ama? Ez da nire errua izan, gainera ez naiz bakarra izan, beste mordo batek ere suspenditu du ama, beraz ez naiz bakarra izan, eh ama?

Gero izugarrizko liskarra entzun behar izaten nuen. Asteburua etxean pasatzen nuen, zigortuta nire logelan, telebista eta ordenagailua deskonektatzen zizkidalarik. Gero, aste bete pasatzen nuen muturtuta, bekoki ilun, eta azkenean, ostegun edo ostiralean, hitz egiten hasten nintzen. Hasiera batean ondo, biok jokatzeko genuen orduantxe ezagutu bagina bezala, elkar ikusten genuen lehen eguna balitz bezala, baina gero, emaitzak iristen zirenean, etsai bihurtzen ginen, otso transformatzen ginen, eta sagua eta katua bezala portatzen ginen, baina azkenean, beti bezala, sagua irteten zen galtzaile, eta beti horrela. Noizbehinka, izaten genituen gure momentu onak ere. Nahiko bat edo ateratzen nuenean adibidez. Orduantxe lainoetaraino igotzen ginen hegaz, ni asteburuan irtengo nintzelako (aspaldiko partez) eta bera nitaz harro sentitzen hasten zelako. Baina gero, lainoak desegin egiten ziren eta biok erortzen ginen, kristoren ipurdikoa hartuz, 1.000 metroko altueradun dorre batetatik eroriko bagina hartuko genuenaren antzekoa.

Horrela igarotzen ziren egunak, orduan garrantzi gabeko egunak, baina orain... ai orain! Orain kosta egiten zait ulertzea, zergatik montatzen genituen horrelakoak, orain ez dauka zentzurik, orain txorakeriez aritzen ginela jabetzen hasten naiz, orain... baina orain ere egoera hartara itzuli nahiko nuke, arazo txikiak ere ez luke ni iritiz aldatzea lortuko. 1.000.000 bat euro emango nizkioke denboran atzera bidaliko ninduenari, gau eta egun pasatuko nuke lanean, jo eta ke, lekuri gorrotagarrienetan ere derrigorrezkoa balitz, baina itzuli nahiko nuke, hola edo hala.

Ikastolatik bueltatzen nintzenean, normalean ostegunetan (biok umore onez geundenean) txokolatzeko tarta egiten zidan, borobila, hiru txokolate klaserekin. Erditik txokolate funditua sartzen zion eta gainetik txokolate zati ñimiñoak botatzen zizkion dekoratu gisa. Oso ona zen sukaldaritzan, batez ere txokolate tartak egiten, baina natilak eta arroz-esneak ere txit ondo egiten zituen. Nire puntu ahulena txokolate tarta zen, baina ez inorena, berea baizik. Portaleko atea giltzaz ireki eta eskaileretatik usaintzen nuen tarta, hori zen hori erotzeko usaina, usaimenarekin dastatzen nuen usaina. Motxila gelan usten nuen eta korrika joaten nintzen sukaldara, eta bertan, mahaiaren erdi-erdian, unibertsoko erdigunea balitz bezala, txokolatzeko tarta zegoen. Mahaiaren albo batean zegoen eserita, egunkariko denborapasak egiten eta aldi berean leihotik begiratzen, eta sartu orduko, sudur-puntatik betaurrekoak kentzen zituen. Kontinente batetik beste baterainoko irrifarrea marrazten zuen ezpaineekin, eta gero, amantala astindu ondoren tarta ebakitzen zuen eta ni, bi urteko ume batek marrazki bizidunak begiratzen dituen bezalaxe gelditzen nintzen, lerdea zeridala. Ondoren, txokolate tarta handi bat jartzen zuen nire aurpegiarekiko perpendikularri, eta antsietatea banu bezala jaten nuen tarta hura, txokolatzekoa, eta amak buelta eman orduko beste zati bat hartzen nuen. Gero, nire bizar eta bigotea kentzen nuen, “*la cuisine*” jartzen zuen trapu batekin. Trapu hori amak erosi zuen supermekatuan, ez zen oso merkea, baina oso kapritxosa zen ama. Trapu hori begiratzen dudana bakoitzean tarta erre zitzaion eguna gogoratzen dut. Orain guztiz beltz dago, baina letrak ikus daitezke oraindik gorri kolorez.

Gogoratzen dut egun bat, ez dakit zergatik baina beti gogoratu izan dudana, oraindik bizirik zegoenean ere gogoratzen nuena. Udaberria zen, larunbata, bost urte eskas izango

nituen nik, eta amari hainbeste gustatzen zitzaizkion bi trentza neramatzan ilean. Biok joan ginen lore bila, ez oso urruti, hemendik hurbil, baina niretzat eternitate bat izan zela gogoratzen dut. Txibiritak batzen nituen nik, eta ilean jartzen nizkion, eta berak esaten zidan printzesa bat emango zuela kaletik ibiltzerakoan, eta ni emozionatu eta gehiago jartzen nizkion. Gero zutitzen zenean denak erortzen zitzaizkion, eta ni dezepzionatu egiten nintzen, baina ez nuen etsitzen, denak batu eta berriz jartzen nizkion.

Berak beti gogorarazten zidan hori, edozein egoeraren aurrean egonda ere, aurrera egin behar zela, eta inoiz ez zela etsi behar. Hau da bere heriotzaren aurrean etsi ez izanaren arrazoia. Beragatik izango ez balitz, etsi egingo nuke, ez nioke egoera latz honi aurre egingo, ezingo nuke, baina beretzat gogoratzeak ematen dit aurrera jarraitzeko indar hau, nahiz eta oso zaila izan. Gutxienez, konturatu dadila etxe nagusitik, paradisutik, txarrik ez dagoen mundutik, bere ekinak zerbaitetarako balio izan didala. Inoiz ez nion entzun nitaz harro zegoela esaten, agian ez niolako aukerarik eman, edo ez nioke nitaz harro sentitzeko arrazoirik emango. Agian ez naiz berak espero izan duen bezalakoa, agian nahiago luke bera bezain ona izango banintz, baina batek daki, orain zerbaitetarako balio al dit horrek? Gauzak bizirik gaudenean egin behar dira, eta ez bat joan denean. Hori ere ikasi dut. Bere azkeneko eguna ere, gaur izango balitz bezala gogoratzen dut.

Goizean, goizetik esnatu nintzen, ondoko logelako zalapartak zirela medio. Ohetik jaiki nintzen eta alboko gelara joan nintzen. Ama maleta bat egiten zebilen eta aita ohea. Zer gertatzen zen galdetu nuen, baina ohera bueltatzeko erantzun zidanen biek. Bueltatu nintzen, baina ez ninduen loak hartu. Esna egon nintzen beraien elkarrizketa entzuten. Aita urduri zegoela zirudien, ahotsean nabarmendu nion. Ama ordea, inoiz baino lasaiago zegoen. Froga bat besterik ez zela zioen amak, baina aitak urduri jarraitzen zuen. Pausoak entzun nituen. Ama logelara sartu zen eta nik lo-planta egin nuen. Nire izenaz deitu zidan, baina ez nionez jaramonik egin, atea itxi zuen eta bere arrosen kolonia usaina paseatu zen une batez nire sudurretik.

Egunak beti bezala jardun zuen, hainbestean. Azkeneko klasea bukatu zenean guztiz anormala zen gauza bat gertatu zen. Aita neukan kanpoan zain, kotxe barruan. Eskuarekin sartzeko keinua egin zidan eta ni sartu egin nintzen. Egun hartan ez zuen bizarra ebaki, eta aurreko eguneko arropak zeramatzan soinean, guztiz arraroa bere aldetik, maniatiko hutsa baita. Ospitalean geratu ginen. Igogailuan emakume adindunak zebiltzan beraien hankei, lepoei, hezurrei...buruz hizketan. Etsipena izan zen. Laugarren solairuan jaitsi ginen, eta 457. logelara sartu zen aita. Kanpoan itxaroteko esan zidan. Irten zenean, negar malkoak erortzen zitzaizkion begietatik eta ebaki gabeko bizarraren artean galtzen ziren. Gero ni sartu nintzen, aluzinatuta, zer pentsa ez nekiela. Atea dardara batean zabaldu nuen, eta hortxe zegoen nire ama, leihotik begira, begiak basamortuan galdurik balitu bezala. Une batez logelaz erratu nintzela uste izan nuen, hura ez zen nire ama alai, ipurtarina, lori-toa. Nire ama ez zen emakume triste, mantso eta isil bat besterik. Bere ingurura begiratu nuen. Orratz bat zeukan besotik sartuta, zenbait gauza arraro zituen bueltan. Hurbiltzeko keinua egin zidan, baina nire erreakzioa ez zen bat-batekoa izan, bi aldiz pentsatu behar izan nuen.

Azkenean joan nintzen. *“zatoz nire albora laztana”* esan zidan. *“Amatxo naiz. Ez zaitetz beldurtu”*. Ez nuen denbora askorik behar izan egoeraz jabetzeko. Ospitalea, ama,

ez nintzen ona ikasketetan, baina tuntuna ere ez nintzen. *“Gaixorik nago Maider, oso gaixorik”* eta nik bat-bateko erantzuna eman nion, berak ezer gehiago esan gabe. *“Ez nazazu utzi ama, behar zaitut, nire alboan behar zaitut ama”* negarrez nengoen, urduri, mundua gelditu izan balitz bezala sentitzen nintzen, eta gaitz guztiak nire gainera zetoze-la sentitzen nuen. *“Gogoratu, inoiz ez etsi, eta egoera edozein delarik ere, beti aurrera Maider, aurrera”*. Pipipipi ozen bat hasi zen gela osoan, *“banoa Maider, banoa urrutira, nire garaia iritsi da. Maite zaitut, zaindu zaituz”* esan zidan eta mediku tropel bat sartu zen gelan arrapalada bizian. Atera egin ninduten logelatik *“maite zaitut, ama”* esaten nuelarik. Eta hor bukatu zen dena, ez arinago ez beranduago, hor.

Ordutik aurrera leihotik begiratzeak min ematen dit begietan, atea zabaltzeak min ematen dit eskuetan, loreak batzeak min ematen dit lepoan, sukaldera sartzeak min ematen dit oinetan, gauzak ukitzeak min ematen dit atzamarretan, kolonia usaintzeak min ematen dit sudurrean, txokolate tartak min ematen dit ahoan, baina bere izena entzuteak eta beretaz gogoratzeak, horrek ematen dit guztietatik min handiena barruan, bihotzean.



Irati Martínez Aguirrezabala - DBH 4. maila

“Kultura desberdinak ezagutzeko, bidaiatzea gustuko”

EZ ZAITUT AHAZTUKO

Leihotik eguraldi tristea dagoela ikus dezaket. Manta lodia nire gainera bota dut, hotzetik babestu nadin. Euriaren soinua entzuten ari naizen bitartean, iratzargailuak jo du. Jantzi, gosaldu, hortzak garbitu eta banoa institutura.

Bertan, hainbat lagun ditut, baina, bereziana, Ane da. Betidanik ezagutzen dudana neska liluragarri bat, oso zintzoa denekin. Txikitatik beti ibili izan gara alde batetik bestera korrika, abentura bat bestearen ostea... Oso neska berezia zen orduan; aurpegitik bere irribarrea inork kentzen ez zion neska. Jada ohituta gaude institutuko jende guztiak bikotetzat hartzea. Egia esan, jendeak txantxa asko egiten du gure kontura.

Beno, hau kontatu dizuet, baina uste dut ez naizela behar bezala aurkeztu: nire izena Danel da, Danel Olea. Gasteizen bizi naiz, etxe txiki batean. 17 urteko mutil alai bat naiz, begi urdin eta ile marroi nahiko luzea duena. Luzeraren ondorioz, irain bat baino gehiago jaso dut: neskato, homosexual eta antzeko tontakeriak, denak nire ikaskide “maiteenak” asmatutakoak; beti gertatu izan den bezala, edozein tokitako eta edozeinen esperientzia tipikoa bezala.

Goiz hartan, institutua isilegi zegoen, gehien bat Aneren jarrerak harritu ninduen. Begimakur eta inori kasurik egin gabe ibili zen goiz guztian zehar. Hau ikusterakoan, berarengana hurbiltzea eta zer gertatzen zitzaion galdetzea bururatu zitzaidan. Hasieran, ezer gertatzen ez zitzaiola esaka aritu zen; egun txarra zuela eta ez zitzaiola ezer garrantzitsurik gertatzen.

Baina, zoritxarrez, arazo horrek ez zuen egun bat iraun. Aneren aurpegia egunez egun, gero eta goibelago eta ilunago ikusten nuen.

Egunak igaro ziren, baina Ane ez zen institututik agertu ere egin. Hamaika aldiz deitu nion, baina ezer ere ez; ez zuen erantzuten.

Egunak pasatu, eta goiz normal batean, Ane heldu zen; han zegoen bere eserlekuan txintxo-txintxo. Baina bere aurpegiak ilun jarraitzen zuen. Orduan, asko pentsatu barik, eta oso ziur, berarengana jo eta zer gertatzen zitzaion azaltzeko esan nion, niregan konfiantza izan zezakeela eta lasai kontatzeko, laguntzeko prest nengoela.

Hasieran, behin baino gehiagotan esan zidan ezetz, ez zitzaiola ezertxo ere gertatzen, baina, azkenean, dena azaldu zidan:

“Begira Danel, ez dizut ezer kontatu egun guzti hauetan, baina, jada, ez dut gehiago jasaten gorputz barruko presio hau. Etxean arazoak ditut eta gauzak okerrera doaz. Oso gauza gogorak gertatu dira azken egunetan; gogorrena, orain dela hiru egunetakoa izan zen: gaua zen eta afaltzen hasteko aitaren zain geunden. Ama alztatu egin zen, begitik isuri zitzaion malko bat ni ohartu baino lehen lehertzeko. Ni ere zutitu egin nintzen eta zuzenean nire logelan sartu nintzen. Musika ipini eta bolumenik altuenean jarri nuen. Ohean sartu eta lo egiteko zailtasunak nituen, ardiak zenbatzen hasi nintzen. Lo hartutakoan, ahots batzuk iratzarri ninduten, sukaldetik zetozen. Betiko ohiturari jarraituz, aita mozkor-mozkor eginda etorri zen etxera eta ama joka hasi zen. Amaren negarrak entzun nitzakeen nire gelatik eta atearen zirrikitutik ikus nezakeen ama lurrean odol jariotan. Hurrengo goizean, esnatu eta jarraian nire amarengana hurbildu nintzen. Gelara joan eta hantxe zegoen, bere ubeldura handi eta nabarrak aurpegian zituelarik.



Aita lanpostu apalago batera jaitsi zutenetik; egoera berri horren aurrean zer egin ez jakiteagatik; amak nik babesten nauen moduan, nik bera ez babesteagatik; ... heldu gara egoera honetara.

Gauean, ohean sartu eta ama etorri zitzaidan, nirekin geratu zen. Beldur zen. Negarrez hasi zitzaidan eta nik lagundu beharrean berarekin batera hasi nintzen negarrez.

Biak elkar besarkatu genuen. Gaueko hamabiak igarota, atearen soinua entzun genuenenean, ama berehala nire albotik joan zen. Aita bere bi hanketan mantendu ezin zelarik sartu zen eta gertu zituen gauza guztiak bota zituen, ama bera ere. Jarraian amari ostikoka hasi zitzaion. Odola zen nagusi. Ama negarrez zegoen, etzanda, eskuak

sabelean jarrita mina baretu nahian. Korrika gelatik atera nintzen eta amarengana hurbildu nintzen.

–Ume madarikatua, zuk ere nahi al duzu? –galdetu zidan aitak orroka.

Ama, negar zotinka eta minarengatik ahotsa ateratzen ez zitzaiolarik, bere indar guztiaz, ni bakean uzteko esan zion. Aitak ez zuen hori gustuko izan eta bai amari, eta bai niri, ostiko bana eman zigun. Ama konorterik gabe geratu zen.

Ospitalera eraman genuen, aitzakia bat erabiliz. Horrexegatik izan ditut hainbeste falta institutuan, denak justifikatuak.

Beraz, momentu batzutan, aitarekin bakarrik gelditu behar nintzen. Amak esan zidan, aitak zerbait egitekotan, ospitalera agudo jotzeko (oso beldur zen ama momentu horietan). Hainbat gau igaro nituen bakarrik, aita parrandan zebilen. Horietako gau batean, ohean sartu eta loak hartu ninduen. Nire gelako atea ireki egin zen, musuek eta laztanek iratzarri ninduten. Alkohol nazkagarriaren usaina usain nezakeen, aita zen eta oso haserre zegoen. Kolpe bat bestearen atzetik zetorkidan. Mina besterik ez nuen sentitzen. Oheko manta eta izararen azpian kokatu zen, nire gainean. Bere eskuak nire aurpegitik abiatu eta beherantz jaitsi ziren indarrez. Beldurra nuen. Bihotzak alde egin behar zidala zirudien. Ez nuen astirik izan ezer egiteko, mundua gainera erori zitzaidan. Gorputz guztia minberaturik neukan, izarak odoldurik utzi nituen eta aurpegi guztia orbainez beteta nuen.

Ez nuen bizitza honetan jarraitu nahi, ez nuen gogoratzen azken aldiz barre egin nuen eguna, ez oroitzen lagunak zer ziren, zoriontasuna zer zen...

Egun batean, ama etxera etorri zen. Kontu handiz ibiltzeko esan zioten, oso itxura txarra omen zuen bere gorputzak. Gau hartakoaz, ez nion ezer esan bere ardura ez areagotzeko. Ezin nuen gehiago. Aita ez zen inoiz aldatuko. Amak ezin zuen gehiago, azkeneko eguna noiz izango zen pentsatzen zegoen. Zulo beltz horretatik atera eta argia ikusteko zain zegoen.

Baina gaurik beldurgarriena, bart gauekoa izan zen. Ama lurrean zegoen, ezin zuen ezertxo ere egin, baina aitak ostikoka jarraitzen zuen. Berarengana joan nintzen azkeneko uneak bere ondoan igarotzeko asmoz.

Eskuak odoleztaturik zituen, eta nituen, amari hitzak bukatzen ari zitzaizkion.

–Ama, zuk beti babesten ninduzun, eta nik honela eskertu dizut. Barkatu ama, inoiz ez naiz gai izan zer egin behar nuen jakiteko. Orain duzu aukera zoriontsu izateko, zoaz zoriontasunarekin topo egitera eta ez kezkatu niregatik, egunen batean zurekin elkartuko naiz eta inoiz baino elkartuago eta zoriontsuago izango gara. Eta jakin ezazu, beti eramango zaitudala bihotzean...

Ama zegoeneko hilik zegoen. Ni, lur jota, negar malkoez inguraturik, neure buruari galderak egiten: nora zoaz ama? Zer egingo dut nik, zu gabe?...”

Hau dena entzundakoan, hitzik gabe geratu nintzen, ordura arte ez nuen ezer jakin honi buruz. Aneri nire laguntza osoa eskaini eta benetan sentitzen nuela esan nion.

Baina Ane, zorionez, neska bizkorra denez, mugitu egin da batetik bestera, eta urruneko senide batekin bizi da orain. Oso pozik dago eta, gainera, amari bisitan joaten zaio egunero, lore sorta eder batekin, bere eguna nola joan den aipatzeko.



Cristina Urionabarrenetxea - BT 1. maila

“Asko gustatzen zait lagunekin irtetea eta musika entzutea”

BIZITZAREN JOAN ETORRIAK

1968. urteko otsailaren 2an ezagutu nuen Bill. Euria geldi ezinik zebilen eta gauean egindeako hotza nabaria zen Liverpooleko kaleetan. Asteazkena zen, lan eguna, kaleak beterik zeuden.

Nire ondoan aurkitzen zen Willyk izatu ninduen. Sarritan amets gaiztoak izaten zituen, baina umezurtzegiko txikienek errespetu handia zioten. Jaio berritan ekarri zuten umezurtzegira eta Sor Anabelek esaten zuenez, amonak utzi zuen adopzioan aurrera ateratzeko dirurik ez zutelako. Adopzioko lau familia izan zituen baina denek ekartzen zuten bueltan, maleta bat bailitza. Ez zen mutil gaiztoa. Gaitakeriak egiten zituen umezurtzegira berriz bueltan ekartzeko. Alai zen eta bere amak dirua batu eta bila etorriko zitzaionaren itxaropena zeukan.

Jhon, Jhon... itzarriko al haiz behingoz motel! Berandu iristen bagara hire errua izango duk eta jan gabe geratu beharko diagu.

Ah... Itxaron ie zadak pixka batean. Berehala joango gara.

Arrapaladan jaitsi ginen eskaileretatik eta marmolezko eskaloi altu haiek egin zituenaren familia guztiaz akordatu ginen.

–E! Hona! Zuek biok etorri hona berehala.

–Egun on Sor Herminia. Barkatu beza berorrek baina Sor Lurdesi goiko solariua garbitzen ibili gara eta txukuntzen ari ginela berandu egin zaigu eta gero...

–Et, et, et! Niri gezurrik ez esan gero. Gainera, nola egongo zarete Sor Herminia-rekin orain dela bi hilabete eraman zuten ospitalera eta.

–Ba zera...

–Ez kezkatu ez nator zuek salatzeraz. Zuzendariak esan dit ume guztiak sarreran biltzeko.

–Zer pasatu da?

–Zer esan nahi digu?

–Nik ezin dizuet ezer esan. Joan behera eta berehala enteratuko zarete.

Elkarri begiratu eta ziztu bizian abiatu ginen sarrera gelara. Umeak lerro oker bat osatzen zuten eta eraikin osoko monjek zorrotz begiratzen zieten. Mireia sukaldaria ere irribarretsu zegoen bere jantzi zuriarekin. Txikienen artean zurrumurruak zebiltzan baina inork ez zekien zer gertatzen zen, zuzendari andrea atetik sartu zen arte.

Bere izaeran normala zen aurpegia zeukan. Ez zuen inoiz aurpegia aldatzen, esprezio berdinarekin ikusten genuen beti eta inork inoiz ez zion ahotsik altxatuko edo aurpegi txarrrik jarriko. Nahiz eta egun osoa bere aurpegira begira jardun ez zenuen jakingo nolako umorez jaiki zen.

–Isilik! Isilik, mesedez!

–Kaixo denoi! Zenbat denbora zuek ikusi gabe, e? Willy?

–Aupa –esan zion Willyk lehor.

Gobernuko arduraduna zen. Umezurtzekin arduratzen zen pertsona. Willy oso ondo ezagutzen zuen adopziozko familiak aurkitzen makina bat buelta emandakoa zelako.

–Ez begiratu horrela William, ez nator zure bila eta. Egian esan ez nator inoren bila. Umeok lagun baten berri eman nahi dizuet. Bill du izena.

Ez ginen ohartu zuzendariaren atzean mutil txiki bat zegoenik. Ile kizkurra zeukan eta zazpi urte inguru edukiko zituen. Gurasoak auto istripu baten hil zitzaizkion eta ez zeukan beste familiartekorik.

–Ka..a..iiiiii...xo.

Beldurrak akabatu zegoen eta ezin zituen bi hitz jarraian esan trbaatu egiten baitzen. Lurrera begira zegoen eta ez zen burua altxatzen ausartzen.

–Beno, orain denok klaseetara –esan zigun zortz zuzendariak.

–Bill, laztana, nik eramango zaitut gelara.

Sor Anabelek eraman zizkiion maletak eta Miresiak eraman zuen gelara eskutik helduta.

Umezurtztegian ez zebilen beste elkarrizketarik. Haur berri bat etortzeanobedade handia zen eraikinean. Kale aurrean auzoko umezurtztegi berria ireki zutenetik gure etxera ez zen etortzen inor.

–Seguruenik bi drogazalaren semea izango da.

–Edo bestela FIA-ko bi agenteren umea. Misio sekretu batean egongo dira eta ezin izango dute umea zaindu.

–Ama ezkongabe baten semea ere izan daiteke, kalean hotzez hil eta...

Willy eta ni gelako lanparari begira geunden. Egun osoa igaro genuen hipotesi berri bat aurkitu nahian. Ez genekien zezer bere bizitzari buruz. Mila adibide eman genituen eta beste milla aurki genitzatkeen. Gelan berrogei ohe zeuden ohatzetan banatuta zeudenak. Hala ere, gu biok bakarrik geratzen ginen, beste guztiak joanak ziren. Batzuk familia batera, besteak lanera eta gutxi batzuk aurreko umezurtztegira eraman zituzten. Ondoko gelan bost urtetik beherakoen logela zegoen. Gure bost urtetik gorakoena zen, Willyk eta nik osatzen genuen. Willyk zortzi urte zituen eta nik bederatzia.

Bat-batean pausoak entzun genituen eskaileretatik gora. Atea beti bezala karranka jasanezin batekin ireki zen. Atetik, Bill, mutiko heldu berria sartu zen.

–Gabon.

–Bai, kaixo. No Jhon naiz eta hau Willy. Urte askotarako.

–Bai, pozten naiz. Ni Bill naiz eta Sor Anabelek esan didanez zuen gelakide izango naiz, axola ez bazaizue, noski.

–Ez, ez, lasai, eseri hadi hor.

–Eta... Denbora askorako etorri al haiz?

–Baietean nago. Gurasoak auto istripu batean hil zaizkit eta ez daukat beste senitartekorik.

–Zenbat urte dituzu? Gu baino nagusiago haizela dirudi.

–Ez, nik zazpi urte ditut eta aurton betetzen ditut zortzi.

Gau osoa hizketan pasa genuen. Betidanik elkar ezagutzen genuela ematen zuen. Urteen arteko desberdintasuna ez zen batere atzematen. Billik izkeran eta gorpuzkeran ez zeukan bere adineko baten itxurarik. Gorputz txiki bat izan arren, heldu aurpegia zeukan. Begirada zorrotza zeukan baina aldi berean segurtasuna isla zen.

–Familia berr bat aurkitu gura duzu ezta?

–Ez horixe! Nire familia istripu hartan hil zirenak izango dira eta inoiz ezin izango ditu ordezkatu. Familia bat aurkitzen ibiliko banintz...

–BESTE UMEZURTZTEGIRA JOANGO NINTZATEKE!

–Nola dakizuen hori esatera joan naizela?

–Badakizu. Urte mordoia daramagu hemen, esperientzi kontua.

–Ja, ja, ja.

–Espiak ala?

–Txantxetan esan duzu baina ez pentsa ez dugula gogoan eduki! FIA-ko bi agenteren semea zinela uste genuen.

–A, bai? Ondo dago jakitea.

Gaua igaro zen eta egunak, asteak, hileak, urteak... Willyren 15. urtebetetze festa zen.

–Zorionak zuri, zorionak txoriburu, zorionak zuri.

–Eskerrik asko. Ekarri plater batzuk pastela ebaki beharko diagu eta. Bill, zu joango zara bila?

–Bai lasai berehala noa...

–BILL! BILL! Ondo zaude? Ene! Konorte gabe gelditu da. Deitu anbulantzi bati.

Ospitalean...

–Beno mutilak, Billen kargu dagoen medikua naiz. Zuzendari andrea, mutilak... berri txar bat eman behar dizuet. Billek leuzemia dauka. Londresera eraman beharko dugu.

Mundua erori zitzaigun gainera. Ez zen posible; gure lagun minak leuzemia zeukan.

–Zuzendari andrea eta ni paperak egitera goaz; zuek bitartean agurtu Bill.

Negar malkotan agurtu genuen Bill ez zait inoiz ahaztuk une hura. Atea kontu handiarekin ireki genuen eta Bill leihora begira zegoen oxigenoa hartzeko maskara bat zeukan. Gu iritsi ginela esan ziotenean geldiro-geldiro buelta eman zuen. Erizainak lagundu zion eta gu bitartean malkoak xukatu eta irribarretsu azaldu ginen. Besarkatu egin gintuen eta malkorik isurtzeko indarrrik ez zuela aitortu zigun.

Willyk eta nik hamabost urte genituen eta Billik berriz hamalau. Bagenekien laster umezurtztegitik irtengo ginela. Beraz, hamazortzi urte betetakoa mundu zabalarri aurre egin beharko genion. Lau pareten barruan askotan kartzela bat zela leporatu izan genien arren, babesturik geunden. Horregatik, Willyk zera proposatu zuen:

–Beno. Badakit zer egingo dugun. Lagun minak izanda ere oso ezberdinak gara eta bakoitzak bere ikasketak eta bere lana izango ditu. Bill, Jhon... nik uste dut hogeita bost urte izaten ditugunean bizitza finkatuta edukiko dugula. Horregatik, ordurako pentsatu dut hitzordu bat antolatzea. Begira. Hor dagoen paper horretan idatziko dut hitzordua. Paper hau hitzordua heldu arte eduki behar da. Ez ahaztu. “Dean street, 14 arratsaldeko bostetan.”

–Bill, ez jarri kopeta ilun hori. Zu ere gurekin hitzordura joango zara.

–Bai, nire indarrrik handienarekin igaroko dut gaixo hau eta nire bizitza ederrra aurkeztuko dizuet.

–Eskale bezala?

–Bai! Bai! Egin barre. Ohe madarikatu honetatik altxatzen naizenean ikusiko duzue.

Hamar urte igaro dira dagoeneko. Billi ospitalera eraman zutenean Willek eta nik familia batera joatea onartu genuen. Ni Liverpooleko familia batek adoptatu ninduen.

Ez zen nik pentsatu bezain larria izan. Urte batzuk geroago Wil Irlandara bidali zutela esan zidaten baina ez neukan Billi txikiaren berririk. Gaur egun seinalatua da. Gaur elkartzekotan geratu ginen Dean kalean. Ez dut pentsatu nahi zer gertatuko den. Nire lagunak etorri egin behar dira. Ezin dira ahaztu edo ez da bidezkoa hilda egotea.

Goizeko bostetan jaiki naiz eta lanean eguna libre hartu dut. Beste hiru lagunekin batera abokatuen buffet batean ari naiz lanean. Heldu naiz Dean kalera. Sei eserleku daude eta kale hasieran dagoenean esertzea erabaki dut. Aldamenean usoei jaten ematen dien emakumea dago, egunkaria irakurtzen gizon altu bat eta bikote gazte bat txutxumutxuka. Ez dakit nola esan zigun Willek hain luzea den kale honetan elkartzeko.

–Barkatu, Jhon al zara?

–E. WILL! Bai ni naiz! Zenbat aldatu zaren hain urte gutxitan. Ez zaitut gaizki ikusten.

–Zu ere asko aldatu zara!!

–Zelan doa zure bizitza? Ni azkenean abokatu egin nintzen.

–Zu izan zaren gaizkilea eta abokatu? Kontuz ibili egunen baten epaileak amua botako dizu. Ni berriz guztiz ezberdin. Nire emazteak eta nik ingeles ikasten datozen atzerritar guztientzat ostatu bat egin dugu. Gaua hotelean egotea baino merkeagoa denez, negozioa ezin hobeto dabil.

–Emaztea? Ea, Wil nor engainatu duzu?

–Inor ere ez. Bai baina, Bill zer. Nik ez dut bere berririk izan.

–Nik ere ez...

–Beno goazen zerbait hartzera Will. Zer egingo diagu ba...

Bat-batean eserita zegoen gizon altua hurbildu zitzaigun.

–Wil eta Jhon ni...

–BILL???

–Ezezagun bat zinelakoan geunden.

–Etorri eman besarkada bat.

–Barkatu ez zaitut ezagutu.

–Aldaturik zaude orain. Ez zara gure Bill txikia.

–Ez orain Bill handia naiz.

Ez zirudien ezer aldatu zenik. Lehenango aldiz hitz egin genueneko sentsazioa berdina dut, betidanik batera egon garenekoa. Une horretatik aurrera adiskidetasuna berreskuratu genuen. Nork esango zidan 1968. urteko otsailaren egun euritsu hartatik aurrera nire bizitza aldatuko zela.



Aitor Arrizubieta - BT 2. maila

“Hain gara handi eta aldi berean hain txiki”

HALA ERE MAITE ZAITUZTET

Amaitu dugu bidaia behingoz. Jaitsi naute lurrera. Egia esan, ez naiz oso ondo sentitzen, autoak asko zorabiatzen nau, gainera, gaurkoan oso bidaia luzea izan da. Normalean familia guztia joaten izan gara bidaian, eta leku zoragarrietara; hondartzara, mendira... askotan joanak gara atzerrira ere. Baina arraroena da oraingoan ez dela horrelako lekurik, ezta familia osoa ere. Oraingo honetan ugazaba eta ni bakarrik etorri gara oso toki itsusi batera, herri eta hiri guztietatik urruti. Ugazaba izan nezakeen lagunik onena zen, egunero ematen zidan janaria, baita paseatzera atera ere, astero bainatzen ninduen eta gustua sentitzen nuen gorputzeko lekuetan egiten zidan hazka. Baina oraingoan, kasu zipistik ere egin gabe, nire lepokitik gogor hartuta sakaka eraman nau. Oso sentazio txarrak izan ditut momentu horretan. Ez naiz ohartu, ez, baina beste txakur batzuen zaunkak entzun bezain laster konturatu naiz nora natorren. Edozein txakurren kartzelara, txakurtegia preso.

Ezin zitekeen, ezin nuen sinetsi horrelakorik gerta zekidakeenik. Hainbeste maite nuen nagusia, nire ugazaba zen traidorea. Ez nuen sinisten. Oraindik asko maite nuen

nire ugazaba, bizitza osoa berarentzat eman nuen eta orain preso sartu nau pertsona berak. Ez nuen ulertzen, ez nion inori koska egin, zaunka asko ez egiten saiatu nintzen, eta beti, gauero zain egoten nintzen ugazaba noiz itzuliko, isatsa ahalik eta gehien mugitzeko eta bere eskua miazkatzeko, nire maitasuna adierazteko.

Baina jada berandu da, pertsona arraro batzuekin utzi nau, euren artean hitz egin dute eta gero ni bertan utzita ugazabak alde egin du. Ni zaunkaka, saminez, isatsa hanka tartean sartuta gizon haren eskuetan. Ihes egiten saiatu naiz, nire ugazabaren atzetik joaten ahalegindu naiz, baina alferrik izan da. Ateak behin betirako itxi dira niretzat, eta orain arte nire babesle eta lagun izan dena bestaldean. Nire bizitzako hiru urte igaro ditut bera eta familiako beste guztiekin.

Gizon arraro hark kaiola batera eraman ninduen, gehiago zehaztuta ez zen niretzako bakarrik, beste zortzi txakurrekin konpartitu beharra nuen, etorri nintzen autoaren male-tategiak zuen tamainako kaiola. Ihes egiten saiatzen nintzen behin eta berriz. Kaiola itxi eta zaunkaka eta saltoka igaro nuen egun guztia. Baina ni nintzen bakarra, beste zortziak geldirik zeuden, tristurak jota, etsita. Banekien beste txakur haiek denbora asko zerama-tela bertan, eta ni ere euren moduan egongo ote nintzen arinago edo beranduago? Baina ez nuen etsitzen, oraindik nire ugazabarengan sinisten nuen eta nire bila itzuliko zela pentsatzen nuen, baina alferrik. Gau eta egun asko iraun nituen zaunkaka eta zaunkaka, beste kaiolakideak tristuraz begiratzen zidaten bitartean.

Egunak pasatu ziren horrela baina azkenean bai, azkenean errenditu nintzen, eta beste txakurrek egiten zutena egitera bakarrik ekin nion. Hurrengo asteetan zehar txakur gehiago eta gehiago ekarri zituzten. Tristurak eta minak jota nola sartzen zituzten kaioletan ikusten nuen. Lurrean etzan eta nire patuari lasai eutsi besterik ez zitzaidan gelditzen. Egun horietan bizitzan txarto zer egin dudan gogoratzeari ekin nion.

Ni oso gaztea nintzela heldu nintzen etxera, denak zeuden nire zain. Ugazabak autotik kaxatxoan atera bezain laster etorri ziren etxeko txikienak irribarre handiz. Orduan gogoratzen dut oso pozik nengoela. Ez zitzaidan ezer falta. Denak zeuden nire kargu. Txandak egiten zituzten norik aterako ni paseatzera, norik bainatuko, norik edukiko magalean... baina urteak igaro ziren. Urte bete nuela, jada ez nintzen lehengo txakur kume txikia, nahiko handitu nintzen. Ez zegoen txandarik. Etxeko txikienak kexatu egiten ziren ni paseatzera ateratzeko orduan. Gehienbat ugazaba arduratzen zen nitaz, eta bere emazteak izugarritzko zaratak egiten zizkidan etxera zikinduta sartzen nintze-nean eta senar-emazteak haserretu egiten ziren nigatik. Hurrengo urtean etxeko txikiek ez zidaten hazkarik, ezta inolako kasurik egiten. Ni saiatzen nintzen ahalik eta hoberen portatzen, baina, hala ere, ez zidaten kasurik egiten. Ugazabak zaintzen jarraitzen zuen eta ni defendatzen.

Hirugarren urtea, gogorragoa izan zen, kasurik ez egitetik arbuia eta baztertu egite-ra pasatu ziren. Etxeko txikienak kexatu eta kolpeka bidaltzen ninduten euren ondotik. Etxean izugarritzko iskanbilak entzuten ziren nigatik eta ugazaba zen defendatzen ninduen bakarra. Baina, gehiengoak kontra zegoen. Hortxe amaitzen da nire bizitza.

Hiru hilabete dira hemen nagoela. Ilea erortzen hasi zait. Hainbeste denbora etzanda egonda ezin naiz zutitu, hankak handituta ditut. Oso ahul sentitzen naiz, baina

ez dio axola. Ez da askorik geratzen. Orain neu naiz kaiolan denbora gehien daramana. Hilabete hauetan ikusi dut nola nire moduan makina bat txakur ekarri dituzten hona, eta nola sufritu duten nire prozesu berdina. Lehenengotan zaunkaka eta zaunkaka daude. Esperantza eta ilusio osoz egoera konponduko delakoan, baina ez dute askorik irauten horrela, etsi eta bazterrean tristuraz etzan arte. Nire txanda heltzear dago. Ez da asko falta. Gaur ez bada, bihar izango da nire azkena. Eta oraindik ez dakit zein den ni hemen preso egotearen arrazoia. Agian handiegi hastea edo gehiegi maitatzea.

Baina jada guzti horrek ez du axola. Bukatu da. Momentu batetik bestera helduko da denok beldurtzen gaituen gizona. Bera heltzean bukatuko da nire bizitzako ibilbidea. Ez da asko falta. Badator erraz nabaritzen dut badatorrela nire ordua, txakurrak zaunkaka hasten baitira, orain dela gutxi heldu direnak behintzat. Beste txakur batzuk nola ermaten dituzten ikusten dut, bat baino gehiago dira oraingoan. Heldu dira nire kaiolara. Txakur guztiak zaunkaka hasi dira. Ni ez naiz saiatu ere egin. Lepotik heldu dit. Ez naiz ihes egiten saiatu. Alferrik da. Pila bat txakur gaude ontzi zikin baten barruan. Zaunka triste etsiak entzuten dira soilik. Ateak itxitakoan iluntasuna dator. Bat-batean haizea hodietatik pasatzen bezala entzuten da. Hau bai. Azkena da. Ez nago triste, azkenean ulertu dut ez dela nire errua izan preso egotearena.

Egun hauetan asko pentsatu ondoren argi ikusi dut ez nauzuela zuen ondoan eduki nahi, ez nauzuela maite, baina... **hala eta guztiz ere nik maite zaituztet.**



Iera Atxalandabaso - BT. 2. maila

HARA ETA HONA, FILOSOFATZEN

Zoragarria litzateke nor garen jakitea.

Goizean jaiki eta nora goazen eta zer egingo dugun erabakita edukitzea, inork beste ezer egitera behartu gabe.

Kaletik joan eta atzean nor duzun arduratu gabe, biharamunean begiak irekitzean mundua zure inguruan biraka dabilela konturatzea eta zuk egiten duzunak baino ez duela besteengan eragina edukiko...

Zoragarria litzateke...

Eguneroko errutinaren preso izaki, nolatan egon daiteke jendea pozik?

Hanka bat bestearen aurrean jartzea nahiko da... konturatzeko inguratzen gaituena ez dela ona... gaizkia dago nonahi. Bai, begiratu ezazu zure aurrera, baita atzera eta ez ahaztu alboetara begirada bat botatzea. Pozik al zaude ikusten duzunarekin?

Oso arriskutsua da ignorantzia...

Iratzargailua entzuten dut, baina ez dut gogorik jaikitzeke, beraz, itzali eta lotan jarraituko dut... Ikaragarria da... baina iratzargailua amatatu eta hala eta guztiz ere jotzen jarraitzen du... edo nire burua da?? Utikan!! Jada ez dut loak hartzerik...Nire izena... bai, momentu bat mesedez... ez naiz oroitzen... mmmm... Utz nazazu denboratxo bat izena asmatzen dudana bitartean mesedez...

Dei iezadazu *Uez'uz*, adibidez, bai, izen horrek mezu ezkutua darama barnean, ideala. Fantasiatzko pertsonaia horietako baten izena ematen du, originala benetan, gus-tuko dut... zuk? Hei! Hitz egin altuago ez baitut zure ahotsa entzuten... ba! Berdin da! *Uez'uz* nauzue. Hemen nago. Zertan? Auskalo... denbora-pasa edo...

Gaur goizean jaikitzean, konturatu naiz atzo zenarekin hautsi dudala, biharkoa dut buruan, atzo nor nintzen, hura joan da... bihar nor izango naizen, haretxen zain jar-dungo dut... bitartean, hemen nago, esan dizut, denbora-pasan, edooo, errepikatuko dizut? Nola baina, mutua izateaz gain ziur gorra ere bazarela, alajaina. Ez ditut baka-rrizketak atsegin, hori dela eta zure kolaborazioa ere beharrezkoa da nire hitzek zentzua har dezaten, aditu al duzu??

Ongi... ea ba... non gindoazen... auskalo!! Ene ba!! harridurak alderantziz jarri ez ditut ba?!! Barkaidazu, goiza da oraindik eta garuna ez da martxan hasi. Sukaldera noa, kafetxo bat hartu eta zurekin naiz Jesus batean... atxissss!! Jesus!!... ez, ez zaitetz erratu, zintz egin besterik ez dut egin, orain itxoitea tokatzen zaizu.

Zerbait nahi al duzu? Kafe bat, *kolakaoa*, gailetak, tostadak, marmelada, tarta zati bat, arrautzak *bacon*-arekin, laranja zukua, izozkia... EZER EZ?? *Tú mismo*, gero ez esan gose zarenik...

Irratia piztuko nuke, baina ez dute txorakeriak besterik esaten, egia esan. Politika besterik ez. Denak denen aurka, guztiek ideia kontrajarriak, nor du arrazoi? Hitz egi-ten ez duenak, noski. Ez dute besteek esandakoa entzuten. Nor bere pentsamoldea du eta besteena bere erara moldatzen dute nahi dutena esateko. Ez dago errespeturik, eta errespeturik ez badago eta ez badiote elkarri entzuten, politikak hutsaren hurrengoaren papera egiten du. Hala eta guztiz ere gure gizartean eraginik handiena duen arloa da... zergatik? Hargatik... (filosofatu)...

Tira bukatu dut, zerua urdina dago eta ibiltzeko gogoak ditut, goazemak paseotxo bat ematera. Gogoko dut ibiltzea, batez ere egun ona dagoenean, eta aprobetxatuz jen-dea lanean dagoela eta kaleak hutsik daudela... ba hori. Aurrerantz begira zoaz, zure ondotik igarotzen den jendea agurtzen duzu, zuhaitzetan dauden txorien kantak entzu-ten dituzu, eta... ughhh!! Txakur kaka bat zapaldu dut!! Hau nazka!! Enpin... noizean behin gertatu beharrekoak...

Begira hizketan nindoan bitartean parkera iritsi gara. Erdi hutsik dago, bi amona baino ez daude, eserleku batean hizketan. Ondoan jarriko gara.

–Eta nola dago Josefina? –galdegin dio andreetako batek besteari.

–Zein Josefina? –erantzun besteak.

–Josefina... gure Josefina!! Josefina Martiartu.

–Martiartuenekoak adarrak jartzen dizkio gizonari –bien bitartean beste andreak, negarrari ekiten dio– zer duzu baina?

–Oraintxe oroitu naiz ez dudala ogirik erosi bazkaltzeko...

–Bai! Horixe! Okinaren alaba!! Baina zer dela eta malko horiek?

–Benetan, batzuetan inozoa ematen duzu Ana Mari!! –eta altxatu eta ahal den ari-
nen urrundu da handik emakumea, laguna bankuan utziz, pentsakor...

Zeinen txarra den demenzia...

Lastima horrela bukatzeak. Ziur naiz emakume horiek garai batean zentzuzko per-
tsonak zirela. Zer egingo diogu ba...

Nolakoa izango ote da trantsizio hori guregan?

Orain kirol egiten ari garelarik, edota sexu ezberdin nahiz berdineko jendearekin
ligatzen, gauetan izugarritzko festak egiten,... zer izango da gauza horietaz gu zahar-
tzean??

Eta aldi berean, nola portatuko dira etorkizun hurbil horretako gazteak?

Denbora guk pentsatzen duguna baino are azkarrago doa, dudarik gabe.

Konturatzeke, urterik eta unerik onenak joanak dira. Gertakizun eta gogoeta franko
dituzu zure buruan, baina ez dira itzuliko, denboraren trenak eramanak baititu...

Oso gogorra izan behar da, egia esan...

Tira, hitz egiten hasten naiz eta orduan bai hegan egiten duela denborak, ala-
jaina!!

Nekatu naiz jada eserita egoteaz... badakit, autobusa hartu eta hiri zentroko kafe-
tegi batera joango gara... zer iruditzen??

Ederto txo!!!

T'erdietako trena hartuko dugu, bien bitartean, egunkaria erosiko dut. Itxoidazu
hemen istant batez...

Hemen da autobusa!! Gora ba!!

Pfff!!

Penagarria da benetan egunkaria ireki eta horrelako albisteak ikusi behar izatea...

Alde batetik, Ertamerika, mota guztietako katastrofe meteorologikoez astindua,
bestetik, Irak eta leku horietan, gerra amaiezinenaren ondorio lazgarriak. Gero, mugak
gainditu nahi dituzten inmigranteen egoera...

Eta gu??

Non gara??

Etxean, *Gran Hermano* eta *Operación Triunfo* ikusten...

Baina gertakarion errua ez da gurea, ez horixe... Herriak ez du batere ahotsik
munduko arazoetan.

GU, gure –ETA BAKARRIK GURE– akatsen errudun gara, beti, baina ez gara
horiek zuzentzen dituztenak. Beste batzuek hartu behar dituzte erabakiak gugatik.

Munduaren zati objektiboa eta subjektiboa osatzen dugu aldi berean...

GU gara lehen pertsonan bizi dutenak, baina bigarren plano batean geratzen
gara...

Eta ez zaigu axola... hori da txarrena...

GU pozik gara, gure etxean inoiz ez delako jatekorik faltako, eta eskolara zein lanera joan, besteekin harremanak izan, eta bizitzaz gozatzeko aukera izango dugu-lako.

Ikuspegi hori edukitzeko eskubide osoa dugu denok, nik uste...

Eta horrenbeste GU alde batera utziz, non dago HAI EK bat??

Galdegiozu Afrikako haur bati ea nolakoa den bere eguneroko bizitza. Zer duen jateko eta eskolan zer ikasten duen, baldin eskolara badoa...

Agian, ehuneko zati n̄imiño batek izango du irakaskuntza bat, edota jateko pixka bat. Baina beste ehunekoaren zati handi hori?? Batzuk, lanean, esplotaturik guztiz; besteak, egunero kilometroak eta kilometroak zeharkatu beharra eguzki sargoriaren azpian, ur kantitate barregarria lortzeko... eta badaude metraileta eskuan dutelarik gerra batean sarturik dabiltzanak ere... dramatikoak benetan...

Desberdina al da Kamerungo haur bat edo Chicagokoa??

Kolorea diozu?? Eta zer da kolorea?? Melanina gehiago edo gutxiago, hori bai huskeria...!! Arrazista tipikoaren topikoa...

Ba nik ez dut ezberdintasunik ikusten, eta egunkariaren aurrean jarri eta segundoko bost ume gosez hiltzen direla irakurtzeak, apurtzen nau... benetan...

Noizbait amaituko ote da egoera hori??

Egongo da garairen bat, zeinetan denok arau berdinen pean, pozik biziko garena??

Nik ez dut espero horrenbeste bizitzerik hori ikusteko... baina gustatuko litzaidake nire semeek bizi ahal izatea, eta horien ondorengoez baita... erreza dezagun...

Eta non daude are garrantzitsuagoak diren albisteak... kantzerraren aurkako bakenaren garapenak, edota, gizakiaren bizi esperantzak gora egin duela. Baita espazioaren ikerkuntzen berri...

Modu batean, honek dira benetan garrantzirik handiena izan behar luketen albisteak. Gure egoera hobetuko dutenak... baina noski... besteen berri ere izan behar da... zoritzarrez... zergatik diozu?? Hargatik (filosofatu).

Tita iritsi gara, goazemak kafetegira...

Hutsik, arimarik ez... ederki... horrela lasaiago egongo gara.

Kamareroo!!! Ateraitzazu bi koka kola fresko-fresko eta kafeinarik gabe!!

Begira!! Telebistan dokumental txatxu horietako bat ematen ari dira... ea zer esaten duten...

Egitan al dira amaiera zorionsuko filmak, zorionean amaitzen diren filmak?

Nork esaten digu guri, filmeko istorioak aurrera jarraituz, gaizki bukatuko ez denik?

Pelikularen amaieran ezkontzen den bikotea, ezkondu eta handik bi egunera dibortzioa eskatuko ez dutenik?

Herri, mundu eta unibertsoa salbatu dituen super-heroi horrek ez duenik harri batekin estropezu egin eta burua irekiko lurraren kontra?

Nork esaten digu hori horrela izango ez denik?

... Hausnarketa... besterik ez...

Baina zer txorakeria da hori!!

Benetan, telebistakoek jada ez dakite zer egin ikuslegoa igotzeko.

Eta zer axola zaigu guri nola jarraitzen duen film batek??

Guk ikusten duguna bukatu da, eta kito!! Eta *vivieron felices y comieron perdices...* ez zaizkio txakurrari bost hanka aurkitu behar. Alajainkoa!!

Eta horrelakoak piloa ikusiak ditut nik. Puff kontatuko banizu...

Gainera txarrena da, horrelako dokumental, teleaio, zein azkenaldian horren modan dauden *programas del corazón* horiek, kate publikoetan ematen dituztela, guztien aditzera. Imajina ezazu bost urteko ume batek horiek txorakeria guztiak entzuten dituela. Ene bada, ez nuke imajinatu ere egin nahi zer nolako ondorioak ekarriko lituzkeen horrek.

Batzuetan lotsa ere pasatzen da horrelakoak ikusten... benetan...

Non geratu dira garai bateko programa *edukatio* haiek??

Orain denak biratzen du ikuslego edo *audientzia*-ren inguruan. Eta okerrena da jendeak ikusten dituela programa horiek. Horregatik aldatu da horrenbeste telebista.

Azken finean, guk nahi duguna ematen dute, ikusi egiten dugu, beraz, gure eskakizuna da eta errua ez da beraiena, baina tira...

Ez dakit zergatik, baina gaur dena gaizki dagoela iruditzen zait. Aski da, zerbait ikusi, irakurri, usaindu, ukitu zein entzun, munduan gaizki dagoen zerbaitetaz konturatzeko. Ez al zara ohartu?? Eta zergatik ez didazu ezer esan?? Zu ere...

Beno, oso berandu da eta joan beharra daukat, oso denbora ona pasa dut zurekin, halere beste egiteko batzuk ditut eta premia handikoak gainera...

Baina joan aurretik, egizu zerbait... eman ezazu bira erdi, eta oroitu zaitez nire izenaz. Orain irakurtzazu atzekoz-aurrera, eta gauza asko ulertuko dituzu...


Filosofatzea ez da gauzen alderik sakonena aztertzea, biziaren zentzuaz galdetzea, edota nor garen eta nora goazen jakitea.

Horiek garai bateko pentsalariek zituzten ideologiak baino ez dira.

Edonork filosofoa dezake, pentsatu, ekintza burutu... norbanakoaren egitekoaz jabetu, azken finean.

Inozokeriak ezta??

(filosofatu).



Leire Gandarias - BT. 2. maila

“Norbere burua da inoizko batailarik latzenak bizi dituen guda”

BURUZ BURU, GUDUZ GUDU

Txuku-txuku, txuku-txuku, piiiii-piiiii, txuku-txuku, txuku-txuku piiiii-piiiii...

Ikatzezko tren madarikatuak ez zidan lokuluxkarako baimenik ematen. Bera ere ni, beno gu, bezala esplotaturik. Lan eta lan, trukean gauza handirik (ezer ez esatearren) jasotzeko.

Memoriak ez dit askorik laguntzen, baina Terueletik Zaragozarantz gindoazela uste dut. 2.700 bat soldadu izan ginen Ebroko batailan Zaragoza aldetik erasotzeko sarjentuak hautatuak.

Kontatzen ari nintzaizuen bezala, 2.700 inozo geunden tren zaharkitu eta deseroso hartan. Informazio handirik ere ez genuen, egia esan; genekien gauza bakarra, arinago heltzeko kamioietan joan beharrean trenez gindoazela zen.

Asperraldia uxatu nahian, ingurukoei begiratzeari ekin nion. Nire ondokoa, hasiberri zuen ile labur horixka zuen mutil galanta, aurpegikera oso tristearekin eta begiek dir-dir egiten ziotelarik leihotik begira zegoen, itxaropenaren bila nonbait, kristal zikinek

zerbait ikusten uzten bazioten, behintzat. Aurreko bi lurreen eserita, bata bestea bizkarren bidez eutsiz, lo zeuden. A ze inbidia! Hori da hori loak hartzeko erraztasuna! Atzerantz begiratu gero ere antzeko ikuspegia nuen. Baten batzuek, denbora uxatzeko berriketarako indarra eta gogoia ere bazuten. Bi ilara aurrerago leiho bat irekita zegoen, haize goxo pixka bat tren barnera sartzen utziz. Ez zen gauza handirik kanpoaldean. Eguzkia, hau ere nahiko makal, laino artetik irten nahian zebilen arrakastarik gabe. Lainoetan animalien formen bila nenbilela, lo gureak bisitatxoa egin eta lo seko gelditu nintzen.

* * *

1938ko otsailaren 12an.

Joxe maitea:

Berrehun eta berrogeita hamar. Horiexek dira zure erantzunik jaso gabe bidali dizkizudan gutunak. Zu berriz ikusteko ditudan esperantza urriak deuseztatzen doazkidala aitortu beharrean nago. Ezjakintasuna, bakardadea eta beldurra zureganako maitasunaren aurka borrokatzen ari zaizkit barnean etengabe. Zeinek irabaziko ote du? Erantzuna eguzkiaren lastanpean, loreekin solasean hel dadin espero dut. Bitartean guretzat erabakita dagoen bidea jarraitzea besterik ez dugu. Egia esan, Jainkoak une latz hau samurtzen duela pentsatzeak nabarmen lasaitzen nau.

Atzo nagusiak zugatik itaundu zidan. Ondo izan zaitezen espero dudala erantzun nion. Ea esperantza hori laster ziurtasun bihurtzen den...

Bihar arte. Maite zaitut.

Axun

Gutuna berriz irakurri eta ondo dagoela ikusi ondoren, tolestu, gutunazalean sartu eta seilua jarri nion. 20 urte egin berri nituen. Gurasoak aspaldi hil zitzaizkidan, nik 13 bat urte nituela. Ordudanik lanean dihardut bizimodua aurrera ateratzeko, jostun laguntzaile bezala.

Mantala jantzi eta lanera bidean nindoala, postariari gutuna eman nion.

* * *

Hezetasuna, iluntasuna, isiltasuna eta bakardadez inguratuta nago. Egia esan, lorpen handiegirik gabe, baina lasaitasun apur baten bila aritu naiz azken hilabeteotan. Hala ere, ez nuen kartzela espero!

Hainbeste kilometro trenez Zaragozara iristeko egin ondoren bataila usaindu ere ezin izan nuen egin. Hiriburura iritsi bezain laster, armak banatzen nenbilela, metraileta bat tiroka hasi zitzaidan. Ez dakit nola gertatu zen ere. Kamioian zegoen, eta ukiturik ere egin gabe (beno, beste armek bultzaturik beharbada) tiroka hasi zen. Aitaren egin orduko agertu zitzaidan sua zerion sarjentua eta egundoko erretolika bota ondoren, idazten ari zaizuen tontolapiko hau ezin isildu!! Ez nik nahi haina, baina urte guzti bateko amorru zati bat behintzat hustu nuen. Bigarren esaldia botatzera nindoanerako atxilotuta ikusi nuen neure burua. Hori abiada hori! Eta ezer gehiago esaten utzi gabe ziega honetara ekarri ninduten gatibu. Ez dakit non nagoen. Are gutxiago nirekin zer egingo duten.

Lasaitasuna bai, badago, baina urduritasunez ase; iluntasuna ere nirekin dago, arimez josia, ordea eta isiltasuna, aldiz, garrasika, irrintzika ari zait gela heze honetako nire buru kiskalian.

* * *

Eroritako jostorratza lurretik altxatzen nenbilen irratian notizi hura entzun nuen: *“Los soldados nacionales que hayan quedado discapacitados para luchar llegarán mañana a las 18 h. en tren a Bilbao”*. Harri geratu nintzen, geldi-geldi nagusiak erreallitertera bueltarazi ninduen arte.

–“Zer zabilta geraturik daukagun behar guztiarekin?”

–Entzun al duzu irratia esan duena?

–Bai. Baina zer...

–Ideia bat otu zait; bihar arratsaldean utziko al zenidake lanera ez etortzen? Gaez berreskuratuko dut lan guztia!

–Ez zaitetz aurreratu eta esaidazu behingoz zer demonio bururatu zaizun!

–Bihar Joxeanen argazki bat hartu eta Bilbora joan naitekeela norbaitek ezagutzen duen galdetzer.

–Bere argazki bat erakutsiz, pistaren bat jaso nahian zabilta? Ba al dakizu zenbat jende dagoen gerra zibil madarikatu horretan? Zorte handia beharko duzu daramatzazun baino berri hobekin bueltatzeko.

–Orduan, joan naiteke?

–Bihar arratsaldeko lana errekuuperatzekotan, konforme?

Buruarekin baiezko indartsu bat egin nion eta lanean jarraitu genuen biok. Ni artega eta apur bat beldurturik baina inoiz baino itxaropentsuago nengoen eta nagusia ere, egun osoan zehar deus gehiago esan ez zuen arren, nireganako poztasuna zuritu ezinean zegoen, nahiz eta behin baino gehiagotan esana zidan Joxean ahaztu beharra neukala, min baino ez zidalako egingo.

Bizkor igaro zitzaidan eguna; lanean. Gaez ere, lo ordu batzuei probetxua atera nien jostorratz eta hariaren konpainian. Ea orain bidaia honi ere etekina ateratzen diodan. Bilboko geltokian zain nago jadanik. Ez naiz bakarra. Urte bete igaro ondoren, orain Joxeanen argazkiak poltsatik atera eta lokomotora noiz iritsiko itxarotea baino ez dut. Beno, hori eta... zorte pixka bat baino gehiago.

* * *

Ez dakit nora garamatzaten. 43 gizon (nik neuk banan bana kontatuak) gaude espetxeko autobus honetan.

Orain dela hiruzpalau ordu, polizi batek esnatu nau ziegara etorri zaidanean: *“eh, tú; recoge todas tus pertenencias y mételas en esta bolsa”*. Zakarrago esatea ezinezko litzateke, baina nik badaezpada kasu egin diot. Ordu bete beranduago, kanpora atera eta

bertan, kartzelara sartzean kendu zizkiguten jantzi eta bestelakoak eman ondoren, autobusera igoarazi gaituzte. Ez dakigu nora garamatzaten baina ziurrenik kartzela aldaketa bat izango da, izan ere, azken asteotan jende asko etorri da eta ez gara guztiok kabitzen hemen. Aldaketa hoberako izatea baino ez dut espero. Inork ez du hitzik egiten bada-
ezpada. Neuk ere horrela jokatu dut bidaia osoan; burua zuriz jarri, leihotik aspaldi ikusi gabeko paisaiak mirestu eta gaua baino mutuago joatea helburu bakarra izanik. Eta hemen gaude atzetik zein aurretik polizi furgoi bana eskoltatzen dugularik. Autobus batetik ihes egitea erraza balitz bezala!

* * *

Beharrezkoa hartu, maleta egin eta banoa hemendik. Ezin naiteke hemen gehiago gelditu. Jasan ezina da. Barnealdea lehertu beharrean daukat. Milaka oroitzapen burura amorrur, beldur, tristezi eta gorrotoari auresanez.

A zelako inozoa naizen. Bilboraino etorri eta kapela gorri! Nagusiari kasu egin izan banio eta Joxean betiko ahaztu izan banu orain zoriontsu izango nintzatekeen. Ziu-
rrenik gizon zoragarri bat izango nukeen nire alboan zoriontasuna berreskuratuz. Baina ez; bihotza ez zegoen horrekin ados. Eta bihotza eta burua ados ez badaude, ez dago ahazterik. Bando bi; bata bestea baino zitalagoa. Hau da guztiok bizi dugun gerrarik gogor eta mingarriena.

Maleta prest dut. Mudak, oroitzapen gutxi batzuk, alkandoraren bat...

Bilbon nengoela, lokomotora heldu eta pixkanaka-pixkanaka elbarrituak jaisten hasi ziren. Ikuspegi harekin barrena ahuldu, tristetu, amorratu zitzaidan. Hala eta guztiz ere, indarrak atera eta bakan batzuei Joxeani buruz galdetzeari ekin nion. Gixajoak. Hitz egiteko gai ere ez ziren batzuk. Ezin izango dira gehiago ibili edota ezingo dute berriz haien kabuz jan. Hankak, besoak, begiak hegan imajinatzen ditut. “BOOOOM” bonba bat eta honekin batera gorputz adarrak euria balira legez eta gorpuak txori zerurantz. Oihuak, negarrak, sufrimendua edonon. Inork ez zekien ezer Joxeani buruz. Non ote dago? Hainbeste kostatzen zaio gutun bat idaztea? Edo telegrama ziztrin bat! Nitaz ahaztuko al zen? (Ez!!) Beso gabe ote dago? Hanka gabe? Hilda?!?! Zoratu beharrean nago!!! Bizitza berri bat nahi dut!!

Ate parera joan, paper zati bat hartu eta auzokoaren postontzian sartzeko ohartxo bat idaztea erabaki dut:

Dolo:

Banoa hemendik; betirako. Hemen duzu nire etxeko giltza. Egin ezazu aproposena deritozuna berarekin. Egunen baten Joxean agertuz gero, esaiozu asko maite izan nuela, baina beldurrak maitasuna garaitu zuela.

Izan zaitez zoriontsu eta ez arduratu nitaz.

Eskerrik asko guztiagatik.

Axun

Giltza eta oharra esku batean hartu, maleta bestean eta atea ireki dut, bi bizitzen arteko muga balitz legez. Atearen beste aldean nagoela, barrurantz begiratu eta oroitzapen

pen pila datozkit burura: Joxean abesten, bizarra mozten ari den bitartean; biok sukaldean goxoki hitz egiten; maitekiro egongelan... Nahikoa!!! “KLANK!!”

* * *

Txoferra, izerdiz blai dago. Ez dago, ba, berorik... Urduri egongo da; psikopatak edo horrelako zerbait garela esango zioten. Baina orain arte oso lasai etorri da...

Abiadura bizkortzen ari da gidaria. Berandu gabiltza? Ez dakit nora goazen, baina gaueko ordu txiki hauetan norbait zain dugula pentsatzea arraro egiten zait. Aurreko zein atzeko polizi furgoiak ere geroz eta bizkorrago doaz.

* * *

Postontzira hurbildu eta maleta lurrean uzten ari naizela postaria agertu da portalean.

–Kaixo Axun, oportretan zoaz ala?

–Bai. –Maletari begiratu eta nire benetako nahia disimulatu nahian–.

–Tori, gutun bat duzu. Aio, laster arte!

* * *

Presook elkarri begiratu diogu ezohikotasun hori begirada bidez islatuz.

Arinago, eta askoz arinago. Aurreko furgoiak alde batera egin du eta orain gure atzetik datoz furgoi biak.

Urrunean zubi bat ikus daiteke. Nahiko zaharra da. Ene bada! Erditik puskatuta dago!! Ez naiz ni izan ohartu den bakarra, autobusa oihu, garrasi eta gelditzeko eskariez bete baita. 50 bat metro...

–EZ!!! MESEDEZ EZZZZZ!!! GELDITUUUUUUUUUUUUUuuuu!!

* * *

Gutun bat nik? Hau ustekabea. Ez dakit ireki ala ez... Uztera noan bizitzako gutun bat da... Baina ezin naiteke zer jarriko ote zuen jakinguraz gelditu:

Srta. M.^a Asunción Garay:

Sentimos sumamente comunicarle que el soldado José Antonio Aldecochea ha fallecido prestando ayuda en la defensa nacional.

Tememos no poder hacerle entrega del cuerpo, puesto que nos ha sido imposible.

Compartiendo su dolor,

El secretario general

Hilik. Zendurik. Juan da; betirako... Mundua gainera eroriko balitzait bezala, maleta hartu eta etxerako bidea hartu dut, ezertarako indarririk gabe, aurpegia malkoz busti-bustirik.

Atea ireki, maleta lurrean utzi eta logelarako bidea hartu dut suabe-suabe gertatutakoa oraindik barneratu gabe.

Zer da bizitza? Zerura iristeko igaro behar den sufrimendu bide bat? Gure beldurak neurtzeko era bat? Zailtasunak zailtasun, lasaitasuna niregana noiz iritsiko den itxarotea besterik ez dut.

Maitea, laster elkartuko gara berriz; laster.



Mikel Ortiz de Eribe - BT 2. maila

“...geure arima hiltzen uzteko bezain odol galduak ez gara...”

OHEAREN ALDE HOTZA

–Aitor! Sak dira! Aitor!

–...eee... bai! barkatu Aitziber... neure munduan nenbilen... banoa...

Ordenagailua itzali, berokia eta maletaxoa hartu eta eguneroko garri-luzaketak egin ondoren, Aitziber lankideari inbidia eman nahian edo agur esan diot irribarre maleziatsu batekin, izan ere, hasiberria da gure enpresan eta ostiral gau osoa lanean igaro beharra dauka. Igogailuak ohi den bezala asko tardatzen duela ikusita, eskaieran behera jaitsi naiz, eta norekin topo egingo eta enpresako bi atso zahar tuntunenekin, biak elegante itxura eman gura eta *Zaran* moduko arropa-denda merkeetan erositako urdin argi eta urregorri koloredun goitik beherako arropa soinean dutelarik, daramatzaten plastikozko lepoko dirdiratsuak ere *pack* berdinean ez zetozen galdetu diodanean neure buruari:

-Arratsaldeon Aitor –Esan dute biek batera beraien irrizuri aurpegiekin.

-Berdin –solasean jarduteko gogoia dutela ikusita bi alditan pentsatu gabe eskailetan behera joan naiz.

Jose Luis atezainari agur egin eta erlojuari so egin diodanerako zortziak eta zazpi direla konturatu naiz. Berandu nabil, autobusak 20:20an irteten baitu Abando geltokitik eta oraindik metroa hartzeke dut: *Indautxu... Moyua... Hurrengo geralekua: Abando, lotura Renfe eta Bizkaibus zerbitzuarekin...* Gizon gizalegetsua izan arren, ziztu bizian eta sakaka-sakaka irten naiz bagoitik eta, ia aurrean neukan neska lurrera bota ez dudanean... Erlojuari begiratu eta oraindikoko minutu eskas dut, baina iristen naiz.

Han urrunean begietsi dut nire *Bizkaibus*-a; *Dir. Lekeitio-Lekeitiorako nor.* jartzen du eta ilara luze samarra antzeman daiteke lanetik irten berri gora eta behera dabilen jende andanaren artetik.

Ah zer nolako aldaketa *Bizkaibus* zaharraren ingurura ailegatzean! Bilbon nagoenik ere ez dirudi, behingoz euskera entzuten baita. Errenkadan nire koadrilako lagun baten ama ikusi eta bere aurrekoari lekua gordetzeko eskatu ondoren, hurbildu egin zait:

–*Zelan gabiltza ba Aitor?* –itaundu dit aurpegi arduratsuekin.

–*Ondo edo, oraintxe beharretik irten barri-* erantzun diot zerbait esatearren.

–*Zelan daramazu...*

Eta beti kontu berarekin gogaituta zera ihardetsi diot:

–*Ai Rosi... ez dut horren inguruan berbarik egin nahi...*

–*Koitadua... barkatu... gero arte-*hasperen bat egin eta alde egin du.

Autobusera sartu eta aurreko ilaran doan atso zahar bikotea agurtu ondoren, Lekeitiorako ticketa eskatu diot gidariari, eta zer eta, 20 zentimo garestitu da egun batetik bestera!

Eserleku lasai bat aurkitzeko asmotan, atzealdera joan naiz. Leiho ondoan jesarri, maletatxoa eta abrigua aldameneko jartokian jarri eta *Bizkaibuseko* hauts eta keruarekin ohituta lo-kuluxka bat botatzea erabaki dut.

Edurne! Edurne! Ainhoa! Ainhoa! Edurne! ez! ez!... Supituki izerditan akordatu eta bus guztia zurtz eginda niri begira dagoela jabetu orduko makurtu naiz aurreko jartoki hondatuaren atzean. Ah zer nolako lotsa! Zer esan ote dut! Ai ene...

Bederatzi eta erdiak pasatxoan iritsi gara Lekeitiora. Azkenean. Gainera, etxera joan aurretik oraindik lau pa-bost garagardo hartzeko astia badago. Kosme lagunaren tabernara joatea erabaki dut, ostiralero legez, nire koadrilakoak bertan egoten baitira. Kanpoaldetik harrabotsa entzun daiteke, alabaina, sartzetakoan nire lagunik ez dagoela ikusi dut. Ezkerretara begiratu eta herriko lau zahar, txikitoea eskuetan, eskupilota partidaren inguruan adituarena egin guran batak besteak baino ergelkeria handiagoak esaten. Sukaldetik irten berri, Kosme hurreratu zait:

–*Joño, joño, joño... begiratu nor dugun hemen! Aspaldiko!*

–*Zelan gabiltza, ba?*

–*Ba, hemen, tabernan sartuta... eta zu? zelan zure... horrena...*

–*Ba ez oso ondo... baina beno, utzi dagigun hori alde batera, mesedez...*

–*Beno, penak ahazteko lehenengo garagardoa tabernaren kontura!*

–*Eskerrik asko, Kosme, eskerrik asko...*

Zazpigarren garagardoa, edo zortzigarrena (*auskalo!*) eskatzerakoan, lagun talde bat sartu da tabernara. Nire arrebaren koadrilakoak dira, edo ziren. Begira-begira geratu zaizkit, isil-isilik. Burua makurtu, eta negarrari ekin diot. Orduan, Kosme hurbildu zait kontsolatzeko asmotan eta zazpigarren edo zortzigarren garagardo botila hartu eta saminki lurrera bota dut. Berokia eta maleta hartu eta burua makur beraiengana gerturatu naiz tabernatik alde egin baino lehenago. Burua jaso eta irrintzika barkamena eskatzen hasi natzaie:*Barkatu! barkatu! mesedez! Barkatu...*

Tabernatik irten eta erdi mozkortuta *Kabagua* diskotekara jo dut.

Dantzalekuetako giroa gogoko ez dudan arren, gaurko egunetan ondo etortzen da bertako iluntasun eta laioztpean desagertzeko. Kantoi batean jarri eta *ubatata* ekin diot. Bata bestearen atzetik, bata bestearen atzetik, itzelezko aitzurrarekin podium gainean bukatu dudanean arte bilbotar udatiar batekin alboka-alboka dantzan. Bat-batean, beste udatiar bat agertu eta neskari gerritik heldu dionean berealdiko ukabilkada eman diot masailean. Orduantxe, beste batek atzealdetik oratu eta hormetako ispilu baten aurka jaurtiki nau miraila karrakatu. Segundo gutxira azaldu da segurtasuneko gizona, txikia, baina era berean, lodi eta sendoa. Hileetatik hartu eta kostata arrastaka kalera bota nau. Kanpoan, antza denez, Ertzaintza patruila bat dago niri itxoiten:

–*Ei, zu! Mozkor zaku! Altxa zaitetz hortik!* –mesprezios esan dit ertzain batek.

–*...bai... itxaron, itxaron...* –ea ezin jaiki eta laguntzarik ere ez didate eskaini.

–*Dokumentazioa, mesedez! azkar!*

Eskua patrikeran sartu eta diru-zorrotik NANA atera diet:

–*Aitor Beriztain Ansotegi...*

Biek bira eman eta xuxurlaka hasi dira:

–*Hau ez al da... orain dela 6 edo 7 aste Ispaster inguruan kotxe istripua izan zuena?*

–*Baietz uste dut...*

Bira eman eta NANA itzuli ostean joan naitekeela esan didate. Nik, ordea, kotxez etxera eraman nazaten erregutu diet, bada, gainean ditudan alkohol litroekin neure burua ere ezin baitut tentetu. Eta etxeko helbidea eman ondoren, halaxe egin dute.

–*Beno, iritsi garela uste dut-* esan du gidariak.

–*Bai, hauxe da nire etxea, eskerrik asko, gabon* –erantzun diot zotinka.

Atea ireki eta ziplo erori naiz lurrera mozkorraren mozkorraz. Orduan, ertzainetako batek patruilatik irten eta etxean ea norbait dagoen itaundu dit. Nik andrea egongo



dela, baina lotan egongo denez, tirriak ez jotzeko eskatu diot lerdea ahotik behera dingilizka dudalarik. Beste ertzainak kotxetik irten eta erdeinuzko tonu batekin sake-latik giltzak ateratzeko eskatu dit, edo horixe ulertu diot behinik behin. Giltzak hartu eta aldaroka-aldaroka igo ditugu eskailerak. Ate parera ailegatzean, andrearen izena eta seme-alabarik ba ote ditudan galdetu didate. *Edurne da nire andrea eta ez dugu seme-alabarik*- erantzun diet nik. Emaztearen izena entzutean arraro aurpegia jarri dute biek. Txintik esan gabe atea ireki eta barrura sartzean bi ertzain harropuzak *Edurneka* hasi dira, baina erantzunik ez. Nik haserre, ertzainetako bati sakatu eta emaztea lasai lotan uzteko exijitu diet. Orduan, beste ertzainak bortizki bultzatu eta etxetik ospa egin dute.

Edurne ez esnatzeko intentziaz, isilka-isilka eta argirik piztu gabe sartu naiz gure ohe familiarreko nire aldean (ahaleginak ahalegin, korridoreko hormako koadro bat bota dut lurrera).

Hurrengo egunean...

Pertsiana jaitsi gabe, lehen orduko eguzki izpi zoliek esnatu naute hiruzpalau ordu lo egin ondoren. Ah zer nolako biharamuna! Ah zer nolako burukomina eta erremina! Zer egingo ote nuen nik atzo! Hasperen egin eta eskua mugitu dut andrearen ohe aldera, alde hotzera...



Iraitz Madariaga - BT 2. maila

CALDERA GABEKO ERANTZUNAK

Opariak, opari galduak,
hitz politekin batera.
Bihotzean orratzak,
buruan haize hotza
eta zulo beltzak,
zulo beltzetan
momentu onak eta
galdera gabeko erantzunak.

Mundurik ilunenean,
Bakardade latzenean,
Isiltasunaren oihartzunekin
Zoratzen, etxean
bakarrik solasean,
galderak aurkitzen
erantzunei, erantzunik
gabeko galderak sortuz.

Desoreka, zuloak edonon,
erantzun horien
zergatia zein ote?
Ez dakit, ez daki...
Ba al dakizu?
Zulo beltzetan oihu egizu,
eztarria urratu
isiltasunaren oihartzuna
entzun arte.

Hutsunea, sakontasuna...
isilunera ohitua.
Oihu mutuak, oihu mutuen
oihartzun zorrotzak.
Eta opariak? Eta hitzak?
eta erantzunak?
Eta erantzunen galderak?
Denak haize hotzak eramanak.

Izarrak, izar itzaliak,
biak ere kresalak erreak,
irudi itsuei begira zoratuak,
begirada galduan, irudi ezkorrak
ikusten kantsatuta, kolore
ederra ezabatuta, orratz
beroen erruz zulo
beltz bihurtuta.

Zuloak edonon,
zuloek den ajan dute.
Kresala aurpegian,
galdera gorak ahoan,
erantzun mutuak airean,
haize hotzean orratz beroak
paseoan, bihotz samurren
aurkiketan, zuloak Portu nahian.

Gauzak ulertu nahian,
gauak argitu nahian.
Ez dut izaten lo
egiteko gogorik gauetan,
Ez dut izaten ohetik
altxatzeko indarrrik goizetan.
Zure begietan zulo beltzak
ikusten ditut batzuetan.

Bakea non, orratzak hor,
poztasuna non, haize hotza hor,
izarrak non, kresala hor,
kezak non, zulo beltza hor,
galderak non, erantzun eza hor,
erantzun galduak non,
galdera mutuak hor,
norbaiten belarrietan.

Erantzunak: isiltasuna,
sakontasuna, haize hotza,
iluntasuna, bakardadea...
Galderak? Galderak?
Galderak aurkitu nahian
sortutako galderak baino ez.
Zulo beltza ito da,
gainezka egin du.



Markel Elexgarai - BT 2. maila

BELDUR NAIZ

BELDUR NAIZ

Iluntasuna inguruaz jabetu da
Eta ondorioz beldur naiz
Ez dut ezer ikusten eta horrek,
Nire barrenean ikara sortzen du
Bakarrik al nago?
Bakardadeak beldurtzen nau
Inor ez badago ene inguruan
Ikarak egiten dit konpainia.

Iluntasunean bakarrik nago?
Ez iezadazu ezetz esan
Ezetzta jasotzeak beldurtzen bainau.
Noraezean nabil, ezerezaren bila
Inguratu zaitetz eta aldendu ikara.
Iluntasunak eta bakardadeak
Izutzen naute, beraz
Etorri zaitetz argi berriz nire ondora.

Argi zuri bat ikusten dut
Zuria ez dut gogoko
Itsutu egiten bainau,
ez zaitut aldamenean sentitzen.
Min dut begietan
Baita ere bihotzean
Senda dezazun eskatzen dizut
Ene min eta beldurra.

Inguratu zara eta joan dira denak
Magia duzu zeure genetan
Ez zaitetz aldendu
Irribarrez bainago orain
Zeure besotan hitzik esan gabe
Begiratu ene begietara
bertan irakurtzen baita
behar zaitudala.

EGUN ON!

Egunon esaten dit irriatiak
Goizeko zazpitan
Bi langile hil dira zapalkuntzaz
Eta zazpiehun hildako Palestinan
Egunon esaten dit irriatiak
IESA-k kutsatutakoak gora doazen bitartean
Gosez hiltzen dira oraindik Afrikan.

Egunon esaten dit irriatiak
Ze egun polita dugun gaurkoan
Beste bat gauza berririk gabe
Ez da ezer garrantzitsua gertatu.

DESIRA DUGU

Gerra den tokian
bakea nahi dugu
Hala ere guk zertarako lagundu?
Gaixo daudenentzako
Osasuna nahi dugu
Baina bitartean gu etxean
Gaixoa baztertuz
Goseak daudenentzat
Janaria nahi dugu
Urtean behin laguntza bota
Kontzientzia trankil mantenduz.

IZARRAK

Gauetz gora begiratzean
Izar ugari ikusten ditut
Gora begiratu gabe berriz
Bat bakarria ikusten dut
Izarretan argia ikusi dezakegu
Nik zuregan dirdira ikusten dut.

Hildako izarren argia
Guk oraindik ikusten dugu
Nik zurea berriz
Betirako aldamenean izan nahi dut.

ARGAZKIA

Joan egin zara
Jada ez zaude
Ezin zaitut ikusi
Barruan eraman arren.

Argazki bat hartu dut
Bertan betirako zaude
Horrela gogoratzea nahi?
Paper puska bazinen?

Gaua heldu da
Ametsak betetzen diren ueña
Ez dut esnatu nahi
Bueltatzeko esperantzan.



Ibone Manzano - BT 2. maila

“Estropozu egin arren, helmugaranzko bidea jarraitu behar dugu”

LEHORREKO ARRAINAK

Guaaa!!!!!! Guaaaaaa!!!!!!! Horiek ziren egin nituen lehen oihuak, edozein umek bezala; ni ez naiz ezertaz gogoratzen baina amatxoren magalean gustura entzuten nituen txikitako istorioak. Orain nire jaiolekutik urrun nago, eta malenkoniagatik negar malkoak irteten zaizkit. Amadou Ousmane nauzue, 30 urteko senegaldar jatorriko gizonkote bat, naiz. Hainbat afrikar bezala etxea, familia eta ia bizia utzi behar izan ditut orain nagoen lekura heltzeko, Fuerteventura irlara.

Lehen esan dudan moduan Europako beste edozein ume moduan jaio nintzen, negar batean. Baina, zoritxarrez hori eta amaren maitasuna ziren hemengo umeek eta nik mundura etortzean izan genituen antzekotasun bakarrak. Beraien ospitalea, nire etxola zen, haize bolada bortitz batek erraz eramane zezakeena eta beraien amaren “epidurala” nire amaren sufrimendua zen, ezinegona, bertan gera zitekeela pentsatzea... Gaur egun, zorionez, irakurri ahal izan dudan moduan baldintza hobeetan jaiotzen dira hango umeak eta amak ere arrisku gutxiagoren aurrean daude.

Nik, egia esan, zorte handia izan nuen hango beste gaztetxoekin alderatuta. Banuen familia bat, lo egiteko babesleku bat eta garrantzitsuena, ez nintzela bakarrik sentitzen, inguruan beti nuela norbait bere maitasuna niri osotasunean eskaintzeko, bizia nigatik emateko. Gu Dakar hiriburuarren hego-ekialdean bizi ginen, Yoff auzunean. Aita, Masba, gutxitan ikusten nuen, arrantzan pasatzen baitzuen ia egun osoa etxera sos batzuk ekartzeko, ia ezezagun nuen; baina aita zen. Kalera irtetean ikusten nituen mutikoak, aldiz, bakarrik zeuden. Amari galdetzen nion:

–Zergatik ez dute amatxo, nik bezala?

–Badute, txiki, baina zeruan daude; han goitik lagundu egiten die nik zu laguntzen eta zaintzen zaitudan bezala.

–Baina zu ez zara zerura joango ezta ama?

–Egunen baten bai, semetxo maitea, baina ez arduratu, zu beti zainduta egongo zara, ez ahaztu aitatxo ere gurekin dugula.

Hortxe bukatzen zen gure hizketaldi laburra, eta hainbat alditan errepikatzen zen, hitz batzuk aldatuta; amak dioen moduan kezka handia bainuen bakarrik geratzearena, ama joatearena. Sarritan amesten nuen ama bazihoala eta aita arrain artean geratzen zela, itsasoan, izotz puxka bat bailitzan, eta ikaratuta jaikitzen nintzen. Abiadura bizian joaten nintzen gurasoengana, gehienetan ama zegoen logela hartan bakarrik, baina batzutan aita ere bazegoen eta bien artean egiten nuen lo, goxokiro.

Hemengo jendea nire bizipenak entzutean hunkituta geratzen da, ni, oster, nire lehengusuez oroitzen naiz bizilagunen aurpegi inarrosiak ikusita. Malang eta Abdou, Cassamancen bizi ziren, gu baino pittin bat hegoalderago. Baliteke zuei hiri hau arrotz iruditzea, niretzako ere ezezagun zen garai hartan; amak, lehengusuak hil ziren egunean holaxe azaldu zidan ezbehar hura (ni izututa bainengoen berdina gertatuko zitzaidalakoan):

–Amadou, laztana, egon zaitez lasai, zuri ez zaizu horrelakorik gertatuko. Lurralde horretako pertsona batzuek ez dituzte bere nagusiak gustuko...

–Ez dituzte amatxo eta aitatxo maite?

–Ez, ez da hori seme, gurasoak baino gorago dauden pertsonak, gurasoei ere agintzen dietenak.

–Aaaaa.

–Ba, haserre zeuden eta bata bestearekin burrukan ibiltzen ziren. Jendeak ihes egin behar izan zuen, baina Malang eta Abdou txikiak ziren eta bertan geratu ziren (gurasoak hil egin ziren gatazka hartan baina amak ez zidan esan nahi izan, nire amesgaiztoak zirela eta). Mediku askok ere alde egin zuten eta gaixorik jarri ziren, horregatik zerura joan ziren bertan osatzeko; orain handik begiratzen digute, kanpoko umeen amak bezala.

Amarentzat zaila izan zen hura niri azaltzea; izan ere, nik txikitatik izan bainuen bakarrik gelditzearen trauma, beldur itzela. Nire lehengusuak, guraso barik gelditu ondoren kalean ibili ziren noraezean, gobernuaren eta errebeldeen arteko istiluak zirela eta osasun zentroak, eta eskolak itxi egin baitziren. Handik gutxira, HIESak jota hil egin ziren biak, bertako hainbat ume eta emakume moduan. Gutxi hitz egiten nuen lehengu-

suekin, komeriak izaten genituen bata besteari ulertzeko beraiek *mandinka* hitz egiten zuten eta nik *wolof*, baina asko maite genuen elkar.

Ni jaio nintzenean, oraindik denbora gutxi igarota zen Senegalek Frantziatik independentzia lortu zuenetik (1960) eta behin amak aitonaren istorioa kontatu zidan:

–Semetxo, zu jaio baino lehen gure nagusiak atzerritarrak ziren, Frantziarrak.

–Eta non dago hori amatxo?

–Urrun, –erantzuten zidan– oso zaila da hura ikustera joatea, ez dugu baimenik eta.

–Eta orduan nola etorri ziren hona ama?-galdetu nion nik nahastuta.

–Ai seme, batzuk beti izan dira besteak baino boteretsuagoak, indar handiagoa dute eta nahi dutena egiten dute. Eta aitonarekin ere nahi zutena egin zuten.

–“Prantzia” edo horra bidali al zuten?

–Ez, seme, urrutiago oraindik. Irla batean beraien esanetara egon ondoren Amerikara eraman zuten hango “ortuetan” lan egitera.

–Eta zergatik ez zuen hemengo ortuetan lan egiten ama?, horrela amonarekin egon zitekeen.

–Hemengo ortuak txikiak zirelako eta han jendea behar zutelako lur zati handietan lan egiteko.

Amak ez zidan gehiago kontatzen; alde batetik ulertuko ez nuelako eta bestetik nahikoa zorigaitz banuelako hori gabe ere. Orain zaharragoa naiz, eta aitonaren egoera ondo ezagutzen dut, nik ere antzeko zerbait bizi izan bainuen. Dena hasi zen aita gizon bitxi batekin hizketan ikusi nuen egun hartan. Oraindik gogoratzen dut hura ikusi nuen burura etorri zitzaidana, xelebrea benetan: “ez nekien beldurra pertsona bat zela...” hain zen handia sentitu nuen ikara, beldurra pertsona hori ikustean, ezen beldurra bera zela pentsatu bainuen. Erbestekoa begitandu zitzaidan, gainera, niri ezezaguna zitzaidan hizkuntza batean hitz egiten zuen, aitak, antza denez, ulertzen zuena: “Le «gal» partira la semaine prochaine, c’est mille euro par personne et la moitié de cela par enfants.” Edo horrelako zerbait esan zion. Ni aho bete hertz geratu nintzen aitak diru mordoxka bat eman zionean eta amari galdetu nion:

–Zergatik eman dio aitak dirua gizon horri? Orain zer jango dugu?

–Ez da ezer gertatzen, Amadou, laztana, antzerki bat egiten ari dira, ez al duzu ikusten ze arraro jantzita doan gizona?

Baina ni ez nintzen lasai geratu azalpen horrekin, amaren aurpegia ez zen egunerokoa, tristezia nabaritu nion bere begiradan. Baina ez nion ezer galdetu, egun normala izango balitz galdetuko nion, mila galdera egiten bainizkion egun bakoitzean. Baina arraro sentitzen nintzen, “beldurra” zeritzan gizon horrek zoriona eta hitzak eraman zizkidan moduan. Gainera, aita ohiz baino egun gehiago igarotzen ari zen etxean eta ez nekien zergatik. Inork ez zidan ezer esan, baina hemen miatzen ibili naiz eta nire galderen erantzuna aurkitu dut: nire ume garaian asko eta asko arrantzatik bizi ziren, baina sektore honek porrot egin zuen eta lehen itsasoan arrainak harrapatzeko erabiltzen ziren “gal” edo kaiuko delakoak orain emigrazioarako erabiltzen dira.

Hura izan zen Yoff-en eman nuen azken eguna. Ustezko antzezlan hura ikusi ondoren jolasean aritu nintzen gaua heldu arte. Amak ohera joateko hots egin zidan eta hala egin nuen; otoitz egin nuen, betiko mahuma ekiditzeko eta loak hartu ninduen. Goizaldeko bostak inguru ziren amak iratzarri ninduenean:

–Esnatu zaitetz, ene semetxo maitea –eta besarkatu egin ninduen, negar malkoz bustitzen ninduelarik– aitatzorekin zoaz gaur, arrantzan egitera, nagusia zarenerako ikasi behar duzu eta.

Nik, dena sinestu eta pozik irten nintzen etxetik, ama agurka nuen atean, negarrez.

–Ez arduratu ama, ez egin negarrik, arrain handi-handi bat harrapatuko dut eta zuretzako ekarriko dut, zuretzako bakarrik.

Haiek izan ziren amari esan nizkion azken hitzak. Aita eta biok, bi manta esku batean hartuta eta papertxo bat bestean, hamar urte nituela, nire amesgaiztoa betetzera abiatu ginen. “Itsasontzian” montatu eta manta batez estali ninduen aitatzok.

–Egizu lo, “arrainak” dauden lekura iristeko oraindik asko falta da eta.

Lo kuluxka hartakoak ez dakit ametsak, amesgaiztoak edo iragarpenak ziren; bi izan ziren, oraindik gogoratzen ditut, primeran, ezin hobeki gainera.

Lehenean hodiz inguraturik aurkitzen nintzen, ohe baten gainean, baina ez zen nirea. Zuriz jantzitako amatxo bat etortzen zitzaidan noizean behin “nola zaude laztantxo?” esan eta zarata ateratzen zuen kutxa bat begiratuzera; lerro berdeak zituen, gora eta behera egiten zutenak. Egunean behin aitaxo bat etortzen zen, hiru besoko aparatu batez nire paparrak eta lepoak esaten zutena entzun eta joan egiten zen “bihar arte” esanez. Gau bat heldu zen, usai berezia zuen etxe hartan nengoen, zerbait sentitu nuen, norbaitek nire barrena eraman nahi izango balu bezala... PI, PI, PI, PIIIIIIIIII... entzun nuen eta izerditan itzartu nintzen.

Aitak laztanduz lasaitu ninduen eta berriz nire mundura joan nintzen, ametsen mundura. Horrela bigarren ametsa heldu zen, bestea baino laburragoa: itsasontzi handi hartan nihoan eta aita kanabera hartuta niri irakasten ari zen, arrain batek tenk egin zuen eta aita haria biltzen ari zela “Don beldur” agertu zen oihuka hizkuntza arraro hartan. Ez dakit zer esan zion baina aitak kanabera uretara bota zuen eta horrekin batera ni ere igeri egiteko asmoz edo ez dakit zertarako bota egin ninduen. GLUB, GLUB, GLUB... bigarren ametsa amaitu zen eta berriz nituen begiak mozoloen bezala.

Bigarren ametsa gogorregia izan zen niretzat eta ez nuen berriro begirik bildu.

–Aita non daude arrainak?

–Urrun seme urrun, baina zerbait esan behar dizut seme, hara iristen garenean prest eduki kanabera, egon hadi; batzuk arriskutsuak dira eta.

–Ondo da aita, soldadua gerran bezala egongo naiz, etsaiak noiz etorriko adi.

Egunak joan, egunak etorri eta ez zegoen arrainik, egia esan, gurekin itsasuntzian zihoazenek ez zuten aurpegi alairik. Ni oso pozik nengoen nire lehen arraina harrapatuko nuelako, baina haiek amaren antzeko aurpegia zuten. Zerbait larria gertatzekotan zelako modukoa.

Bi egun jada igaroak ziren nire jaioterria utzi genuenetik eta oraindik arrainik harrapatu gabe geunden. Ni galdetu eta galdetu eta aitak berdina errepikatzen zidan, oraindik asko falta zela “arrainak” zeuden lekura iristeko. Egia esan, umea nintzen legez oso aspergarria egiten zitzaidan egun osoa ezer egin gabe pasatzea, nire tripatxoaren orroak itsasoaren haserre hotsekin nahasten zirelarik. Untziratutako janaria agortzen zegoen eta eguneko janari “dosia” gero eta eskasagoa zen, indarrrik gabe sentitzen nintzen.

Gauak hotzak ziren, manta bat baino ez geneukan eta ez zen nahikoa itsasoak gogor jotzen zigunean babesteko, haizete gogorrek lastozko etxeak botatzeko haina indar zuen ur multzo horrek. Txalupa gora eta behera zebilen eta alboetarantz egiten zuen, orain ferian ikusten ditudan piraten barkuen antzera, batzutan gure aldekoak bustiz eta besteetan aurkako aldekoak. Ez zen egoera atsegina, baina negarrez hastekotan nintzen momentuetan ama etortzen zitzaidan burura eta agindutako arrainaz oroitzen nintzen. “Ezin diot huts egin” esaten nion neure buruari.

Nik ez dakit zer pasatzen zen aitaren burutik ezta beste gizonen burutik ere, gogoan dut isiltasuna nagusi zela txalupatxo hartan. Inork ez zuen ezer esaten baina kezka aurpegia zuten. Nire buruan imajinazioa zen nagusi eta nire abenturak bizi nituen, ametsetan besterik ez bazen ere. Egun bateko abentura gogoan dut orain, imajinaziozko mundu hori gainditu zuen ametsa. Esnatu berria nintzen, baina ez zegoenez jateko gosaririk, nire jolasaldi partikularra hasi zen. Egun hartan barku bateko kapitaina nintzen eta nire kideekin batera altxorra aurkitu izana ospatzen ari ginen. Halako batean soka tartean hanka nahasi eta itsasora erori nintzen kapela eta guzti. Hura zen hotza sentitu nuena. Bat-batean, hankak uretan sartuta nituen, baina konturatu ere ez nintzen egin, balantzaka nengoen bordan; antza denez nire ametsean nengoen, dantzan. Aitak oihu egin zidan oinak hortik ateratzeko, inoiz egin zidan oihurik beldurgarriena izan zen. Momentu horretatik aurrera nire sentimenduak aldatu egin ziren, aita lehen baino arrotzago zen niretzat, uste nuen deabru bat sartu zitzaioela barne-barnean. Izututa nengoen, gauero amarekin egiten nuen berba, baina aitak hizketaldia zapuzten zidan. Nire amesgaiztoa zen bakardadea oso hurbil sentitzen nuen, etxera bueltatu nahi nuen amatxorengana. Txalupa hartako gizonak ez zeuden ni baino hobeto, batzuek aurpegi zurbila zuten eta noizean behin bidaiako kideren bat falta zela konturatzen nintzen; baina nire munduan murgilduta nire herrira, etxera bueltatuko zela pentsatzen nuen, txalupatxo bat hartuta arraunean.

Egunak joan egunak etorri gero eta ahulago nengoen, baina ama berriz ikusteko irrikak bizirik mantentzen ninduen. Denbora asko generaman itsasoan, baina egun baten altxorraren irla bezalakoa ikusi nuen. Kokondoan orde, zuhaixka txikiak zeuden eta aurpegia margotuta zeukaten eta dantzan zebiltzan natiboen orde, geldi-geldi zeuden estatua antzekoak ikusi nituen, kanabera bat eskuan zutela.

Ezkutatuta zaitez seme, “arrain” horiek gertu daude eta arriskutsuak dira, egon isilik, itsasokoak ez diren arrainek urrunetik entzuten baitituzte arrantzaleen hizketaldiak.

Nire aitak bidaia hastean ahotan erabilitako “arrainak”, haiek, urrun zeudenak, lehorreko arrainak ei ziren; polizia, denok ulertzeko moduan. Ni oraindik mutikotxo bat baino ez nintzen eta ez nintzen konturatzen gertatzen ari zenaz.

Pixka bat aurrerago joan ginen, “lehorreko arrainen” lurraldean sartzen saiatu ginen baina haiek irabazi egin gintuzten. Kanabera zaratatsuekin guregana apuntatu eta ihes egiten saiatu ziren gutariko 10, arrainak bailitzan harrapatu egin zituzten eta bertan akabatu, gero buztana mugituz enbarazurik egin ez zezaten.

–AITAAAAAAA!!!!!!!!!!!!!!

Hura oihua, bihotza irten behar zitzaidala uste nuen. “Itsasuntzian” zihoazen gaine-rako gizonak ez ziren mugitu, ezta ni ere; ez, ez nuelako nahi baizik eta ezin nuelako. “Shokeatuta” nengoen, aita bertan odola zeriola eta ni alboan izututa. Arrainak gure bila etorri ziren baina kanabera zaratatsuak ez zituzten martxan jarri, eskuak lotu zizkieten gizon nagusiei; baina niri ez. Ni harrapatu ninduen gizonak esan zuen:

–*Pero si es un niño! Estos africanos ahora nos quieren traer a sus hijos también, lo siguiente qué sera?*

Ez nuen ezer konprenitu, hura ere hizkuntza arrotza zen; arrain gaizto horren ahotik irten ziren hitzak ez ziren goxoak izan behintzat. Gurekin zihoan gizon batek, hizkuntza horretaz pixkat zekienez antza, ulertu egin zion. Haserre jarri zen, orain ulertzen dut bai. Bihozgabeko polizia hori txarrenetarikoa zen, bestek ez zuten ezer esan, besteak bere lana betetzen zeuden, agindutakoa, baina gizon horrek bere lana maite zuela ematen zuen; disfrutatu egiten zuela nire herrikideak harrapatu, batzuk kanabera zaratatsuekin hil eta besteei eskuak lotuz, txakurrak bailitzan. Bere lankidea etorri zen.

–*Suéltalo, Ramón, es un pobre niño no tendrá ni doce años.*

Berriz hizkuntza arrotza, ez dakit zer esan zion baina askatu egin ninduen, arrain onak zerbait galdetu zidan:

–*Comment t’appelle?*

Nik ez nekien zer erantzun, sumatu nuen zerbait galdetzen ari zela baina isilik geratu nintzen.

–*Lo vamos a tener difícil porque no sabe ni francés.*

“Hitz ezagun bat, “francés”ek amak aipatutako herrialdearen izenaren antza du, aitona Amerikara eraman zutenen herrialdea. Nik ez nuen gizon horrekin egon nahi, urruti bidaliko ninduenaren beldur nintzen.

–*Deédeét America* –esan nion.

Gizonak eskutik heldu eta autoan sartu ninduen, nik ez nuen inondik ezagutzen, baina ez gindoazen aitona joan zen urrutiko lurralde hartara, horra itsasuntziz joan behar baitzen. Pixkat lasaitu nintzen eta isilik egin nuen bidaia osoa. Bidean zehar ez nuen kaletik umerik ikusi –“hemengo umeen amak ez dute zerura bidaiarik egin, beraiekin daude, baliteke nire amatxo ere nire zai egotea lau gurgildun bizikleta honek naraman lekuan”–. Etxe erraldoi baten parera iritsi ginenean geratu egin ginen eta eserita nengoen lekutik irtenarazi ninduen eta berriz eskutik oratu zidan. Etxe hartara sartu ginen eta hainbat ume ikusi nituen jolasean, atea euren amatxo zaitzaileak ireki zigan.

–*Buenos días, qué quiere señor?* –esan zuen nirekin zihoan gizonari begira.

–*Acaba de llegar este niño en un cayuco y parece que su padre ha muerto, podría hospedarse aquí?*

Amatxo hark baiezkoa egin zion buruarekin eta lehorreko arrain atseginak han utzi ninduen amatxo berriarekin. Orain, une haietan pentsatzen nuenaz oroitzean barregura sartzen zait batzutan. Badakit andre hori, Carmen, ez zela ume horien ama eta nire herrialdean umezurtzak kalean bizi diren arren, hemen gurasorik gabeko umeak umezurtegietan bizi direla.

Ni zorionekoa izan nintzen, umezurtegiaren hezi izan nintzen; ez ninduten adoptatu zaharregia nintzelako horretarako. Baina nire kabuz moldatzeko gai izan nintzenean etxe horretatik irten egin nintzen lan bila. Ez zen erraza izan, baina azkenean lortu nuen. Dirua aurrezten joan nintzen eta pisu bat alokatu nuen, halamoduzkoa zen; hala ere, banuen bizitzeko leku bat.

Urte batzuen buruan neska bat ezagutu nuen, orain nire emaztea dena. Bizitza honetan zorioneko izan naiz “lehorreko arrain onak etxe erraldoi hartara” eraman ninduen momentutik, baina beti izan dut barnean finkaturik, iltze batekin eutsita moduan, ama bila joan ez izana. Hasieran txikiegia nintzelako, gero dirurik ez nuelako eta orain ez dudalako bere berri; ez dakit bizirik dagoen edo ez, lehengo etxean bizi denentz...

Ei!! Hau ez da istorio triste bat, nire herritar asko bidean hiltzen baitira, itota edo hotzez hiltzen dira. Beste batzuk, berriz, beren herrialdera bueltatu behar dira egun batzuk igarota. Ni salbatu nintzen eta hemen nago, emaztearekin eta gure lehen semea edo alaba itxaroten. Bizitza ez da tristezia bakarrik, poza ere bada.



Beñat Elguren - BT 2. maila

“Ipuin xumeenak ere altxorra gorde dezake bere barnean”

ASPALDIKO EDERTASUNAK

Badira bi mila urte lurrak eztanda egin zuenetik, argia iluntasun bilakatu zenetik, oxigeno partikulek atzera bueltarik ez duen bidaiari ekin ziotenetik... Borobil handi eta miresgarri hark, bizitasuna islatzen zuen geometria irudi perfektu hark, zulo ilun eta sakonari eman zion bere ondorengotza, betirako pentsamendu ankerrei atea zabalduz eta espazio zabalera irteteko gonbita eginez.

Animalia liluragarri haiek, bizitza hain eroso eta eramangarria egiten zuten haiek, listu tantatxo batekin gorputz erraldoiak ziplo lurrera bidaltzeko gai zirenak, edota bere pisuaren bost edo sei aldiz handiagoa garraiatzeko gai zirenak; guzti haiek; hego gabe hegaz zekitenak, salto batekin zerua ukitzeko gai zirenak, ezer ikasi gabe bizitzako momentu zailei aurre egiten zekitenak eta noski, gizakia zenari hainbat laguntza eta momentu on eskaintzen ziotenak, denak espazioko iluntasunean galdu ziren. Baita gau-txorri edota gau animaliak, iluntasun hura ez zelako ohikoa, non gozokiro eta gustura sentitzen ziren, baizik eta indar maltzur eta aldi berean harrigarria.

Zuhaitzak eta landaredia, zer izan ote zen haietaz ere. Hain ziren ederrak eta txundigarriak, bizitza beraiek neurtutako erritmoan mugitzen zela zirudien. Gizakiak beraien aurkako amaigabeko matxinadak egin arren ere hor ziharduten, euren adar eta hostoak zabal-zabalik behar zuen orori laguntza emateko prest. Euria bazen aterpea, eguzkia izanez gero itzala, haizea egonez gero bere gorputz ostean babesa. Nahiago izaten zuten bere bizia ematea sustraietatik aterata gizakiari zerbait gertatzea baino. Hor zegoen beti; izakia gaixorik egonez gero sendatzeko egin ahalak egingo zituen eta denbora liberrik aurkitzen bazuten mundua ez puskatzeko beharrezko elikagaia sortuko zuten. Kutsadura gogorrenei eta tresneria zorrotzenei ere aurre egingo zioten. Bihozbera eta adeitsua izateaz at edertasunaren isla; hura bai pagotxa.

Hiri handiak, herrixkatxoak, zonalde aberats zein ikusgarriak, auzune pobre eta bakartiak, ibai ertzeko etxe amestua, fabrika inguruko txalet kutsatuak, denekin adiskidetzen saiatu naiz baina ez dute mugikorra erantzuten, hauek ere galduak ote? Hainbeste gauza on eta beste hainbeste gaizto, zaku batetan sartu eta begiak itxi orduko ezertxo ere ez.

Gauza pozgarriak arin bukatzen zirela ikasia nuen, baina txarrak ere hain bizkor aldentzea ez nuen espero. Hain gara txikiak, hain bigunak, hain ikaratiak. Gizakiaren dibertsio guneak, maitasuna ezagutu zuten tokiak, gorrotoaren azken muga ezagutu zutenak, fama edo atentzio gehiago nahi zuten lekuak, nora joan ote ziren?, aurpegia ematera lotsatuko balira bezala, hain gauza beldurgarriak egin al dituzte ihesean ibiltzeko?. Handinahien partidak, bizitzan aurrera egiteko gogoia, eguneroko lana, gizarte maila desberdinak bereizten dituzten ezaugarri hauek harriduraz hartuak izango ziren ororentzat desagertuak direla aipatzean.

Denaren jabe sentitzen zen ezjakina eta unibertsoaren aurrean egurrezko panpina bat besterik ez zena ere joan zen aspaldi. Onenerako gauza zena eta baita txarrenerako ere. Goiz baten pentsamendu on bati lagunduz bere biziko ekintza egiteko gai zena eta handik gutxira aldiz, pentsamendu ankerrenei ere ezin eutsiz lagun hurkoa ezereztzat hartzeko gai zena; azken finean gizakia, hain zuzen ere. Arrazoimenaz jokatzeko gai sentitu zenean besteak ezerezteko eta dena bere nahiaren gisan maneiatzeko gai sentitu zen hura, bere ongizaterako edota bere plazer edo atseginerako edozer egiteko gai zen hura, baina aldi berean bere bizia beste batengatik eman zezakeen edota mundu guztiari aurre egin. Izaki bitxia bezain adeitsua. Argia eta ez hain argia; lodia eta ez hain lodia; handia eta ez hain handia; gizakia azken finean. Txikia izatetik handia izatera bilakatu zena eta behin gora iritsita oharkabea, berriz, txikitu, deuseztatu, desagertu zena.

Lurra eta bere inguruak, hain ziren politak. Ilargia ere, izaki zozo hura, inor ere ohartzen ez zena beragan eta soilik fisika liburuetan agertzen zena, berak ere bazuen bere grazia. Txarrena galdutakoan ohartzea da. Horrenbeste gau ilargipean pasatu ondoren, beretaz jabetu ez izana lazgarria da. Zer nolako gau ederrak pasa zitezkeen ilargiari begira, bere janzkera ezberdinekin gozatuz, kamaleoia bailitzan. Behin lodi eta gihartsu, behin argal eta ahul. Lurrarekin bat desagertu zen hura. Jaberik gabeko txakurra bailitzan ibili ostean espazioan zehar galdu zen inoiz lehengoa izango ez zenaren pentsaeran, eguzki handiaren aurka talka egin eta bere azken janzkeraz agurtu zigularik.

Eguzkiak ubeldura asko jasan behar izan zituen garai hartan, jasotako kolpe askoren islada. Satellite artifizial guzti haiek, lurrak umezurtz utzi zituenak, ez ziren janari apetatsuak izan izar jakintsuarentzat. Oraindik eta eragin larriagoa izan zuten, digestioa txarra egin baitzuen, satellite haiek ama unibertsalak sortu ez zituela konturatzean. Eguzki – sistema gizarajoak asko sufritu zuen lurraren galerarekin. Leku hobe eta alaitsu batean zegoela imajinatu nahi zuen baina aurpegitik bera zetozkion tantek ez zuten hori islatzen. Bat familiakoa ez zela konturatzea golpe lazarria zenaren gain orain beste baten heriotza; familia gaixo eta errukarria. Zuk asko maitatu zenuen gizakia bat zure odolekoa ez izatea gogorra izan arren, kasu askotan aurrera egin daiteke. Baina horri anaia baten heriotza gehitzen badiogu, denak eztanda egiten du negar malakoak isuriz.

–Haiek bai garaiak, Afon izarra.

–Zuri entzunda barruan zerbait pizten zait, Folun agure agurgarria, denbora haiek bizitzeko gogoia izan behar du, ezbairik gabe. Hain izango zen polita, ikusgarria, miresgarria.

–Bai adiskide horrela zen. Inork amestu zezakeenaren emaitza gorena. Orain, berri, ingurune mingarri eta aspergarri honetan bizitzea suertatu zaigu, inolako paisaia atseginik gabe eta solas eta barre egiteko ezer gutxiarekin. Denbora hobeak etorriko diren esperoan egotea soilik geratzen zaigu, ezinezkoa izan arren ere esperantzak beti izaten baitu bere tokitoxa gure baitan.

–Inoiz begiak itxi eta zuk esandako lur horretan nagoela imajinatzen dut. Algaraka, festa giroan, edertasunean murgildurik. Baina amets horrek bukatu dira jada.


–Zergatik diozu hori, Afon?

–Momentua igarotzean, begiak irekitzean alegia, sentitzen dudak saminak eta ezer egin ezinak erre egiten nauelako eta bizitza pixkanaka agortzen zaidala nabaritzen dudalako. Hain da ederra, zeren oraingo ingurune hau ikustean bizitzaren desberdintasun handiez ohartzen zaren.

–Halaxe da bai, lagun. Dena emanda izan zuen ume hark eta oraindik gehiago nahi zuenak, guztia lortu arte, mundua berarentzat izateko guraria azaldu ez balu orain ez ginateke mundu ilun honetan murgildurik egongo. Dena izan eta gehiago lortu nahiak ez dakar gauza onik.

–Oraintxe aurrean izango banu jota bertan akabatuko nuke. Egon ziur.

–Berandu da jada horretarako.



Jasone Andikoetxea Ugarte - BT 2. maila

BELDURRA

Nik ez dut oroitzen
jaio nintzen eguna,
negar asko egin nuela,
amak esan zidan,bai.

Bizitzaz gutxi dakit,
bide labur eta agian patuaren
eskuetan dagoena dela,
baina,bideak inora eramaten ez zaituenean
beldurra izaten da,
negarka, oihuka, beti galduta.

Beldurra?

Zulo beltz eta sakon baten sartuta egotea agian,
edo zugandik urrun nagoenean,
zure falta somatzen dudanean,
eta oroitzapenak,
nire bihotzeko gelaxka ilunean
gordetzen ditudanean,
daukadan samina alde batera uzteko asmotan.

Askotan ulertzen ez dudana maitatzen dut
eta maite dudanari uler nazala eskatzen diot.
Baina gehienetan ezinezkoa da hori gertatzea,
eta itxaropenaren bidea estutu egiten da
egunak igaro ahala
pixkanaka-pixkanaka
nire bihotzeko tartetxo ilun horretan.
Eta berriz ere, beldurra sentitzen dut.

Beldur hori maitatzea da nire arazoa,
zu maitatzea da nire arazoa.

Bizitza osoan zehar bakardadea
izan da nire
lagunik estimatuena,
onena, zintzoena.
Bakarra.

Bakardadeari honako hau eskatzen diot:
nire bizitza bukaerara heltzen denean,
bila ezazu ni bezalako bat,
bakar-bakarrik sentitzen dena,
patuak zer oparituko dion zain dagoena.

Baina, hemen nagoen bitartean,
beldur naiz patuak
zu eta ni banatuko gaituen,
patua baita inora ez doan bidearen amaiera
determinatzen duen hura.
Gure bidearen amaiera,
gure bizipenen bukaera,
determinatzen duen hura,
heriotza.

Heriotza,
inora ez doan bidearen amaiera da.
Ezerez hori, bizitzaren amaiera da,
arimaren askapena da,
gogoratuko dugun eguna,
beti zain gauden eguna, aldaezina,
arimak beste gorputz bat
bilatzen duen eguna,
denok beldurrez itxaroten duguna.

Zergatik heriotzarenganako beldur hori?
Ulertzeko gai ez garen gauza delako,
maite ditugun pertsonak berriz inoiz
ikusiko ote ditugun ziurtasuna ez dugulako,
hurrengo pausua zein izango den ez dakigulako.
Eta berriz ere beldurra sentitzen dugu.
Beti errepikatzen den sentimendu
beltz hori,
gure barneko zati ilun horretatik
goibeltzen gaituen hura askatuz.
Ulergaitza eta maitagarria.
Eta berriz ere, bakardadearen
izpiek argitzen dute tartetxo hori,
zulo ilun horretatik ateratzeko
laguntza eskainiz, beldur horiek
lehengoa baino tartetxo
ilunago batean
berriz ere ezkuratuz.



Markel Arano Uriarte - HHI-ko ikaslea
“Zergatik ez ote zuen korrika egingo ba?”

MARKUS KORRIKALARIA

Duela urte asko, Natxitua izeneko herri txit batean, bazen ume bat oso langilea zena. Kanean egiten zuen lan hain zuzen ere NIKE zapatilak egiten. Hamar urte zituen mutiko horrek eta Markus izena zuen. Oso langilea zen. Oso famili pobrean hezia zen, horregatik egunean hamar ordu egiten zuen lan, familia mantendu ahal izateko.

Egun batean berak egindako zapatila pare probatzea erabaki zuen eta korrikan joan zen alboko auzoraino, oso denbora gutxian egin zuen ibilbidea hain zuzen ere 20 minututan joan etorria. Mutikoari gustatu egin zitzaion korrika egitea eta korrikan egiten hasi zen berak egindako zapatilekin, baina halako batean bere ugazaba mutikoak irteerak egiten zituela konturatu zen:

- Aizu Markus zer demontretan joaten zara korrika batean beti ordu berean?
- Mutikoak beldurtuta erantzun zion.
- Ugazaba jauna alboko auzora joaten naiz korrika.
- Alboko auzora zertan?

–Korrikan egiteagatik, gustatu egiten baitzait.

Ugazabak hasiera batean sinestu ezinezko aurpegia jarri zuen baina laster urduritu zen eta istilua egin zion. Zarataka erantzun zion:

–Nola alboko auzora joaten zarela korrika? Begiratu zure lagun Robert lan da lan mugitu gabe, lotsa eman beharko lizuke lanorduetan korrika egiten joatea zuk segi horrela eta laster joango zara kalera.

Markus negarrez hasi zen eta etxera alde egin zuen. Bidean zihoala gizon batek gelditzeko esan zion eta Markusek “beldurtuta” kasu egin zion eta bapatean gizon berbetan hasi zen.

–Aizu mutiko askotan ikusten zaitut korrikan, gustatzen al zaizu korrika egitea?

Markus aluzinatuta gelditu zen baina erantzun eta dena kontatu zion.

–Bai baina lanean nabil edo nenbilen eta ez daukat denbora askorik korrika egiteko.

–Bai zorte txarra!

–Baina jauna, arazo bat daukat, ni familia pobre batekoa naiz eta egunean hamar ordu egiten dut lan. Gaur arazo bat izan dut buruzagiarekin konturatu egin baita korrikan egiten dudala lan orduetan

–Horregatik zaude negarrez? Lana utzi egin duzulako ezta?

–Bai, ze gainera lan pila egiten dugu, gero gutxi edo ia ezer ez irabazteko, tipo hori esplotatzaile hutsa da zeren nik hamar urte ditut eta neuk egiten dut lanik gehien.

Gizon hori momentu horretan haserretu egin zen eta lehendabizi bere burua aurkeztu zion:

–Nire izena Martin da eta nire lanbidea ordezkariarena egitea da. Nahi baduzu korrika egin, egingo duzu, ze ordezkaria izateaz gain presidente entrenatzailea naiz korrikalarien talde batean. Talde horren izena Natxitua Team da.

Mutikoa pila bat poztu zen eta bere taldearen sistema azaltzeko eskatu zion baina aurretik bere burua aurkeztu zion.

–Nire izena Markus da eta gustatuko litzaidake jakitea nola den zuen funtzionamendua, azalduko bazenit, mesedez.

–Normalean Kros mundua hasten gara lantzen. Ahal bada, kilometro bateko edo bitako kros laburrak. Distantzia hori zure adineko jendeak egiten du. Gero dena ondo badoa, infantilek eta kadeteek bost kilometrotako krosak egiten dituzte. Ondoren jubetilak datoz. Hauek zortzi kilometrotako krosak egiten dituzte. Momentu hori arte dena normal joaten da baina hor hasten da arazoa. Profesionaletara pasatu ahal izateko onenarikoa izan beharko zenuke. Imagina ezazu profesionaletara pasatzen zarela, gero hor irau behar da. Nik ezagutzen dut kasu bat jubeniletan den-dena irabazi zuena, ondoren profesionaletan ez zuen ezer egin eta bota egin zutela. Ona baldin bazara kros asko irabazten badituzu iragarkiak egiteko deituko dizute telebistatik.

–Zerbait sinatu behar al dut?

–Oraingoz ez, baina zin egiten dizut zuk nahi baduzu sinatzen duzun lehen kontratua gure taldearekin sinatuko duzula.

–Noiz hasiko naiz entrenatzen Martin jauna?

–Zuk nahi duzunean, baina nik gomendatzen dizut gaur arratsaldean bertan hasteko. Ongi etorria izango zara zure adinekoen entrenamenduan

–Ondo da, baina, zer ordutan entrenatzen duzue gutxi gora behera?

–Entrenamendu ordu ezberdinak daude baina normalean zure adinekoek arratsaldeko 5ak bueltan entrenatzen dute.

–Beno ba gero egongo gara. Gero arte.

–Gero arte eta ondo jan, beharko duzu eta.

Mutikoa etxera joan zen eta amari dena kontatu zion. Baina amari ez zion grazia handirik egin lana uztearena.

–Lana zergatik utzi duzu, ni fastidiatzeagatik edo benetan esplotatu egiten zintuelako buruzagiak?

–Ama gauza bi esan behar dizkizut. Nik zuri ez nizuke inoiz minik emango ze oso maite zaitut. Eta bigarren gauza bai esplotatzen ninduela.

Bazkariko ordua heldu zen eta bai azkar bazkaldu ere Markusek. Urduri zegoen bazkaldu eta bi ordutara bere lehen entrenamendua zeukalako. Bi ordu horiek pasatu eta Markus entrenatzera joan zen bere lagun eta talde berriarekin.

–Beno mutilak, gaurtik aurrera beste bat hasiko da gurekin entrenatzen. Bere izena Markus da eta oso famili txiro batekoa da. Hasteko beroketa saioa egingo dugu ta gero kilometroa korrituko duzue ea nor den azkarrena.

Dudarik gabe Markus izan zen lehena. Egun hori pasatu ostean, Markus egunero hasi zen entrenamenduetara joaten gustatu egin baizitzaion.

Lehen urtean korritutako ia kros guztiak irabazita, Euskal Herriko txapelketa heldu zen eta krosa irten aurretik bere entrenatzaile Martinekin hitz egitera joan zen.

–Beno Markus, badakizu zer egin behar duzun; hasieratik eraso.

–Ondo da Martin, beti bezala egingo dut, eraso eta eraso.

Markusek erraz irabazi zuen txapelketa hura. Hurrengo urtean mailaz igo zuten eta maila berriko lehenengo urtean garaipen bakarra lortu zuen, hain zuzen ere bere herrian, Natxituan. Sekulako poza hartu zuen. Bigarren urtean berriz, dena irabazi zuen. Maila honetan ez zuen beste urterik egin jubeniletara igo baitzuten 14 urterekin. Jubeniletan ere dena irabazi zuen, munduko kros txapelketa barne. Gogoratu behar da mutiko hau esplotatua izan zela txikitan buruzagi ero batengatik eta oso famili txiro batean hazitakoa zela. Momentu horretan jadanik dirutza irabazia zeukan.

–Aizu Martin, gogoratzen al duzu noiz eta nola hasi nintzen Natxitua Team taldean korrika egiten?

–Bai Markus, oso ondo gogoratzen dut egun hori, duela zazpi urte, egun euritsu batean ezagutu genuen elkar, oso txiroa zinen eta begiratu orain zenbat diru daukazun.

–Arrazoa daukazu baina lortu dudana neuk lortu dut asko entrenatuta. Beno, zuk ere badaukazu zerikusia nire lorpenetan, zeren beti egon zara hor, bai momentu onetan eta bai txarretan ere.

–Eskerrik asko Markus, oso tipo ona zara eta gainera munduko txapelduna gaztetxoetan eta gazteetan. Uste dut heldu dela momentua profesioaletara pasatzeko.

–Nahi duzunean sinatuko dut kontratua. A! Eta berri bat dizut emateko: NIKE marka eramango dut oraindik aurrera ze diru asko eskeini dit.

–Esan nizun ezagutu genuen egunean ona baldin bazinen diru asko irabaziko zenuela.

Markus Profesioaletara pasatu zen. Kostatu zitzaion maila berrira ohitzea baina lortu zuen. Bi munduko kros txapelketa irabazi ostean krosa uztea erabaki zuen eta maratona pasatu zen. Hemen ere munduko txapelduna izatea lortu zuen sei aldiz. 40 urterekin utzi zion korrika egiteari. Gero ezkondu egin zen bere betiko neskalagun izandako Manuelarekin.

Bi urte beranduago kotxe istripu batean hil zen Markus.





Begoña Alzibar Zendagorta - HHI-ko ikaslea

“Bizitzan hainbat oztopo topatuko direnez, nortasun indarra behar”

EMAKUME LANCILEAK

Behin batean baserri batean hiru ahizpa bizi ziren. Euren izenak Pilar, Karmen eta Klara; azken hauek bikiak ziren. Aitite-amuma eta gurasoekin bizi ziren. Hiritik urrun zegoen eta ikastolara joateko 10 kilometro ibili behar izaten zituzten; hala ere, ibilgailurik ez zegoenez, horrenbeste ibili behar izateak ez zuen kezarik ateratzen haiengandik.

Beraz, beren arazoekin eta guztiz, pozik bizi izaten ziren. Ez zuten jakin, adibidez, anorexia zer zen, XXI mendeko gaixotasun erraldoia, sentitu gabe hil egiten duena. Fisikoki ondo mantentzen ziren, emakumeek egiten zuten kirola baino gehiago egiteko moduan, batez ere futbola, gizonak egiten zuten kirola. Ez zegoen ondo ikusia emakumeak zelaian egotea, eta hobe zutela etxeko-lanak egitea esan ohi zieten zen. Hauxe izan zen euren bizitzan oztopo handi bat. Beste aldetik, bigarren oztopoa hizkuntza zuten. Ikastolan eta inguruan gaztelaniaz hitz egin behar zuten.



Hara noiz egun batean gurasoak gaixotu ziren eta orduan baserriko lanak neskek beraiek egin behar izaten zituzten: abereak zaindu, ikuiluak garbitu... oso lan gogorra zen baserrikoa. Hala ere, horrekin ez zuten nahikorik izaten, soldata bat behar zuten. Beraz, lantegi batera komeni zela ikusita, Klara aukeratu zuten horretarako. Ikastola eta baserriko lanak aldera utzita, hirira joan zen Klara.

Klara gaztea eta polita zen: ile beltza eta luzea, begi handiak, gorputz atletikoa... Horrez gain, beti pozik egoten zen, nahiz eta bere ingurukoak humore txarrez egon. Lantegian emakume gutxi egoten ziren, baina Klara ez zegoen kezkatutik, zurrunbiloari ere ez zion kasurik egiten. Baserrian ohituta eta, ez zion beldurrik ematen lantegiko lanak, oso gogor egiten zuen berak eta. Oztopo guztien gainetik pasatu eta ez zuen inoiz amore eman, azkenean lantegiko langileek beren kide moduan onartu zuten.

Batzuetan bazuen itxaropena jendearengan eboluzioa ikusiko zuela, baina beste batzuetan ez. Horrela jarraitu zuen urte askotan, beti topatzen nork oztopoak jarri emakumea zela eta. Era horretan ikasi zuen beharrezkoa zela bizirik mantentzeko sistemaren kontra borrokatzea.

Bitartean, Pilar eta Karmenek baserrian jarraitu zuten, aitite-amuma eta gurasoak zaintzen, lan eta lan, nahiz eta Klarak dirua bidali lantegiko lanagatik. Urteak joan, urteak etorri, eta pixkanaka zahartu ziren guztiak. Lehenengo amuma hil zen, gero aitite, aita eta azkenez, ama.



Hiru neskegandik, Klara bakarrik ezkondu zen, hogeita zazpi urtez, eta beste ahizpek, ozenki esan gabe, inbidia itzela zioten. Klarak bi seme izan zituen, dirua bidali aparte, ez zen familiaz arduratzen, ezinezkoa baitzizaion. Baina Pilar eta Karmen Klararen kontrako gorroto bezalako sentimendua hazten hasi ziren, kartzela barruan sentitzen zirelako eta Klarak alde egiteko aukera aprobetxatu ahal izan zuen eta.

Azkenean ama hil zenean, Pilar eta Karmenek baserria saltzea erabaki zuten, Klarari iritzia galdetu gabe. Klararen senarra sutan jarri zen, emaztearen ondasuna kentzen ari zirela ulertuta, eta hor istilu itzelak sortu ziren. Orokorrean epaitegian amaitzen diren honelako arazoek, oso ezatseginak izan aparte, diru piloa galeratzen dute. Horrela, ahizpen arteko lotura desagertu zen baina horrez gain famili ondasuna gutxitu egin zen oso.

